

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-09-19
ASTELEHENA
334. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



"Planteatu den euskal kutxen bategitea txarra da"

Amaia Muñoa
ELA sindikatuko ordezkaria | 7

Angela Vilariño eta Alazne Apalantza Aramaion azkarrenak izan ziren | 9



Eguaztenean ACB mailako saskibaloia Eskoriatzan | 25



Aretxabaletak eta Bergarak bana ikasturteko lehen derbian | 24

Hirurehun haur dantzari batu ziren domekan Oñatin

Horietatik ia ehun dantzari Gernikatik etorri ziren | 13



Dantzariak plazan. | JA.

San Martin jaiak hotz utzi ditu eguraldi txarrak | 12

Bir-zikleta azokan salgai jarritakoaren erdia saldu da

Aurten iaz jasotako materiala baino %14 gehiago jaso dute | 5

Larrainetik Bergarara

'Monzon' pastoralak bi mila ikusle batu zituen Errege Seminarioan jarri zuten karpan. Larraineko herriaren ikuskizunak une gogoangarri asko utzi zituen | 28



Telesforo Monzonen papera egin zuen Dominique Urruty —erdian— hunkitu egin zen ekitaldia egiteko Monzonen beraren makila eman ziotenean. | JOSETXO ARANTZABAL

"Bertsolaritzak antzekotasun handia du zinemarekin"

Asier Altunak 'Bertsolari' estreinatu du Zinemaldian | 29



Asier Altuna Kixi. | HARITZ DENDATEGI

Gatzagainen egindako ur depositua urri hasierarako egongo da erabilgarri | 11

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

GOZATU, MEREZI DUZU!

LILURRA
EDERTZE INSTITUTUA



Txartela, beti aldean

► Zoaz 21 orrialdera

Gureak taldea ez dago krisian: eskaera berriekin hasi du iraila

- ▶ Gama altuko autoendako kableak egiteko eskaera gero eta gehiago jasotzen dituzte Debagoiengan
- ▶ Bergaran, Labegaraietan pabilioi berria erabiltzen hasi dira; lanaren dibisio bat hara eraman dute

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA
Gureak taldeak berritasun on askorekin hasi du udako opor osteko jardunaldi berria. Oihartzun handien lortu duen berritasuna GKN Driveline-ekin egindako hitzarmena da; baina Debagoieneko lantegi eta langileei zuzenean eragiten dien berritasun garrantzitsu gehiago dago.

Albiste onena hau da: uda partean krisiari buelta emateko gai izan dela Gureak taldea. Ber-

garako lantegiko arduradun Javier Barrerok hauxe dio: "Iazko urtea gogor samarra izan zen; Bergarako lantegian, urtarrila eta otsaila bereziki zailak izan ziren. Baina, pixkana-pixkana, buelta ematen hasi ginen, eta orain nahiko ondo gabilta. Gainera, ez dugu geldialdirik izan, ez delako eskaera faltarik egon. Orain, uda eta gero, motelago ibiliko ginela uste genuen, baina topera gabilta; guk aurrekusi baino hobeto".

Gama altuko eskaera gehiago
Bergaran eta Arrasaten, automobilgintzarako egin izan dute lan, eta Barrerok esaten duenez, automobilak "aldatu egiten dituzte lauzpabost urtean behin; horregatik, denbora bat egiten generaman proiektu bat beharbada bukatu egiten da, baina berri batzuk sartzen dira. Orain, proiektu garrantzitsuak adjudikatu dizkigute". Horregatik, Gureak tailerrak ondo dabilta, "batez

ere, gauden garaiak kontuan hartuta".

Automobilaren katalizatzailetarako direktoriarako zein faroetarako kableatuak egin izan dituzte orain arte. Barreroren hitzetan, "orain, kableatu konplexuagoak lantzen hasi dira Gureak-eko tailerrek: Audi Q7 gama altuko autoarendako faroetarako, eta baita gama baxuko auto askorendako ere". Hori, Bergarari dagokionez; eta Arrasaten

ere, Volkswagen Passat B7 gama altuko auto berrirako piezak egiten hasi dira; TRW automobilgintzako segurtasun enpresarendako klaxonak; eta Valeo, gama altuko automobilendako elementuak egiten dituen enpresarendako ere lan egiten dute. Barrerok esaten duenez, "lehen ere, gama altuko eskaerak bazeuden; baina orain gama horretan lan handiagoa" egiten dabilta Gureak tailerrak.



Gureak taldearen Bergarako lantegian dabilta langile batzuk. | LEIRE KORTABARRIA

Picassoren eta Obamaren ondoan

Egunero-egunero, tarte bat Zabala programaren gelan emateko aukera dute Gureak-eko erregimen okupazionalen langileek. Lehenengo solairuan dagoen gela handi horretan, Mari Jose Agirrebeñak lagunduta, Gureak-eko kideek debateak, marrazkiak, jokoak... egiten dituzte gaurkotasanarekin lotutako gaiak hartuta: energia nuklearraren mundu-mapa prestatu zuten, Obamaren programa landu zuten –laster, azaroko hauteskundeak landuko dituzte–, Internetez bidaia merkeena erosten ikasi, Picassoren *Guernica* marraztu... Egun hauetan, kutxen bategite prozesuaz hitz egiten dabilta.

Ikastaroak –dantza, makillajea, sukaldaritza...– eta irteerak –Eibarko armen museora, Aspacera, gaztetxera...– ere egiten dituzte. "Gaitasun sozialak lantzen dituzte, burujabeago bihurtzen dira eta jendartean hobeto moldatzen ikasten dute", esaten du Agirrebeñak.



Langile batzuk, Interneten albisteak irakurtzen. | ARGAZKIAK: LEIRE KORTABARRIA



Guernica marraztu zuten, baita ederto marraztu ere.



Zentral nuklearen mapa egin zuten.



baten denetariko lanak egitea, bezeroarendako gure eskaintza ere dibertsifikatzeko", azaltzen dute arduradunek.

Orain arte egin duten lan ona aitortzeko, Aenorrek, Espainiako Normalizazio eta Zertifikazio Elkarreak, ISO/TS kalitate ziurtagiria eman zion joan den maiatzean Gureak taldeko automobilgintza sailari. Arduradunak oso pozik daude: "ISO 9001 agiria baino pauso bat harantzago doa, eta automobilgintzako bezero gehiago lortzeko atek irekitzen dizkigu".

Egun, Europako herrialde askotako -Frantzia, Polonia, Alemania...- bezeroak dituzte, eta Ameriketako herrialdeetara ere abertuak dira.

Hazteko lekua

Leku aldetik ere, askoz hobeto daude orain Bergaran. Hala, abuztuaren bertan estreinatu dute aspalditik erosita baina bertara sartu gabe zeukaten pabilioi bat, hori ere Labe-garaietan, bestetik oso gertuan. Nerea Txintxurrearen esanetan, "Gureak-ek pabilioi hori erosi zuen eta zabaltzeko asmoa zuen, baina, krisiarengatik, alde batera utzi zuen asmoa. Orain izan da une egokia". Urtarrila ezkerreko pabilioi berria egokitzen ibili dira, eta dagoeneko lanean dabilta.

Pabilioi berrira, lehen betiko lantegian egiten zuten lan bat eraman dute: kableak mozteko, zuritze eta engastatzeko lerroa, CPE deitzen diotena. CPE pabilioia enplegurako zentro berezi erregimenekoa da eta 38 langile dabilta, David Diaz arduradunarekin. Pabilioiak 1.700 m² hartzen ditu eta bi zati ia berdinetan banatuta dago: ekoizpena eta biltegia. CPE lantegian, kablez hornitzen dituzte Gureak taldeko gainerako lantegi guztiak eta, kasu batzuetan, zuzenean bezeroak ere bai.

Horrenbestez, Bergarako Labe-garaieta industrialdean hiru egoitza ditu Gureak taldeak: betiko pabilioia,

CPErena eta GKNrekin muntaia pabilioia.

Lekuz aldatu dituzten CPEko instalazioekin, egoitza nagusiarendako 3.000 m² irabazi dute, oraingoaren beste hainbeste. "Asko hazi da lantegia, eta 80 langilerendako leku txikia geneukan, engastea eta muntaia leku berean zeudelako. Orain, muntaiak hartuko du espazio osoa, eta etorkizunean zabaltzeko eta hazteko lekua daukagu", esaten du Javier Barrerok.

Denetariko negozioak

Gureak oso talde dibertsifikatua da. Arrasateko tailerrean ere denetariko lanak egingo dituzte hango 110 langileek. Gainera, Debagoienean Gupost (Euskadiko Kutxan), Guregas (Oñatin) eta Garaiaiko jatetxea dituzte.

Horrez gain, Gureak-eko zenbait langile enpresa normalizatuetan integratu dira: esaterako, Aretxabaletako erresidetzian.



CPEko arduradun David Diaz, instalazio berrietan. | LEIRE KORTABARRIA

Antolaketa berria

Automobilgintzako tailerrak izan dira tradizionalki Arrasatekoa eta Bergarakoa, baina hori aldatu egingo da. Nerea Txintxurreta da Gureak taldeko Logistika arduraduna eta Arrasate eta Bergara zonaldeko arduraduna: "Orain arte, jarduerak banatzen ziren lantegiak: industrialak eta automobilgintza. Baina orain, dena batu egin da eta berriz antolatu da. Zonaldeka banatzen dira orain: hiru zonalde daude eta

bakoitzak bere arduraduna dauka". Arrasate, Bergara, Eibar eta Legazpi batu dituzte zonalde baten.

Horrek esan nahi du Gureak-eko langileek euren jarduerak dibertsifikatzeko, beste lan batzuk ikasteko eta egiteko aukera izango dutela, eta hori izango da aldaketa aipagarriena. "Orain arte, automobilgintza enpresetarako egin dute lan; aurrerantzean, beste lan batzuk sar daitezke, adibidez Fagorrendako. Gure asmoa da tailer bakar

ESANAK

"Aurrerantzean, tailer bakar baten denetariko lanak egingo ditugu, gure eskaintza dibertsifikatzeko"

JAVIER BARRERO | ARDURADUNA

"ISO/TS kalitate ziurtagiria jaso dugu, eta 9001 baino pauso bat harantzago doa; ate gehiago irekiko dizkigu"

NEREA TXINTXURRETA | ARDURADUNA

"Pabilioi berriak 1.700 m² ditu eta engastatu lerroa dugu han; egoitza nagusian hazteko lekua dugu orain"

JAVIER BARRERO | ARDURADUNA

DATUA

50.000

PIEZA

Gureak tailerrek 50.000 pieza banatzen dituzte egunero, eta helburua da urtean 16.000.000 piezatarako ailegatzea; horrez gain, piezak stock-ean gordetzeko gai izango dira.

228

BEHARGIN

Arrasateko eta Bergarako lantegietan 228 langile dabilta. Horiei gehitu behar zaizkie Gureak-en beste negozioetako langileak: Garaiaiko jatetxea, Gupost eta Guregas, batik bat.



Euskara ikasteko. Orduz gero, arratsaldean eta gabez. Beka sistema eta diru laguntzak ditugu.

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Arrasate
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net



BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Bergara
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4 • 20550 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Intxaurtxueta 10 • 20540 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA

Bidebarrieta kalea 18 Oñati
Tel.: 943 78 24 96
Faxa: 943 71 82 96
euskaltegia@oinati.net

Patxi Lopez Lehendakariak Mondragon Unibertsitatearen ikasturtea inauguratu du

- ▶ Martin Garitano Diputatu Nagusia, hezkuntzako ordezkariak eta bestelako eragileak batu ziren Oñatin
- ▶ Enpresagintza Fakultateko Mondragon Team Academy komunitateak garatu zuen hasgai akademikoa

EDU MENDIBIL | OÑATI

Mondragon Unibertsitateak ikasturte berriari hasiera eman zion egubakoitzean, Oñatiko Enpresagintza Fakultatean. Besteak beste, Patxi Lopez Lehendakaria, Martin Garitano Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Isabel Zelaa Hezkuntza sailburua, Josu Zabala MUKo errektorea, Javier Sotil MUKo presidentea edota Idoia Peñakoba MUKo idazkari nagusia izan ziren ekitaldian. Era berean, Oñati, Eskoriatza edota Arrasateko alkateak, Deustoko eta EHUko errektoreak, Bergarako UNEDeko zuzendaria eta bestelako eragileak gonbidatu zituzten.

Enpresagintza Fakultateko Mondragon Team Academy ekintzaile komunitateak garatu zuen hasgai akademikoa. Gaia, *We make our dreams become true creating our teams learning cooperatives*. 22 ekintzailek hartu du te parte egitasmoan. "Aurrera, beti aurrera" da haien leloa eta ametsak gauzatzeko ilusioa agertu zuten egubakoitzean. Aipaturako leloa esatera animatu zituzten aretoan batutakoak, agintariak barne. Jose Mari Arizmendiarraren



Agintariak eta MUKo ordezkariak, dantzarien aurrean, egubakoitzean Oñatin. | E.M.

taren eta bestelako ekintzaileen bideari eustea da helburua.

Ekintzaileen garrantzia

Patxi Lopez Lehendakariak ametsak gauzatzeko laguntza ematea ezinbestekoa dela adierazi zuen, are gehiago krisi garai honetan ekintzaileen lana ezinbestekoa

dela azpimarratuz. "Aurrera, beti aurrera" esaldiarekin amaitu zuen hitzaldia Lehendakariak, bide batez ikasturte berriari hasiera emanez. Bestalde, Josu Zabala MUKo errektoreak adierazitakoaren arabera, "astebete pasatxo barru" inauguratuko dute ofizialki Basque Culinary Center:

Zientzia Gastronomikoetako Fakultate berriaren egoitza eta Elikadura eta Gastronomiako Ikerkuntza eta Berrikuntza Zentroa. "Lanerako prest dago jadanik. Garatu eta sustatuko dugula hitzeman dugun unibertsitate-proiektu baten abiapuntuaz ari gara, hezkuntza eta eskari alde-

ESANAK

"Ekintzaileen lana ezinbestekoa da, are gehiago krisi garai honetan"

PATXI LOPEZ | LEHENDAKARIA

"Astebete pasatxo barru zabalduko dugu Basque Culinary Center"

JOSU ZABALA | MUKO ERREKTOREA

tik arrakasta izango duen proiektu batez". Honako hau ere esan zuen Zabalak: "Hemen gaude, beste behin, ilusioz beterik, ikasturte akademiko berri bati ekiten prest. Apustu bereziki garrantzitsu batzuk egin genituen duela lau urte eta horietatik bi erreferentzia bihurtu dira estatu mailan: LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) Gradua eta Gastronomia eta Sukaldaritza Arteetako Gradua"

Tradizioak agintzen duen moduan, *Gaudeamus Igitur* abestiaren doinuekin eta *Agur Jaunak* abestiarekin amaiera eman zioten ekitaldiari.

Antolatzaileen aurreikuspenak gainditu ditu Euskal Herriko historialarien biltzarrak

Egubakoitzean Lope de Agirri buruzko liburua aurkeztu zuten

TXOMIN MADINA | OÑATI

Nabarralde antolatutako Euskal Herriko historialarien II. biltzarren harira ekitaldi ugari egin dituzte Oñatin, batzuk pribatuak, eta beste batzuk irekiak. Azken hauen artean sartzen da egubakoitzean kultur etxeko zinema aretoa bete zuen *Lope de Aguirre o la posteridad arbitraria* liburuaren gaztelarazko edizioaren aurkezpena. Ingrid Galster alemaniarra da liburuaren idazlea, eta bera izan zen hizlaria.

Mendetan zehar oñatiarraren figura landu duten dokumentuak aztertzen ditu liburuan Galsterrek, eta ondorioztatzen du garai eta egilearen arabera heroia edo berreroa kontsideratu izan dela. Azaldu zuenez, ez zen ez bata, ezta bestea ere, pertsona anbigua baizik. Zalantzarikoa izan ez zena liburuak izandako arrakasta izan zen: salgai jarritako hogeik aleak berehala agortu ziren-eta.

160 parte-hartzaile

Biltzarren zuzendari Joseba Asironen esanetan, sekulako arrakasta izan da biltzarra. "160 pertsonak eman dute izena, eta aurreikuspen guztiak gainditu dira. Arlo zientifikoari dagokio-



Ingrid Galster egubakoitzeko aurkezpenean. | TXOMIN MADINA

nez, ponentziek maila altua izan dute eta landu nahi genuen gaia, mendebaldeko lurraldeek estatu nafarrarekin izan zuten harremana, erabat asetuta geratu da", zioen atzo Asironek. Biltzarretik

kanpo herritar guztiendako antolatutako ekitaldiek, besteak beste Joseba Tapiak emandako kontzertuak, erantzun oso ona izan dutela azpimarratu zuen zuzendariak.

Bateraguneko epaian kondenatutakoei babesa adierazteko elkarretaratzeak gaur

E.M. | ARRASATE

ELA, LAB, STEE-EILAS, HIRU eta EHNE sindikatuek deituta, gaur, astelehena, "Bateraguneko epaian kondenatuak izan diren guztiei babesa eskaini eta bidegabekeria hori salatzeke", elkarretaratzea izango da Arrasateko Udaletxe aurrean, 12:00etan. Ordu berean elkarretaratzea egingo dute baita Eibarren ere.

Auzitegi Nazionalak Arnaldo Otegi eta Rafa Diez hamar

urtera zigortu ditu, ETako buru izatea egotzita. Era berean, Arkaitz Rodriguez, Miren Zabaleta eta Sonia Jacinto zortzina urtera zigortu ditu eta guztiak inhabilatu dituzte. Txelui Moreno, Amaia Esnal eta Mañel Serra, berriz, absolbitu egin dituzte. Zigortuek helegitea jarriko dutela jakinarazi dute.

Euskal gehiengo sindikalak dei egin die langile guztiei gaurko elkarretaratzean parte hartzeko.

Guardia Zibilen protesta asmoen aurrean batzar informatiborako deia egin dute

X.U. | ARRASATE

Guardia Zibileko Asociación Unificada delakoak (AUGC) Euskal Herrian lanean diren guardia zibilen aldeko kanpainari ekin zion joan den astean eta datorren hilean Eusko Legebiltzarren aurrean eta Oñatin protesta ekitaldiak egingo dituztela aurreratu zuten.

Horrekin batera, AUGCko kideek salatu zuten Bilduren aldetik guardia zibilek jasaten duten presioa, eta gogorarazi zuten guardia zibilen atzean familiak daudela.

Batzar informatiborako deia

Guardia Zibilek urrian Oñatin egin nahi duten protesta ekitaldia dela-eta, zapatu goizean Oñatiko hainbat kaletako etxebizitzetan esku-orriak azaldu ziren, bihar, martitzena, kultura etxean (19:00), herritar talde batek deituta egin nahi duten batzar ireki eta informatiboan parte hartzeko eskatuz. Esku-orri horretan aditzera ematen dutenez batzar horretan Guardia Zibilek egin nahi duten protesta ekimena izango dute berbagai.

Bizikletaz ere mugi gaitzezkeela agerian utzi dute egunotan bailaran

Zapatuan, Bir-zikleta azoka, eta atzo, Arrasate-Eskoriatza bira egin zuten

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Mugikortasunaren harira, askotariko ekintzak egin dira asteburuan gurean. Zapatu goizean dagoeneko klasikoa bilakatu den Bir-zikleta azoka egin zuten Arrasateko Seber Altuben; aurten ere oso harrera ona izan du eta eskainitakoaren erdia baino gehiago saldu da. Horren harira, esan beharra dago azoka zabaldu aurretik jendea zebilela ume eta helduendako bizikletak nahiz osagarriak arretaz aztertzen.

Besteak beste, 55 mendi eta errepedeko helduendako bizikleta, 29 ume bizikleta, 32 osagarri, 23 kasko, 23 patinete eta 13 patin jaso dituzte aurten. 2010. urtean baino %14 material gehiago jaso da, eta kalitate handiagoko materiala ere izan da; hain justu ere, dirutan 12.600 euroko balioa duen materiala jaso da. Horren harira, Udaletik jakinarazi dute azokan saldu ez den materiala eta saldu-takoaren bigarren eskuko zenbatekoa jabeari itzuliko zaiola eguenean, 17:00etatik 19:00etara, udal azokan.

Bestalde, Biteri plazan jarritako emisio txikiko ibilgailuen erakusketak ere ikusmina piztu zuten, bereziki bizikleta elektri-



Oso harrera ona izan zuen Bir-zikleta azokak. | JOSETXO ARANTZABAL

koek. Behin baino gehiago ausartu zen horiek probatzera.

Bizikleta bira, euripean

Domekan, Arrasate eta Eskoriatza arteko bizikleta bira euripean egin zuten. Eskoriatzan 10:00etan

zuten hitzordua, eta hasieran ziklista gutxi animatu baziren ere, Aretxabaletatik eta Arrasateetik pasa ostean 100 laguneko tropela osatu zuten. Berotan sartzeko, Eskoriatzan hamaiketakoan zuten zain.

Aralarreko militanteek azaroaren 20an Bildurekin batera joatea berretsi dute

Botoen %71ren babesa izan zuen alderdiaren zuzendaritzak aurretik hartutako erabakia

M.B. | ARRASATE

Zapatuan egindako V. Kongresuan, Aralarreko militanteek onartu egin zuten azaroaren 20an Bildu koalizioa osatzen duten kideekin batera aurkeztea. Aurretik alderdiaren zuzendaritzak hartutako erabakia berretsi zuten militanteek; botoen %71ren babesa jaso zuen zuzendaritzak aurkeztutako proposamenak.

Horren harira, Aralarreko Gipuzkoako batzarkide Rebeka Ubera elgetarrak kongresuaren

balorazio positiboa egin du: "Oso balorazio positiboa egiten dugu, berretsi eta indartu zelako ponentzia ofizialaren ildo politikoa. Horretan, besteak beste, hauteskudeari begirako proposamenak jasotzen dira".

"Eztabaida sakona"

Kongresuari buruz honakoa esan du: "Oso eztabaida sakona izan zen, errespetu handiarekin egindakoa gainera. Bereziki hauteskudeez jardun genuen horretan".

Eguzki-Eneako etxebizitza promozioaren kaltetuek kontzentrazioa egingo dute etzi, 18:00etan, obretan

Haserre daude Aretxabaletako Txarapea kalean amaitzeke dauden etxebizitzaren jabeak; urteak daramatzate etxe horiek noiz bukatuko zain. Ekainetik geldi daude lanak, eta euren egoeraren berri emateko elkarretaratzea egitea erabaki dute. Etzi, eguaztena, kontzentrazioa egingo dute Txarapea kalearen amaieran, 7 urte itxaroten egon ostean, gure etxeak nahi ditugu! lelopean. Lehen aldia da kale agerraldia deitzen dutela, eta horren bidez, lan horiekiko duten "haserre" ezagutarazi nahi dute.

LENIZ
ESKORIATZA

SUZUKI

**Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa,
inyektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa**

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 40 10 Posta-e: rleniz@euskalnet.net

Babes politiko eta sindikal zabalarekin egingo du aurrera Kutxa Bank-ek egubakoitzean

Kutxa bakarrik falta da batzar orokorra egiteko, eta hilaren 23an izango da

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bildurekin lortutako akordioa Kutxaren, Vitalen eta BBKren administrazio kontseiluek onartu eta gero, eta egubakoitzean Vitalen eta BBKren batzar nagusiek proiektuari baiezkota eman eta gero, bakarrik Kutxa falta da berresteko, hilaren 23an.

Bilduren esanetan, "ateak itxi" zaizkie pribatizazioari -kutxen jabegoa zeharo babestu da, kanpoko kapitalik sar ez dadin-, eta,

DATUA

82

BAIEZKO BOTO

Kutxaren batzar orokorreko 100 boto-emaileetatik 82ren baiezkota botoa ziurtatuta dago. Egubakoitzean da batzarra.

bestetik gizarte ekintzak "denbora mugagabeen" jarrarituko dela bermatuta geratu da. Kontzeptu horretarako Kutxa Banken etekinaren %30 erabiliko da.

Kutxaren batzar nagusiaren baiezkota ziurtatuta dago: 100 ordezkari dira botoa emateko, eta 82ren baiezkota konprometitu dago. Proiektuak kutxetako langileen gehiengoaren, Bilduren, EAJren, PSE-EEren eta PPren oniritzia dauka.

IKUSPUNTUA

MIKEL IRIZAR

'goiena.net/blogak/piperrautsa'



Adostasunari gorazarre

Finantza-sistema espainiarra hankaz gora jarri dute azken bi urteotan. Espainiar bankuak eta munduko merkatuak bat etorri dira kutxen eredia suntsitzeko interesean eta gobernua irmo gauzatu du haien agindua.

Ekosistema eraldatua ezinezkoa da finantza-jardueran lehiatzea kutxa egiturekin. Agian 2008ko bategitea gauzatu izan balitz, kutxa hark irauteko aukera izango zukeen. Oraingo egoeran ez zen posible gaintzea aldi berean lege araudien oztipoak eta kontsentsu politikorik eza.

Eta aukeratu da bide posible bakarra: ekosistemak lehenesten duen tresna (bankua) baliatu finantza-jarduerarako, jabetza eta kontrola kutxen eskutan mantenduz, gizarte ekintzari eusteko helburuarekin.

Bildurekin lotu den akordioan bermeak sendotu egin omen dira. Dokumentuen faltan, ezin jakin zenbatekoa izan den eragin hori, baina norabidea gizarte nahiarekin bat datorrenez, izan bedi ongi etorria.

Gainera akordioak badu beste balio erantsi handi bat: adostasuna bera. Oso gauza gutxitan jartzen dira ados gure lau alderdi politiko nagusiak eta, kutxen inguruko katramilak gogoratuta, ezinezkoa lortu da oraingoan. Are gehiago hiru kutxetako gehiengo sindikala ere Kutxa Bank-en alde jarri denean.

Seguruenik ez da inork amestutako egitasmoa, eta baditu arriskuak. Baina hain zuzen herritarren, bezeroon eta langileen artean kontrolatuko dugu bankua. Gure inplikazioa erakunde berriarekin, hori da arriskuak sahiesteko bermetik sendoena, paperetatik haratago.

"Ados jarri dira gure lau alderdi politiko nagusiak: ezinezkoa lortu da oraingoan"

ADRIAN ZELAIA | EKAI CENTERREKO PRESIDENTEA

"Badirudi jabetza osoa kutxek izango dutela, eta hori oso garrantzitsua da"

Ekai Center ikertegiko Adrian Zelaia-ren esanetan, "hemengo ekonomia izan behar da bankuaren helburua".

Ekai Centerren zergatik, eta zelan landu duzue bankarizazioa?

Martxoan jakin genuen kutxen bategitea bankarizazio prozesua bihurtu zela. Horren atzean dagoen proiektuak dituen ondorioak gure herriarendako ikaragarriak dira. Bategitea baino askoz garrantzitsuagoa da funtzioen, helburuen eta jabetzaren aldaketa.

Izan ere, gizartearen eta finantzen arteko harremanerako ezinbesteko tresna dira aurrezki kutxak eta kreditu kooperatibak. Egoera oso desberdinean egon gaitzeko, herri gisa, bankuaren jabetza publikoa edo pribatua baldin bada.



LEIRE KORTABARRIA

Ze iritzi duzu Bilduk eta Kutxak egin duten akordioaz?

Nabardurak jakingo dira administrazio kontseiluek erabakia hartzen dutenean. Dena dela, badirudi jabetza %100ean aurrezki kutxen esku geratuko dela, eta hori oso garrantzitsua da. Hori izan daiteke lehen uneko balorazio garrantzitsua.

Entzun izan dugu "banku handi bat" nahi dela, baina handikeria larriaz jokatu du bankak azken hamarkadan. Nire iritzi, garrantzitsuagoa da banku on bat egitea. Bankuak aprobetxa dezake kanpoan eragiteko, beste kutxa batzuk erosteko... baina ezin du bere helburua inoiz ahaztu, eta hori da egitura soziala indartzea. Bere

estrategiak helburu horrekin bat egin behar du. Bankuko exekutiboek mentalitate hori izan behar dute: benetako ekonomia -langileak, familiak, hemengo enpresak- izan behar dute helburu eta hemengo enpresetan bilatu behar dituzte aukera handienak.

Prestazio sozialak lana bilatzeari lotuta egongo dira

Diru-sarrerak Bermatzeko Legea aldatu egingo dute; Gizarte Politikarako foru saila ez dago ados

L.K. | ARRASATE

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legea aldatzeko hasierako akordio bat lortu dute PSE-EEk eta PPk. Aldaketaren ondorioz Lanbidek kudeatuko ditu prestazio horiek, eta enplegua bilatzeari lotuta joango dira.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) eskuratu nahi eta Euskadin erroldatuta hiru urte baino gutxiago daramatenek lana bilatzeko konpromisoa agertu beharko dute; hala, Estatuan gutxienez bost urteko lan-bizitzaren historia egiaztatu beharko dute. Onuradunak ez badira lanean ari edo ez badaude prestakuntza programetan, lan sozialetan jardun beharko dute.

Bestalde, inork ezin izango dio enplegu egoki bati uko egin, eta "are gutxiago DBEa jasotzen

ari bada", testuaren arabera. Prestazioa kenduko zaie lan-eskaintza egoki bati uko egiten dieten hartzaileei.

Soldata txikiak dituzten hainbat langileren kasuan, DBEa soldaten osagarri izaten da; kasu horietan, lan-kontratu bat aurkeztu beharko dute hori guztia egiaztatzeko. Zigorak ezarriko zaizkie lan-kontraturik sinatu gabe langileak kontratatzen dituzten enplegu-emailei.

Bertan behera gera dadin

Ander Rodriguez Gizarte Politikarako diputatuak lege-proiektuaren guztiz kontrako jarrera azaldu du, eta prozesu hori bertan behera gera dadin eskatu du. Bestetik, jendarteko zenbait taldek -Caritasek, adibidez- ere kritikatu egin dute egitasmoa.

Zergen diru-bilketaren gaineko txostenak, hilerio Interneten

Hemendik aurrera, zerga itunduen diru-bilketa metatuari buruzko txostena hilaren 13an, hilerio kaleratuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak Ogasunaren webgunean: www.gipuzkoa.net/ogasuna. Aldundiak ekonomia gorabeheretan interesa duten herritar guztien esku utzi nahi du informazio hori. Maiatzaren 31tik aurrerako txostenak hortxe daude.

Enpresek formazio laguntzak eska ditzakete Hobetuz-en

Lanbidek onartuta eta Hobetuz-ek kudeatuta, zabalik dago formazio laguntzak eskatzeko epea. EAEko enpresek eska ditzakete, formazio ekintza estrategikoak egiteko, formazio premiak aztertu eta antzemateko edo formazioa osatzeko. Argibideak, hemen: www.facebook.com/formabask.



Etxebizitza bat salgai. | IMANOL SORIANO

Aurtengo uztailean %42,5 etxebizitza gutxiago salerosi dira

L.K. | ARRASATE

Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian moteldu egin da etxebizitzaren merkatua. Uztaileko datuen arabera, hilabete horretan aktibitatea %42,5 txikitu zen 2010 eko uztailearekin alderatuta.

Gehienbat etxebizitza librearen merkatua geldotu zen: %48,19; babestutako etxebizitza, soilik %16,46. Bestalde, oso alde txikia dago urtean zehar etxe-

bizitza berriaren (%-44,62) eta erabilitakoaren (%-41,07) merkatuen bilakaeren artean.

1.065 operazio

Espainiako Estatistika Erakundearen (INE) datuak dira. INEren arabera, uztailean EAEn 1.065 salerosketa izan ziren: 791 etxebizitza libreenak eta 274 babestutakoak; eta 627 erabiltutakoak eta 438 berrienak.

Amaia Muñoa | ELA sindikatuko Idazkari nagusiaren ondokoa

"Planteatu den euskal kutxen bategitea txarra da, fusioak bankarizazioa dakarrelako"

- ▶ Krisiari aurre egiteko, beste neurri batzuk badaudela dio Muñoak, "pertsona" erdian jarriz
- ▶ "ELAren proiektua sinesgarria da, langileen eskubideak defenditzen ditugulako"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

ELA sindikatuko 100 urte bete ditu aurten. Osasuntsu bete ere: Hego Euskal Herriko sindikatu nagusia da, bai militantziari dagokionean eta baita ordezkaritza maila dauka. Autonomia Erkidegoan, %40,33koa da eta Nafarroan, %21eko.

ELA sindikatuko 100 urte dituzte ELAkoek mendeurreneko ospakizunak. Amaia Muñoa sindikatuko Idazkari nagusiaren ondokoarekin dihardugu sindikatuaz, sindikalgintzaz eta gaur egungo egoeraz.

ELA sindikatuko 100 urte dituzte. Zer moduz ospakizunak? Ondo. Urte osoa hartu dugu ospakizunetarako eta, esaterako, formazioarekin lotu ditugu ospakizunak, nazioarte mailako mintegia antolatuz eta abar. Edoze-lan ere, ekainaren 11n egin genuen ekitaldi nagusia. 100 urtez langileen antolakunde bat jardunean egotea oso garrantzitsua da eta hori militanteen lanagatik izan da. Militantearen figura omendu genuen egun horretan.

Beste 100 urte betetzeko prest? Bai, jakina. Beste 100 urte betetzeko eta erronka berriei eusteko prest gaude eta, hala, gure printzipioen berreste kolektiboa egiteko erabili ditugu ospakizunak.

Beharrezkoak izango dira sindikatuko 100 urte barru?

Langileen interesen aurrean beste batzuk jarriko diren heinean, klaseko sindikatuko beharrezkoak izango dira.

Eta zelakoa izan daiteke ELA ehun urte barru?

Aurrera begira ze erronka ditugun aztertzeak hausnarketa lana egin beharra dago etengabe. Mendeurrena dela-eta, ELAren nazio batzordeak ebazpen bat aurkeztu zuen, non klase izaera berresten zuen, eta, era berean, aurrera begirako erronkak ere azpimarratzen baitziren. Argi daukagu, etorkizunean ere, langileen ondoan egon behar gara, militantzia kontzeptua landu beharra dugula eta, bestalde, hainbat arlotan sindikatuko beste erakunde sozial batzuekin egin beharreko lana sakondu egin behar dela, harremanak estutuz.

Zenbat afiliatu zarete ELA?

110.000. %40 emakumeak gara, hau da, 45.000 inguru. Debarro osoan, 6.500 militante ditugu eta, Debagoiengan, 3.500. Ordezkaritza maila dauka Euskal Herri osoan.

Hego Euskal Herriko sindikatu nagusia da ELA.

Hala da. Bai afiliazioari dago-

kionean eta baita ordezkaritzari dagokionean ere. Azken hauteskunde sindikalen arabera, ELA %36ko ordezkaritza maila dauka. Autonomia Erkidegoan, %40,33koa da eta Nafarroan, %21eko.

Gazte jendea hurbiltzen zaizue?

Hurbil sentitzen badute, bai, gerturatzen dira. Horretarako, sindikatuak ahalegina egin behar du jakiteko zein den gazte jendearen egoera, zeintzuk diren haien arazoak lan munduan... Lan sindikalaren erdigunean jarri du ELA prekarotasunaren kontrako borroka eta, horrek, ekarri du gazteak hurbiltzea sindikatura, bai afiliatzeko eta baita konpromisoak hartzeko ere.

Non dago ELAren indarra?

Parametro ezberdinak daude hori neurtzeko, baina esango nuke ELAren indarra bere proiektuan dagoela. Helburu sinple bezain zaila: langileen interesak defendatu eta hori lortzeko lan egin, dinamika sozialak eta sindikalak garatuz, etengabeko hausnarketa eginez eta bitartekoak jarriz dinamika egokien zerbitzura. Horrek ematen dio proiektuari sinesgarritasuna eta horrek ekartzen du afiliazioa eta militantzia.

Txiki Muñozi, zuen idazkari nagusiari, entzun diogu esaten aldarrikapenezko sindikatu bat ezin dela eutsi aurrekontu eta baliabide propio barik...

Langileen interesak defendatzen ditugu eta hausnarketa propioa egiten dugu eta, ondorioz, erabaki askeak hartzen ditugu. Hori lortzeko, independentzia finantzarioa beharrezkoa da. Hau da, kuotez bizitzea ezinbestekoa da. Beste aukera batzuk badaude. ELAren horixe da.

Zelakoa da gainerako sindikatuekin duzuen harremana?

Langileen defentsarako erronkak eta helburuak zailak dira eta indar guztiak gutxi dira. Helburuak konpartitzen ditugun heinean, harremanak landu eta sortu egin behar dira. Zentzu horretan, euskal gehiengo sindikalak azkeneko urteotan egin duen ibilbidea oso positiboki baloratzen dugu.

Gizarte ongizatea krisian dago?

Bai, baina nabardurak baditu horrek. Izan ere, ardurak banatu egin behar baitira. Ongizatea ez dago berez krisian. Ongizate zerbitzua krisian jarri dute erabakiak hartu dituztenek, hori gerta zedin. Politikak erabakitzekoan, ez da jarri pertsona



Amaia Muñoa martitzenean Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

"Gizarte ongizatea krisian jarri dute erabakiak hartu dituztenek"

"Euskal gehiengo sindikalaren ibilbidea positiboki baloratzen dugu"

"Zerga politika aldatu egin behar da eta fiskaltasunaren inguruan eztabaidatu"

abiapuntu moduan, eta guztiz kontrakoa egin da, kapitalaren interesak abiapuntuan jarriz. Gainera, oso era gordinean, hau da, gehiengoaren aurka. Horrek ekarri du Gizarte ongizatearen krisia.

Kutxen bategitea gertuago dago Bilduk ere argi berdea eman ostean.

Bai, eta gure balorazioa txarra da, fusioak bankarizazioa dakarrelako. Finantza sektore publiko indartsuaren aldeko jarrera dugu guk. Horrek ematen dituen aukerekin maileguendako, bai partikularrendako eta baita enpresendako ere; eta, gero, era berean, guretzako oso garrantzitsua da obra soziala bermatzea. Orain arte aurkeztu duten proiektuarekin ez da ahoi bermatzen. Beste ertz bat badauka honek: langileen baldintzak. Zela gertatu diren horiek eta, bestalde, non negoziatuko diren baldintza horiek, ze negoziazio kolektiboa

euskal esparruan egin behar dela uste baitugu. Orain arte horri muzin egin die kutxen zuzendaritzek.

Zela baloratzen duzu Espainiako Kongresua Konstituzioa erreformatzeko hartutako erabakia?

Oso larria da eta salatu egiten dugu. Demokraziaren ikuspegitik, erakusten du ze demokrazia maila dagoen Espainian. Posible da Espainiako Konstituzioa aldatzea, abuztuan eta ezkutuan. Bestalde, euskal esparrutik eta autogobernuaren ikuspegitik begiratuta, Espainiako Konstituzioan muga jarriko zaizkie hemengo erakundeek egingo dituzten aurrekontuei, defizita ezarrita etorriko delako. Hirugarrenez, edukiaren aldetik ere, tamalgarria da, ze bakuen eskaera bati Konstituzio maila ematen zaio. Bermatzen zaio bankari beren diruak izan daitezela itzuliak. Bankuei makurtzea da hori.

Bada alternatibarik krisia gainditzeko?

Bai. Erreforma eta eskubideen murrizketa bakoitzaren aurrean, esaten digute: "Edo hau edo zuloa". Hori gezurra da. Gertatzen da gobernu eta partidu boteretsu gehienak ados daudela errezetetan. Zaila da alternatibaren mezua zabaltzea, baina egon badago.

Zein da irtenbidea, hortaz?

Arazoa langabezia bada, zertara eramango gaitu murrizketak egitea. Enplegurako planak egin eta dirua sartu, inbertitu, egin behar da. Horretarako, zerga politika aldatu egin behar da. Fiskaltasunaren inguruan eztabaidatu beharra dago.

Badirudi eztabaidaren erdigunean daudela zerga politikak orain. Zela ikusten duzu hori?

Duela bost urtetik hona, zerbait aldatu da: orain, zerga politiken gainean eztabaidatzen da. Hori aurrerapausoa da. Halere, esan beharra dago, esaterako, Ameriketako Estatu Batuetan eztabaida eman den moduan, hona oraindik hori ez dela heldu. Ondarearen gaineko zerga aipatzen da, lehendakariak zerbait aipatzen du..., baina ez benetako eztabaida. Europa Batasuneko herrialdeen batez besteko presio fiskala hemen aplikatuko balitz, 8.000 milioi euro gehiago jasoko litzateke. Hori da eztabaida eta ez Ondarearen gaineko zerga eta Gema Zabaletak aurkeztu dituen neurriak, etorkinei-eta banatzen zaizkien laguntzak hutsaren hurrengo direlako, datu osoak eskuartean hartuta.

ZABALIK

JUAN MARTIN ELEXPURU
http://goiena.net/iritzia/



Zein urrun dagoen Zuberoa

datzi hau Bergarako Monzon pastoralara emon baino lehenago egindakua da. Txalo bat antolatzaileei, idea bikaina, nahiz eta lan asko egin bihar. Dana ondo joango ahal zan. Larrainen egon ginanok zoratuta urten giñuan ikuskizunakin eta hemen be beste hainbeste pasauko zan, seguru.

Aspaldian Euskal Herriko zazpi probintzien izenak eta hiri-buruak ikasten dira eskolan, aduanak eta kontrolak kendu dira mugan, danok euroa daukagu diru, baina ez dirudi orain dala hogetabost urte baino gertuago dagonik Iparraldia eta batez be Zuberoa. Orain dala 20-25 urte hemengo familia dezente joaten zan Zuberoara opor-egun batzuk pasatzera, Eroski Bidaiak-ek be eskaintzen zittuan etxe txukun askuak Atarratze aldiari. Maskarada eta Pastoraletara hegoaldeko autobus dezente ailegaten zan, eta uste giñuan Europa barriarekin eta euskalduntasuna normaltziakin distantziak desegin eta hanguko eta hemengo alkar ezagutuko giñuala.

Baiña ustiak ustel, eta atzera egin dogu. Zuberoara baino nahixago dogu Cadiz-era edo Cancun-era joan, ingelesa hobeto ulertzen dogu zuberera baino, maskaradetako dantzak baino etxeak jakuz flamenkua edo salsa; eta hau dana abertzale eta euskaltzale sutsuak izatiari itxi barik.

Zergatik dago gero eta urrinago Iparraldia, eta batez be Zuberoa? Arrazoiak asko izan leizke, baina bada bat Jean Louis Davant euskaltzain zuberotarrak asko azpimarratzen dabena: lehen hegoaldeko eskoletan frantsesa erakusten zan, eta jentia gutxi-asko defenditzen zan hizkuntza horretan. Orain ingelesaren monokultibo nagusitu da eta belaunaldi barriak muga pasau orduko deseroso sentitzen dira, euskeraz jakin arren.

Ez dakit. Iparraldia eta Zuberoa ezagutzen ez dabena ez daki zer galtzen dabena. Eta geu hara ez goiazenez, Larraineko herria etorri da Bergarara, zuztarrak erdi aroan dauzkan ikuskizun berezi eta eder batekin gure begi-belarriak gozatzera.

USTEAK USTE

JULEN IRIONDO | jiriondo@goiena.com

Orain, manifestazio eskubidea!

Guardia Zibilek Oñatin egitekoa ei duten protestaren albistearen harira, aurrena entzundako horrek eragindako inpaktuegatik, bigarren maila baten geratu den zera bat aipatu nahi nuke. Protesta laster egingo ei dute, datorren hilaren hasieran, PPK eta PSOEk adostu duten eta aurrerantzean manifestazioak egitea galaraziko dien legea indarrean sartu aurretik. Eta horren kontra ere egingo ei dute protesta. Gustura jakingo nuke ea bizi ei duten egoera horrek inongo barne-gatazkarik sortu ote dion euretako bakarrari: batzuen fundamentu eskaseko irizpideetan oinarritutako debekuak betearaziz hamaika manifestazio kolpeka eragotzi izan dituztenak –hauek edo beste politziak-, manifestazio eskubide eske.

KALE INKESTA

Tabernek ordubete beranduago itxiko dute asteburuan. Pozik?



MARI CARMEN SEBASTIAN
ARRASATE

"Oso ondo iruditzen zait. Agian tabernen ondoan bizi diren bizilagunak ez dira pozik egongo, baina herria girotzeko oso erabaki ona dela uste dut".



GONZALO BERGANZO
ARRASATE

"Bai, ideia ona da. Orain ez naiz asko irteten, baina tabernetan gauez ibili izan naiz, eta ez dut uste horrenbesteko denik. Errespetuan dago gakoa".



MARTA ARANGUREN
EIBAR

"Ondo dago niretako, zarata neurriak errespetatzen diren bitartean. Orain arteko ordutegiarekin batzuetan motz geratzen zen gaua".



XABIER BARBERENA
ARRASATE

"Gazteek eskatzen dutena baldin bada, ondo dago. Ona da gauez ibiltzen direnak herrian gera daitezen. Ni, dena dela, ez naiz irten behar."

HANDIK ETA HEMENDIK

CO2zko errezela

Unai Brea

http://argia.com/erredakzio-mahaia/

ESAK, Europako Espazio Agentziak, informazio kezkarria helarazi digu: Artikoko izotz kopurua minimo historikora iritsi daiteke aurten, 2007an neurtutakoa gaindituz. [...] Eta zertan dabil espazio agentzia bat hain kontu "lurtarren" berri ematen, pentsatuko duzue. Bada, haienak dira izotzaren zabalera zehatz neurtzen dituzten sateliteak. Gauza batzuk askoz hobeto behatzen dira urrunetik...

[...] Zure hondartza kutuna bihar-etzi itsasoak estaltzeaz ez ez kezkatu oraingo, edo ez behintzat albiste honengatik: Artikoko ura izoztuta edo fase likidoan egoteak ez dio eragiten itsas-mailari. Hor, benetako arazoa da Antartikako edo Groenlandiako izotza, lehorraren gainean dagoena alegia, urtea eta ondorioz itsasoratzea.

ESAK zabalduko informazioarekin batera, gaitzaren jatorria zein den gogorazten duten adituen hitzak datoz. "Badirudi planetaren berokuntza antropogenikoaren beste adibide bat dugula honako hau",

dio batek; "gizakion erruz gertatzen ari ditun/k honelakoak", esan nahi du, baina hori ere bagenekien. Urtero 9.500 milioi tona erregai fosil erretzen ditugu sateliteetatik begiratuta hain ederra ematen duen mundu honetan, besteak beste zeruratzeoko energia kantitate izugarria behar duten sateliteak jaurtitzeari "esker", eta ondorioz 30.000 milioi tona CO2 igortzen ditugu atmosferara.

Ondorioetako bat da azken 30 urteetan –sateliteak zelatari ditugunetik alegia– bere azaleraren erdia galdu duela Artikoko izotz eremu minimoak, hau da, uda amaieran neurtzen denak.

Aurreko paragrafoko datuak, CO2 emisioei dagozkienak hain zuzen, Pedro Prietoren idatzi batetik hartu ditut. Elkarrizketa egin nionetik, klima aldaketa kontuak aditzen ditudanean ezin dut saihestu madrildar "apokaliptikoaz" gogoratzea. Prietok ez du ukatzen klima aldaketa dagoenik, ezta arazo larria denik, ezta, sikiera, CO2 emisioen ondorioa denik ere. Baina arazo larriagoak estaltzeko erabiltzen ari diren pantaila dela dio. Horren erakusle litzateke munduko erakundeek, ekologisten

aldarria berenganatuta, hain modu argian kezka agertu izana arazo honengatik, eta larriagoak diren beste zenbaitz izilik egotea. Horien artean, erregai fosilak agortzea; edo, haiek erretzen ditugunean, CO2a ez ezik, nitrogenoaren eta sufreakon konposatu kutsatzaileak igortzea eguratsera; edota, hondakinak erretzean, klorodun gasak, dioxina eta furano minbizi-eragileak... CO2aren aitzakiarekin, ez diogu erreparatzen, azken batean, jatorrizko gaitzari: gure bizimoduari. [...]

Elizak antzinako jai paganok bere santutegian txertatzean egin zuen bezala, halaxe jokatu du botereak, Prietoren iritzi, CO2 emisioak gutxitzeko helburuak bere eginez, nahiz eta gero, bete ere, ez diren adostu bezala betetzen. [...] "Zeharo harrigarria da ikustea nola munduko botere ekonomiko handiek bere egin duten klima aldaketaren kontrako borrokaren estrategia, eta aldi berean arazoaren jatorria, aski ezaguna –erregai fosilen errektuntza, euren bizimodu jasanezinaren oinarria– bere horretan mantentzen duten".

Prietokeriak dira, edo benetan estutasunak datozkigu?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Xabier Urtzelai
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com


ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



Eusko Jaurjaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Badakizulako plater bakoitzaren osagarririk onena dela. Pazientzia zure bizitzaren filosofia bihurtzen ikasi duzulako, Kibucen aurkituko dituzu zure estiloari modurik egokienean egokitzen zaizkion proposamenak, presarik gabe goza ditzazun zureekin. **Zuk egiten duzu Kibuc.**

ZU zara pazientezia



KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, **Azpeitia** Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta
eraberritze
integralak

KIBUC
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Inazio Lakuntza | EAJ-EA koalizioko alkatea Arrasaten (2003-2007)

- ▶ Lau urtez izan zen Arrasateko alkate; politikan ez du bestelako jardunik izan
- ▶ Garaia, Abaroa berria eta Olandixoko tunelaren proiektua bultzatu ditu, besteak beste
- ▶ Egun, INNOBASK berrikuntza agentzian dihardu lanean

"Herri honekiko neukan zor sentimenduagatik erabaki nuen politika munduan sartzea"

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Inazio Lakuntza tolosarra da, baina 1974a ezkerre Arrasaten bizi da. Beti hezkuntzari oso lotuta, eskola eta enpresa munduan ibili da lanean. Unibertsitateko lehen errektorea ere izan zen Lakuntza.

2003-2007 agintaldian Arrasateko alkate izan zinen; zelan gogoratzen dituzu urte haiek?

Lau urte egin nituen alkate moduan. Lehen hirurak oso pozgarriak izan ziren niretzako. Proiektu berriekin hasi ginen eta aurrera atera ziren, gainera. Azkenengo urtean, ordea, dena okertu egin zen. Politika estilo zikina sortu zen, bai EAJ-EA koalizio berriaren barruan eta baita oposizio alderdietan ere. Une hura izan zen niretzako gogorrena.

Zergatik hasi zinen politikan?

Tolosarra naiz, baina Arrasatera 1974. urtean etorri nintzen bizi izatera. 25 urte Eskola Politeknikoan eman nituen lanean denetarik egiten; batez ere, kudeaketan ibili nintzen. 15 urte eman nituen zuzendari lanetan. Herri honek aukerak eman dizkit gauza asko eta berriak bultzatzeko. Pozgarria izan zen herri txiki bati lotutako unibertsitate pribatuko lehen errektorea izatea. Herriarekin zorretan nengoela sentitzen nuen. Hala, unibertsitateatik irten nintzanean, Oñatin nengoela, Mone negozio eskola bultzatzen, politikan koalizio moduan sartzeko aukera eskaini zidaten. Baiezkia eman nuen, ilusioz, herriarekin nuen zor hori ordaintzeko modu egokia zela uste nuen-eta.

Orduan, EAJ-EA koalizioa; egun, EAk bestelako bide bat hartu du.

Ez dakit zenbat EA dauden momen-



Lakuntza, Garaiaiko eraikinaren aurrean. | MAIDER ARREGI



2007ko otsailean egindako osoko bilkura. | GOIENA.NET

tu honetan; orduan, bi sortu ziren, eta egun, ez dakit zenbat dauden. Betidanik ez naiz alderdiaren barruan egon eta ez dut jarraitzen. Nire ustez, ez dago hainbeste toki horrenbeste alderdi politikorendako. Pentsatzen dut koalizio moduan egoera politikoa pixkanaka bere zentzua hartzen joango dela.

Aurrera ateratako proiektuen artean zein azpimarratuko zenuke?

2003an gabezia handia zegoen etxebizitzaren esparruan eta gazteek etxebizitza izateko arazoak zituzten. Guk desblokeatu egin genuen egoera hura eta etxebizitza planak aurrera atera genituen. Etxebizitza babestuak, tasatuak eta libreak atera genituen eta modu askoko etxebizitzak egin genituen. Egia da etxe batzuk oraindik ez daudela beteta, baina etxebizitzaren egungo egoerak ere bete-betean eragina izan du. Bestalde, Garaia Berrikuntza Gunean ere parte hartu genuen udal moduan, eta kontseiluan izan nintzen. Abaroa berria ere azpimarratuko nuke, oso pozgarria

izan zen niretzako; baita auzoen mugikortasunari dagokionez jarritako igogailuak ere. Eta zer esanik ez Olandixoko tunela bultzatu izana. Ikusi besterik ez dago herri-tarrei ekarri dien onura.

Eta okerrena?

Etxebizitza planaren ondorioa izan zen okerrena. Oso gogorra izan zen salaketa jartzea eta erabili zuten politika estiloa. Bergarako epaitegiak kasua artxibatu zuten.

Zer eman dizu politikak?

Aukera eman dit proiektu berriak bultzatzeko eta jendearekin, herri-tarrekin lotura estua izateko. Alde batetik, oso pozgarria, baina politika nola zikintzen den penagarria da, edozer botatzea pertsona batzuei... dena zikintzen da horrela.

Egun, zertan zabilta?

LKSkok bazkide izaten jarraitzen dut, eszedentzian nago. Udaletik irtendakoan aukera izan nuen INNOBASK berrikuntza agentzian joateko. Bertan, Ekintzailatza Departamentuan dihardut. Enpresa berriekin lanean nabil. Lan polita benetan, hor ikusten da gure herria bizirik dagoela eta jendeak enpresa eta proiektu berriak bultzatzeko duen ekimena; oso pozgarria eta aberasgarria da.

Arantzarik geratu zaizu?

Jende batek nirekiko daukan jarrera. Baina dagoeneko orria pasa dut, eta kito. Orokorrean, garai hartan oso pil-pilean zeuden proiektuak komunikabideetan. Dinamika handia zegoen gauzak martxan jartzeko. Orain, kanpotik ikusita, hori pixka bat galdu egin dela ikusten dut.

"Politika estilo zikina sortu zen; penagarria da edozer botatzea"

"Dinamika handia zegoen; proiektuak komunikabideetan pil-pilean zeuden"

MAGAZINEA

GOIENA TELEBISTA | GOIENA MAGAZINEA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA, 19:45 | ARRITXU BARRUSOK AURKEZTUA



HERRIAK

LEINTZ GATZAGA

Gatzagainen egindako ur depositua urri hasierarako egongo da gertu

- ▶ Lanak azken fasean daude; urarekin bete eta frogak egiten dabilta azken egunotan
- ▶ Arlaban eta Goierri inguruko baserriek ur arazorik izan ez dezaten egin dute depositua

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gatzagainen egiten dabilta ur deposituaren lanak azken fasean sartuta daude. Urarekin bete eta frogak egiten dabilta hain zuzen egunotan. Diputazioak eman beharreko baimen baten zain dago lanak egiten dabilen Erga SL enpresa -aginte aldatuta-, baina lanok bide onetik doaz: "Horrelako lanetan beti egoten dira ezustekoak, adibidez urak doazen albotik iturburuaren kondukto zati bat apurtu da; diputazioaren aldatetarik baimen atzerapena...", dio Mikel Gonzalez alkate ardura duen zinegotziak. Hala ere, irail bukaera edo urri hasierarako depositua gertu egongo delakoan dago.

Ur arazorik ez izateko lana

Arlaban eta Goierri auzo inguruko baserriek ur arazorik izan ez dezaten egin dute depositua. Ur arazoa 2006an sortu zen autobideko lanen eraginez Lapikozuluetako iturburu lehortu zenean eta Arlaban inguruan ura murriztu, tartean Gaztainuzketan. Maroto basoko iturburura jo zuten orduan eta arazoari behin behineko irtenbidea eman. Orain deposituarekin etorkizunean ere arazorik ez izatea bermatuko dute.

Behin lan guztiak bukatuta koan bi guneetarako, Arlaban eta Goierri, lotura egin beharko dute ura hartzeko. "Gure asmoa epe ertainean lotura hori egitea da, horretarako baliabideak ditugunean", argitu du Gonzalezek.

Herria urez hornitzen duen depositutik - GI-3310 errepide alboan- igoko dute ura Gatzagainekora, ponpa bidez. Gainera, lanok aprobetxatuta ur zikinak batuko dituen hodi sarea egin dute.

Arlabango plana garatzeko

Depositua berriak ur arazoa konpontzeaz gain, Arlaban gaineko plan bereziari bultzada emango dio. Arlaban gainerako asmoak 2008ko maiatzean aurkeztu zizkieten Udal ordezkariak herritarrei, eta hurrengo agintaldikoek behin behinean onartu, 2009ko otsailean: "Proiektua badago. Horrek eragiten dietenekin egon ziren eta herritarrekin batzarrak ere egin zituzten. Orain Jaulari-



Arlaban inguruko eta Goierri auzoko baserrietan etorkizunean ur arazorik izan ez dezaten egindako depositu berria. | M.A.

tzarekin egin beharreko tramite baten zain dago, eta gero diputazioak onartu beharko du lurzoruaren lege berria dela-eta", dio Gonzalezek.

Arlaban gaineko plan berezia egitearen arazoa egun dagoen zerbitzu gunea etorkizunerako gertatzea izan da, plangintza baten bitartez. Hala, Deba Garaiko

Lurralde Antolakuntzarako Arauen plangintza berezian hainbat arau aldatuta proposatuta Arlaban gunea garatzeko tresnak ahalbidetuko ditu plan horrek.

"Gaur egun Arlabanen dauden jatetxeak, nekazaritza etxeak, mendi ibilbideak, karobiak... daukaten potentziala garatu eta kudeatzeko behar diren arauak finkatzea izango da lehenengo lana", dio Gonzalezek. Horregatik ura bermatu gura izan dute behar bezalako azpiegiturekin egokitu-ta; batetik, oraingo zerbitzu gune-tako beharrei erantzuteko, eta bestetik, gerora begira etorriko liritekeenak asetzeko.

Herriaren garapenerako lanari jarraitzeko asmoa du Udalak, zenbait aktibitate -Jakion kontserba enpresarena esaterako- garatuta. "Baldin eta aukerarik balego Arlaban gunean eduki dezake kokapena Jakionek eta antzeko beste aktibitate batzuk, nekazari munduan garatutakoek hain zuzen".

Hala ere Gonzalezek onartu du dagoeneko martxan daudenak finkatzen daukatela nahiko lan orain, eta "bitartean proiektu berriak erakartzeko bideak urratuko ditugu".

120 metro kubiko dituen depositua

Gatzagaingo ur depositu berriak 120 metro kubiko ditu, bi zati berdinetan banatuta. Herria urez hornitzen duen depositutik berriraino hodiak sartu dituzte, gero ponpa bidez bidaltzeko ura Gatzagaineraino. Lanok aprobetxatuta ur zikinak jasoko dituen hodi sarea ere egin dute.

Lanok Aldundiaren Landagipuzkoa 32 egitasmoari esker egin dituzte. Hala, diputazioak aurrekontuaren %73 jarri du; eta Udalaren ardura da gainerako %27.



Aldundiko eta Udaleko ordezkariak otsailean, lanei hasiera ematen. | M.A.



Nere Ibarra Herriko Danborjoleak konpainia zuzentzen, San Martin plazan. | E.A.



Haurren danborradan 300 bat neska-mutikok hartu zuten parte eta kaleak jendez beteta izan ziren ibilbide osoan zehar. Argazkia



San Martin, gurutzean. | E.A.



Txomingeroen bazkariko jolasak. | E.M.



Umeen danborrada. | JOSETXO ARANTZABAL



Gaztetxoak, txekorren aurrean. | J.A.



Jende dezente batu zen Banda entzuteko, egubakoitzean. | J.A.



Aurrekoetan baino jende gutxiago izan zen txom

BERGARA

Danbor hotsak eta euria protagonista jaien amaieran

Nagusien danborradan zazpi konpainia atera ziren egunean, San Martin bezperan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Kalean entzundako komentarioa: oraingo aste bukaeran baino, giro hobea izan zen San Martinen atarian, irailaren 9ko jai eguna eta zapatuko ohiko azoka lotu zituen hartan. Orduan ere eguraldia hobea izan zen eta jende

gehiago ibili zela esan dute batzuek eta besteek. Oraingo asteburuan, berriz, jaietako bukaera emateko, euria izan dugu zoritxarreko gonbidatua. Horrek izan du eragina bisitariak erakartzeko orduan. Baita herritarrek animatzeko ere. Jende gutxiago ibi-

li da, San Martin egunean bereziki. Egun horretan, haurren danborrada izan zen, zalantzarik gabe, ekitaldirik arrakastatsuen; 300 gaztetxo inguru atera ziren, kolorez beteriko danborradan. Nagusien danborrada ere indarra hartzen ari da urtetik urtera:

aurretik zazpi konpainia atera dira eta gaztetxekoa izan da nobedade nagusia. 75 lagun atera ziren gaztetxea ordezkatuz. Beteranoen badute erreleboa antza. Banderadunen artean, txinatar bat gainera aurtentz: Dragon Oriental jatetxeko Li Yun "Begoña" atera

zen San Joxepe erretiratuen elkar-tekoekin batera.

Kanpotarrak pastoralerako

Aipatutako danborradaz gain, Monzonen pastorala izan da ekitaldi izarretako bat. Seminarioko karpa erraldoian 2.000 ikusle inguru izan ziren zapatuan Iparaldetik ekarritako pastorala ikusteko. Ikuskizunera etorritako askok eguna luzatu zuten ondoren eta aurreko gauetan baino giro hobea izan zen herriko tabernetan, goizaldera arte.

Udaltzaingotik adierazitakoaren arabera, jai lasaiak izan dira aurtengoak eta ez da aparteko gertakaririk izan.



MAIALEN, MAIALEN ETA AMAIA

Txomingeroen bazkarian harrapatu genuen hirukotea; "aurreko zapatuan egon zen giro hobea, azoka egunean. Aurtengo herri bazkarian jende gutxiago egon gara, eguraldiagatik eta pastoralagatik ziurrenik". Bazkalostean jolasetan gustura asko jardun zuten hirurek.



AIMAR ETA ANDONI

Eibarko Ustekabe txarangakoak ditugu Aimar eta Andoni. 15 lagun etorri ziren zapatuan, giroa alaitzera. 11 urte egingo ditu Ustekabek aurtentz. Herriz herri ibili dira udan.



AITOR ETA ENAITZ

"Lehenbiziko urtetik etorri gara txomingeroen bazkarira. Monzonen pastorala ikusi eta gauean elkartean afalduko dugu. Gero, ikusi behar..."



AMAIA, MIREN ETA IRATI

Mozorrotuta joan ziren Amaia, Miren eta Irati. Eguraldi txarrari, aurpegi ona. Zortzi lagun batu ziren mahaiaren bueltan. "Entrantiak erosi ditugu eta gainon tzeokoa tabernetatik ekarri. Eguraldiak ez du lagundu baina parranda ederra egingo dugu gaur".



n, gaztetxo koadrila Bideberri inguruan. | J.A.




ingeroen bazkarian. | E.M.



Banderadunen artean, Li Yun "Begoña" txinatarra. | E.A.



Danborradan parte hartu zuen konpainietako bat, udaletxean. | E.A.



LA BANDA DEL PULPO

Entsalada eta oilaskoa, horixe izan zen goiko koadrilaren menua zapatuan. Tarta goxoa ere bazuten postreko. Amaiera gozoa emango zioten egunari baita. "Iaz baino jende gutxiago etorri da aurtan, baina giroa pizteko ondo dago herriko beste koadrila batzuekin elkartzea". Barreari ezin eutsita jardun zuten bazkal osteko jolasetan.

LEINTZ GATZAGA

Gernikako 94 dantzari txiki Oñatin

Euria Hego Euskal Herriko Haur Dantzarien Eguna zapuzten saiatu bazen ere, ez zuen lortu, eta Aramaioko taldeak baino ez zuen huts egin. 300 neska-mutiko inguru elkartu ziren Oñatin, eta horietako ia heren bat Gernikako Elai Alai taldekoak ziren. Goizeko jaialdia pilotalekuan egin behar izan zuten. Aitor Tatiegi alkate txikiaren agurrarekin hasi zen hori, eta aurrekuaren ondotik, nesken eta mutilen dantzaldiak izan ziren. Arratsaldean, ostera, alardea egin zuten kiroldegian.



JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

GATZAGA

Erretiratuek oparitxoak jaso zituzten

Leintz Gatzagako erretiratuek gustura jan zuten zapatuan Eusebio Villarrek gertatutako bazkaria. Erretiratuaren Eguna egin zuten egun horretan, eta ordu erdi lehenago hasi ziren heltzen Garro jauregian batutako 27 lagunak. Bazkaldu ostean, zaharrenendako erlojuak eta gainerakoendako masajeak ematen dituen gailuak banatu zituzten. Karta-jokoan ere egin zuten.



JOSETXO ARANTZABAL

ELGETA

Bizkaitik ibili ziren Vespak eta Lambrettak

Motor zaleek 26 Lambretta eta 25 Vespa batera ikusteko aukera izan zuten atzo Elgetan. Erakusketaren ostean, Elorriorantz abiatu ziren motorrak eta Bizkaitik barrena ibili ostean, Elgetara itzuli ziren Fermin Iribar gidari zutela. Jarraian, 65 lagun batu ziren Intxorta elkartearen bazkaltzen eta Gardokirekin dantza egiten.



Udaletzeko arkupetan egindako dastatzean, 12 sagardogileren eskaintza probatzeko aukera egon zen. | MIRIAN BITERI

ARAMAIO

Euskarak eta sagardoak bikote ezin hobe egiten dute; Aramaion batez ere

Igoa, Amilburu eta Abarrategi bertsolariek egin zuten txotx irekiera

MIRIAN BITERI | ARAMAIO

Euskarak bultzada ederra jaso zuen atzo Aramaion, Txirritola Egunari esker. Eguerdian hasi ziren ekimenak, Peru Abarrategi, Xabi Igoa eta Paula Amilburu bertsolarien bertsoekin. Jarraian, etxefuegoarekin batera, kupela zabaldu eta txotx egin zuten hirurek. Sagardogileen txanda iritsi zen orduan; aurtengo sagardo botilak zabaltzen hasi ziren, Aramaio nahiz inguruko herrietatik iritsitakoei sagardo eskaintzeko asmoz. Probatzeko eskaintza zabala zegoen han, Enrike Gardokik esandakoaren arabera, sagardogile bakoitzak bere "trukutxoak" ditu-eta, eta sagardo bakoitzak bere berezitasuna.

Tailerra, Sastiñan

Ondoan, Paulino Ibabe zegoen, usain gozoa zuten sagarrak zatitzen, zapaltzen eta neska-mutikoendako zukua gertatzen, helduek sagardoa dastatzen zuten bitartean. Talogileak buru-belarri zebiltzan batzuek zein besteendako txistorra taloa presatzen. Etxeko txikiak, bitartean, Sastiña barruan zeuden, zirkoarekin lotutako eskulanak egiten.




ENRIKE GARDOKI
SAGARDOGILEA

"Giro ona dago, eguraldi petrala irten bada ere. Dena dela, euskararen alde egin behar dugu, baita 12 sagardogileok ere".



MIRARI KORTA
HERRITARRA

"Ondo pasatzeko eguna da Txirritola eguna. Euskararen aldeko eguna da, eta sagardoa aitzakia da".



PAULINO IBABE
SAGARDOGILEA

"Makina batekin sagar zukua egiten gabiltza, bereziki etxeko txikiak begira. Erakustaldi polita, euskara eta zuku egunaren harira".



JUANITO ELEXPURU
HERRITARRA

"Ni aramaioarra naiz, eta andrea Garagartzakoa; urtero etortzeko ohitura dugu, goizean sagardoa eta pintxo gozoa jatera".



PAULA AMILBURU
BERTSOLARIA

"Bertso eskolan proposatu ziguten bertsoa botatzeko egunari hasiera emateko, eta baiezkoa eman nuen. Euskarak merezi du".



OÑATI

MIRIAN BITERI



ARETXABALETA

JOSETXO ARANTZABAL

Elkar Hezi ikastetxeko ikasle ohien topagunea

Egun dibertigarria pasa zuen zapatuan Elkar Hezi eta baita Santa Eskolastika eta La Milagrosa ikastetxeetako 200 ikasle ohiek. Eguerdian herriko kaleetatik ibili ostean, azokarantz abiatu ziren erroixar erara gertatutako patatak, biribilkia saltsan eta tarta jateko. Aurretik, baina, antolakuntzak emandako poltsatso berde bat hartu zuen bakoitzak; barruan askotariko txanoak, betaurrekoak, gorbatak edo antenak bezalako osagarriak zituzten, eta baita zenbaki bat. Guztiek zozketa baterako zela uste bazuten ere, bazkalostean jakin zuten dantzarako bikotekidea bilatzeko balio zuela horrek. Dantzas gain, karaokean ere ibili ziren ilunkerara arte.

Mojito gauak Urbaltz girotu zuen

Aretxabaletako Urbaltz Egunak ez zuen huts egin, eta mojito gauari eta Elvis Caino disko-jartzaileari esker, eguna nahi baino gehiago luzatu zen batzuek. Eguerdian, kalejira egin zuten Kuxkuxtu txarangarekin batera, eta jarraian, elkarterantz abiatu ziren; 80 Urbaltzeko lagun inguru elkartu ziren mahaiaren bueltan. Bazkalostean, festa giroan jarraitu zuten kaletik.

Gazte txokoak irekiko dituzte bihar, erdiguneko egoitza berriaren zain

Gaztegunea urriaren 14an irekiko dute, 12 eta 17 urte arteko asteburuko hutsunea betetzera dator

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hastear da ikasturtea *gaztetxokoeroendako*. Txatxilipurdik Udaleko Gazteria Sailaren laguntzaz kudeatzen dituen Musakola, Erguin eta San Andresko gazte txokoek bihar irekiko dituzte ateak. 12 eta 17 urte arteko gaztetxoek ikasturte berria ilusioz hasteko arrazoi berezia dute oraingoan, gainera: erdiguneko gaztegunea erabiltzeko aukera izango dute aurten. Urriaren 14an irekiko da egoitza berria.

Udalak azken Tokiko Gobernu batzarrean landu zuen gaia, eta Iraia Sola Gazteria zinegotziak egoitza zein egoeratan dagoen azal-

du digu: "Azken ukituak falta dira. Arotza mahaiak prestatzen dabil eta soinu ekipoa egokitzea falta da, besteak beste; azken erremateak hil honetan amaituko dira".

Gero, Solak emandako azalpen arabera, hilaren 30ean egin dute hitzordua gaztetxoekin batera egoitza altzariz janzten eta gunea antolatzen hasteko: "Egoitzak asteburutako hutsunea beteko du eta auzoetako gaztetxoak erdigunerara erakartzea da asmoa". Izan ere, asteburuetan bakarrik egongo da zabalik, egubakoitzetik domekara bitartean.

'Zuk proposatu, zuk antolatu'

Txatxilipurdik eta Udaleko Gazteria Sailak jakinarazi duteenez, asmoa da gaztetxoaren artean "jarrera aktiboa, dinamikoa eta parte hartzailea" sustatzea. Hala, *Zuk proposatu, zuk antolatu* izango da ikasturte berriko leloetako bat. Halaxe azaldu digu Lander Juaristi Txatxilipurdiko Gazte Saileko arduradunak: "Ekintzak gaztetxoaren beharren arabera antolatzen jarraituko dugu, jarrera aktiboa izan dezatela lortzea oso garrantzitsua da-eta guretako".

Erdigune egoitzan dinamika bera izango da: "Azken finean, gazte txokoetako filosofia egoitza berrira eramango dugu", dio Juaristik. Ikasturte hasierari begira ez dute ekintza berezirik antolatuko, zentro bakoitzak bere kabuz irekiko ditu ateak.

la 300.000 euroko kostua

Gaztegunea egiteko aurrekontua izan da 296.035 eurokoa. Udalak gastuei aurre egiteko Aldundiaren eta Jauralaritzaren dirulaguntzak jaso zituen. Lokal handia da, erabilgarriak diren 250 metro koadro izango ditu-eta.

Bi gune izango ditu: lehena, Topagunea izena jarri diotena, erabilera anitzetarako lekua izango da-formatu txikiko denetarikoko ikuskizunendako oholtza txiki bat dago, esaterako- eta gune aktiboa, berriz, ping-pong, mahai-futbol eta antzeko jolasendako egokitu dute.



Gaztetxoek egoitza berria bertatik bertara ezagutu zuten uztailean. | J.B.

Kontserbak nola egin ikasi, Bedoña Baturi esker

Hilaren 24an egingo da ikastaroa, eskola-etxean; gaur izango da izena emateko azken eguna

J.B. | ARRASATE

Aurten ere kontserbak egiteko ikastaroa egingo dute Bedoña Batu elkarteak. Saio bakarreko ikastaroa izango da, 10:00etatik 13:00etara. Irailaren 24an egingo dute, auzoko eskola-etxean. Ikastaroan parte hartu gura duenak 688 88 79 02 telefonora deitu beharko du.

Ikastaroan kontserbak egiteko hainbat teknika azalduko dituzte: lehortze eta deshidratatze teknikak, gazitze teknika, izozte teknika eta ontziratze teknika. Gainera, kontserba ezin daitezkeen elikagaiak eta jateko derrigorrez prozesatu behar

diren elikagaiak hizpide izango dituzte. Teoria eta praktika uztartuko dituzte: "Saiatuko gara alde teorikoa oso astuna ez izaten, alde praktikoari ere garrantzia eman nahi diogulako", dio Goiatz Zabala elkarteak kideak. Hala, fruta eta barazkien kontserba bana egingo dute, hau da, partaideak ez dira etxera esku hutsik itzuliko.

Sendabelarrak eta ogia

Urtea amaitu artean beste zenbait ikastaro antolatzeko asmoa dute. Esaterako, sendabelarren gainekoa edo ogia nola egiten den irakastea helburu duena.



laxko xaboiaren ikastaroa arrakastatsua izan zen. | BEDOÑA BATU KULTUR ELKARTEA

Merkataritza arloko profesionalendako jardunaldia bihar, Merkataritza Berdearen astearen barruan

Ibai-Arteren Merkataritza Berdearen astearen barruan merkataritza arloko profesionali zuzendutako jardunaldia egingo dute bihar Kultureteko Garibai gelan (20:15). Ibai-Arteko kide Arantxa Arantzabalen arabera, dendariei ingurumena zaintzeko argibideak emango zaizkie, kontsumoa murrizte aldera. Gainera, zapatuan, hilak 24, 100 erosketa-orgen -karro- zozketan sarituak izan diren bezeroak orgak jaso ahaliko dituzte, Seber Altube plazan egingo den ekitaldian, 13:15ean.

Etxean geratu da Monteko porrako bigarren saria

Arrasaten geratu da Monteko porraren bigarren saria, eta lehena eta hirugarrena, berriz, Laudiora joan dira. Beste errekor bat hautsi dute Espainiako Itzulian Xantini lagunartekoek: 702 apustu jaso dituzte eta aurten 21.000 euro baino gehiago banatu dituzte saritan. Datorren urtean apustuak ezingo dira internet bidez egin.





Spinning irakaslea, Musakolako kiroldegian klasea ematen. | EGOITEK

Pilates eta spinning, ate irekietan harrera onena izan duten ikastaroak

Gaur jarriko dira martxan lehorreko ekintzak; ur eremuko jarduerak urriaren 3an hasiko dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Joan den astean, martitzenetik eguenera, ate irekien jardunaldiak izan ziren Musakolako kiroldegian. Bada, Aukearekin batera jardunaldiok antolatzen dituen Egoitek enpresako Nuria Rodríguez arabera, "jende askotxo" ibili zen oro har: "Goizak nahiko lasai joan dira, arratsaldean etorri dira erabiltzaile gehienak".

Ikastaroei dagokienez, pilates eta spinning izan dira harrera onena izan duten ikastaroak:

"Pilates eta spinning nabarmendu behar dira baina body pump eta body balance jarduerak zer diren ezagutzera ere etorri da jendea", adierazi digu Rodríguezek. Gainera, barruko igerilekuak hilaren 12ean ireki zituztenez, hainbat erabiltzaile ur eremu jardueretara gerturatu ziren.

Adin guztietako jendea

Bestalde, adin guztiendako jendea egon da jardunaldietan: "Ikastaro batzuetan, pilatesen esaterako,

adin nagusikoak etorri dira gehienbat baina orokorrean adin guztietako jendea egon da". Doakoak izan diren ate irekien jardunaldien ostean, gaur bertan hasiko da ikasturtea kiroldegian. Lehorreko ekintzak izango dira gaur; eskaintza zabala da oso: nagusiendako gimnasia berezietatik hasi eta spinning edo body pump moduko intentsitate altuko ekintzetaraino. Gainera, kirola eta erlaxazioa uztartzen dituzten ekintzak ere ez dira faltako, hala nola, pilates, Tai Chi eta Yoga.

Urriaren 3an abiatuko dira ur eremuko ekintzak eta honakoak eskainiko dituzte: helduendako hastapen, hobekuntza eta estilo ezberdinetan oinarritutako igeriketa ikastaroak, haurrentako ikastaroak eta igeriketa egokitua. Haurdun daudenendako ikastaro bereziak ere antolatuta dira. Uretako gimnasiak -aquagym-, noski, ez du hutsik egingo.

Abesti berria Maritxu Kajoirendako, betikoa alde batera utzi barik

Aurten 35 urte beteko dituela-eta, egun jai nola bizi den islatu gura da kantuarekin

J.B. | ARRASATE

"Maritxu nora zoaz kantu herrikoia badago, Euskal Herri osoan ezaguna dena. Bada, aurten jaiak 35 urte betetzen dituzenez, arrasatearrok egun Maritxu Kajoi nola bizi dugun islatu gura genuen. Hau da oso jai herrikoia dela, arrasatearrok bereziki ulertzen duguna".

Adierazpenekin azaldu du Eneko Barberena Maritxu Kajoi komisiñoko kideak abesti berriaren sorrera: "Noski, betiko kantu herrikoia abesten jarraituko dugu". Kantu berria auzolanean sortu da. Komisiñoko Eneko Barberena, Jokin Labaien eta Iraitx Agirrek egin dituzte hitzak eta hitzok Never Surrender taldeak Dragoi Alde txarangakoe-

kin batera musikatu ditu. Kolaboraziorik, noski, ez da falta izan: Ines Osinaga (Gose), Arkaitz Biain (Anger), Ainara Kortabarría (Ain_1), Iñaki Gurrutxaga Harristi eta Amaia Arginzonizek, besteak beste, euren ekarpena egin dute.

Nobenaixuan, aurkezpena

"Betikoa baino kantu parrandazaleagoa da; pozik geratu gara, jaiari beste ekarpen bat da. %100 arrasatearra da, gainera. Oso esker onekoak gara abestian parte hartu duten guztiekin", dio Barberenak. Shot! estudioan grabatu dute. Herriarren artean ahalik eta gehien zabaltzeko, Nobenaixuan -hilak 30- aurkeztuko dute jendaurrean.



Never Surrender taldeak musikatu ditu komisiñoaren hitzak. | JULEN ELORTZA



JOKIN BEREZIARTUA

Hiru ludotekek eguenean hasi zuten ikasturte berria

Irailaren 15ean irekiko zituzten atea Usaetxe, Okendo eta Santamainako ludotekek. Irailaren 30era arte, 3 eta 12 urte bitarteko haurrak bazkide izan gabe ludotekan sartzeko aukera izango dute, ludotekak nolakoak diren ezagutu eta ekintza ezberdinez gozatzeko. Ateen irekiera egunean Okendoko ludotekako begiraleek adierazi zituztenez, ohi baino haur gutxiago ziren lehen egunean, eguraldi ona zela-eta.

Gripearen aurkako kanpaina gaur hasiko da zaharren egoitzetan

Arrasateko Lehen Mailako Atentzio taldeak jakinarazi duenez, 2011ko gripearen aurkako txertaketa kanpaina gaur, hilak 19, hasiko da. Hilaren 31ra arte luzatuko da.

Herriko zaharren egoitzetan emango dituzte txertoak. Ordubetez egongo dira egoitza ezberdinetan, 12:00etatik 13:00etara, hain zuzen. Ordu-tegiak azken orduan aldatu behar izan dituzte, irteera bategatik. Lehendabizi Musakolako egoitza pasako dira, irailaren 22an. Gainerako egoitzei dagokienez, honako egun hauetan pasako dira: Uribarriko egoitzara hilaren 23an, Santamainara 26an eta azkenik, hilaren 27an, egoitza handienetik pasako dira, hau da, San Andres auzoan dagoen Etxaluze eraikinetik. Etxean dauden ezinduek euren mediku edo erizainarekin harremanetan jarri beharko dira txertoa etxean jasotzeko.

Liburu elektronikoak irakurtzeko aukera udal bibliotekan

Irailaren 14a ezkerreko udal bibliotekak liburu elektronikoak kontsultatu eta irakurgailuak bertan mailegatzeko aukera ematen du.

Lau irakurgailu izango dira eta bakoitzak liburu elektronikoak epub formatuan eta audio-liburuak mp3 formatuan izango ditu. Egile eskubiderik gabeko idazlanak eskainiko dira, klasikoak orokorrean, eta hizkuntza ezberdinetan. Hiru baldintza hauek bete beharko dira: bibliotekako edo Sareko edozein bibliotekako bazkide izan beharko da, 16 urte beteta izan beharko ditu eta arau hauek irakurri eta onartzen dituela sinatu beharko du. Gainera, maileguaren iraupena bi ordukoa izango da gehienez eta irakurgailua galdu edo apurtzen bada, erabiltzailea behartuta dago marka eta ezaugarri bereko beste gailu batekin ordezkatzera.

Patxi Montero | Dantza irakaslea

"Dantza tradizionalaekin disfrutatzea da Herrixa dantzan saioaren asmoa"

- ▶ Patxi Monterok gidatuko du aurten, lehen aldiz, Udalak eskainiko duen dantzaldi ireki hori
- ▶ Urritik abendura, hileko bigarren domekan izango dira saioak, Zabalotegi aretoan

MIRIAN BITERI | BERGARA

Dantza zaleek eskaintza zabala dute hastear dagoen ikasturtean. Batetik, urritik ekainera bitartean egingo den urteroko Plazako dantzak izeneko ikastaroa izango da; bestetik, aurten, lehen aldiz, Herrixa dantzan antolatu dute. Azken horretako irakasle Patxi Monterok zabal ikastaroen gaineko berezitasunak ezagutzeko.

Berrikuntzekin dator aurtengo dantzen gaineko eskaintza...

Bai, hala da. Udalak antolatuta, Herrixa dantzan. Elgetako metodologia jarraituko dut Bergaran ere; hain justu ere, hilean behin zabalik dagoen dantzaldia. Urritik abendura, hileko bigarren domekan egingo dugu Zabalotegi aretoan: urriaren 9an, azaroaren 13an eta abenduaren 11n egingo dira. Proba moduan jarriko dugu mar txan, eta harrera ona baldin badu, jarraitzeko asmoa dugu.

Nori dago zuzenduta bereziki dantzaldi hori?

Dantzaldi irekia da; parte-hartzea zabalik dago. Helburua da dantza tradizionalen bidez disfrutatzea. Dantza tradizionala naturala da, prestakuntza berezirik ez duena, edozeinek egin dezakeena. Denez, dantzak izango dira saio horretan: soka, taldean eta bikotea egiten diren dantzak, eta baita bikoteak aldatzen doazen dantzak ere; bada, bereziki taldeko dantzak jorratuko ditugu. Saioak debalde dira eta interesa



Patxi Montero, eskolak ematen aurtengo udan. | JUSTO FONSECA

duenak Zabalotegira baino ez da joan behar.

Hileko bigarren domekan bai. Baina ze ordutan izango dira?

Elgeta eta Debagoieneko beste hainbat herrietako esperientzian

"Bi ordutegi izango du: bata, ume eta gurasoendako, eta helduentzat bestea"

oinarrirituta, ume asko egoten da dantzarako gertu, eta baita gurasoak ere. Niri asko gustatzen zait plaza batean adin guztietako herritarrek disfrutatzen ikustea. Gure dinamikak hori egiteko aukera ematen baldin badu ere, egia da adinaren arabera dantza bat edo beste gustuko dugula. Horregatik ordu bi jarri ditugu: 18:00etan, bereziki haur eta gurasoek elkarrekin egiteko dantzak; eta 19:00etik 20:30era, helduendako.

Zergatik domeka arratsaldean?
Aproposa iruditu zaigu domeka

arratsaldea nahiko momentu tontoa delako; asteburua amaitzean dago, eta hortaz, ezin dugu plan berezirik egin. Domeka goizean, osteran, agian, mendirako plana edo bazkariren bat eduki dezakegu.

"Plazako dantzan ikastaroaren saioak martitzenetan izango dira"

Bestalde, Jardun euskara elkartearen bidez, Plazako dantzak ikastaroa ere eskaintzen duzu, ezta?

Bai, urritik ekainera. Hirugarren ikasturtea izango da hastear dagoena. Hastapeneko ikastaroak egiten zituzten lehen; ni sartu nintzenean ere hastapeneko eskolak ematen hasi nintzen, baina dantzari horiek jarraitzea nahi zuten, eta trebetasun gehiago dutenendako saioak eskaintzen hasi ginen iaz.

Nik mailaka daukat antolatuta dantzen irakaskuntza; lau maila daukat. Joan den urtean bigarren eta aurten hirugarren maila eskainiko du.

Dagoeneko zabalik dago horretan izena emateko epea?

Bai, izena eman daiteke Jardun Euskara Elkarteak kultura etxean duen egoitzan, jardunkultura@topagunea.com e-postan zein 943 76 36 61 zenbakian. Ikastaroak martitzenetan izango dira Zabalotegiko gaztelekuetan. Eskolak hilaren 27an hasiko dira; lehen eta bigarren mailakoak 18:30ean; eta hirugarrenekoak, 20:00etan.

Nolakoak dira saio horiek?

Ordu eta erdiko errepertorioan 20 pieza inguru dantzatuko ditugu; askotariko piezak dira, bikote dantzak, bikote aldaketakoak, taldekoak, soka eta baita fandangoa eta arin-arina ere. Azken horren harira, jendeak garbi izan behar du Plazako dantzak ez dela bakarrik fandangoa eta arin-arina.

Urriaren 2ra arte bisita daiteke Telesforo Monzonen bizitzari buruzko erakusketa

Eguenean inauguratu zuten udaletxeko osoko bilkuren aretoan

M.B. | BERGARA

Telesforo Monzonen gaineko *TM3: Telesforo Monzon (1904-1981): Bergararra, Kultura gizona, Politikaria* erakusketa bisita daiteke urriaren 2ra arte udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Hil zela 30 urte betetzen direnean, bergarar ospetsu honen ibilbidea erakusten du egunean inauguratutako erakusketak. Hiru sekzio ditu horrek, pertsonaiaren aspektu desberdinak lantzen dituztenak: Telesforo Monzon bergararra, kultura gizona eta politikaria. Hortik erakusketaren izenburua. Besteak beste, bere ibilbide politikoarekin



Monzonen objektu originalak ikusi daitezke, besteak beste. | ARRITXU BARRUSO

eta produkzio literarioekin zerkusia duten idatzizko argibideak, jatorrizko ikonografia eta dokumentazioaren erreproduzioak eta hainbat objektu original ikusteko aukera dago.

Ordutegi zabala

Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez aurkeztuta dago erakusketa. Ordutegiari dagokionez, honako egun eta orduetan egongo da zabalik: astelehenetik egubakoitzera: 18:00etatik 21:00etara; zapatu, domeka eta jai egunetan: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketaren planteamendua, diseinu museografikoa eta edukiak Bergarako Udalak egin ditu eta Olaso Dorrea Fundazioaren laguntza izan du. Horren harira, udaletxeko osoko bilkuren aretoan ikusgai dagoen materialaren zati handiena fundazioak berak utzitakoa da.

Altosfen 'Caos y otras esperanzas' antzezlan, egubakoitzean

Venezuelatik iritsitako antzerkia emanaldia izango da egubakoitzean, hilak 23, Zabalotegi aretoan; hain justu ere, Altosf antzerki taldearen *Caos y otras esperanzas* izenekoak. Ana de Petrerren zuzendaritzapean, Juan Carlos eta Luz de Petre seme-alabak igoko dira agertoki gainera, 22:00etan. Lan esperimental aurkeztuko dute, Zabalotegira joango diren parte-hartzea bilatuz.

Ibilbide luzeko antzerki taldea da Altosf. 1976. urtean osatu zen, eta ordutik hona munduan zehar ibili da nazioarteko jaialdietan euren lanak antzeztan. Denera, 40 emanalditik gora egin ditu. Sarrerak 5 euro balio du.

Xabier Infante | Igeriketa monitorea

"Arrainen antzera egoten ikasiko dute metodologia berriarekin"

- ▶ Igeriketa ikastaroetan eta ur-ekintzatan sistema berria erabiliko dute
- ▶ Aldundiak Gipuzkoa osorako egin duen proposamena da

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Urriaren 17an hasiko dituzte igeriketa ikastaroak eta ur-ekintzak Zubiko kiroldegian. Hainbat berrikuntza dituzte aurten. Nagusia, 3-4 urtetik aurrerako umekin erabiliko duten metodologiari dagokion da. Xabier Infante igeriketa monitorea egin dugu berba metodologia berriaren gainean.

Zergatik erabaki duzue metodologia berria erabiltzea?

Gipuzkoako igeriketako berregituraketa prozesuaren barne txertatzen den proiektua da. Gipuzkoako Igeriketa Federazioak eta Aldundiak bultzatzen dute. Hainbat herritan hasi dira lanean, esaterako, Bergaran, Ordizian, eta Tolosan. Helburua da igeriketa ikastaroak ematen ditugun toki guztietan metodologia bera ematea, ikuspuntu berberak erabiltzea eta haurren/pertsonen garapen psikomotorrari egokitzeko prozesua.

Zeintzuk dira metodologiaren ezauzgarri nagusienak?

Umeak adinaren arabera banatuko ditugu. Adina, igeriketa mailak egiteko erreferentzia bat da, baina ez nagusia. Mailak egiteko irizpide nagusia haurrak berak uretan duen abilezia maila da. Zubikoan lau maila eskainiko ditugu: zapaburuak, dordokak, amuarrainak eta balea. Maila bakoitzak hiru azpi-maila izango ditu (urra, zilarra, eta brontzea). Adin tarte bakoitzak landu eta menperatu beharreko edukiak ditu, eta horiek gainditzeko dituen pasako da hurrengo mailara edo azpi-mailara. Pausu hori egiteko hiru hilabete behar dira gutxienez. Hori horrela, 10 asteko ikastaroak prestatu ditugu, hiru hilekoak, gutxi gorabehera.



Xabier Infante, Zubikoako igerilekuan. | M.B.

"Biraketak, flotazioa, urpean igeri egitea... landuko ditugu"

go mailara edo azpi-mailara. Pausu hori egiteko hiru hilabete behar dira gutxienez. Hori horrela, 10 asteko ikastaroak prestatu ditugu, hiru hilekoak, gutxi gorabehera.

"Abileziak menderatu ondoren igeriketa estiloekin hasiko dira"

Zein da ardatz nagusia?
Haurren garapen erritmo pertsonala askoz hobeto errespetatzen du metodologia honek. Bestalde, urerarekiko egokitzapen positiboa lortu nahi dugu lehenik, ondoren

uretako abileziak landuko ditugu, eta azkenik teknikak. Hori horrela, progresioa naturalagoa da.

Ze ezberdintasun daude orain arteko igeriketa ikastaroen eta urrian abiaraziko duzuenaren artean?

Edukiak eta metodologia oso bestelakoak dira. Orain arte igeriketa arrunta lantzen genuen.

Metodologia berriarekin askoz kontzeptu gehiago landuko ditugu: biraketak, flotazioa, urpean igeri egin... Oro har, uretan nola egon behar den erakutsiko diegu lehen-lehenik. Uretan arrainak bezala egoten jakin behar dute, edozein ezustekori aurre egiten jakin behar dute.

Eta estiloak noizko?

Abileziak horiek guztiak menderatu ondoren, estiloekin hasiko gara. Baina pausu hori ematen dutenean estiloak askoz azkarago barneratuko dituzte.

Adinaren arabera, prozesua nola banatuko duzue?

3, 4 eta 5 urteko neska-mutikoei uretan nola egon behar duten erakutsiko diegu. Abilezia horiek menderatzen dituztenean, estiloekin lehen hartu-eman izaten dute. 8 urterekin crawl, bizkarra eta bularra eta tximeleta estiloaren lehen urratsak menderatu behar dituzte.

Bi metodologiaren arteko emaitzak ezberdinak dira?

Bai, oraingo sistemarekin askoz zehaztuago daudelako edukiak eta egin beharreko ekintzak. Ziur gaude emaitzak askoz hobekoak izango direla, nahiz eta akaso, motelagoak izan. Baina, emaitzak etorriko dira.

Defendatzen ikasteko saioa egingo du karate sailak emakumeendako

M.B. | OÑATI

Aloña Mendiko karate sailak emakumeendako ikastaro berezia antolatu du; hain justu ere, defentsa pertsonal ikastaroa. Urte osoko ikastaroa izango da eta urriaren 11n hasiko dute. Martitzenetan egingo dute 19:00etatik 20:30era, Zubikoa kiroldegiko gelan.

Ikastaroaren helburuak dira emakumeei zuzendutako defentsa pertsonalaren eremuan, alderdi psikologikoak nahiz praktikoak lantzea. Horretarako aditua den irakaslea izango dute: Josean Iñarra. Gerriko beltza eta hirugarren Dan-a dauka eta defentsa pertsonaleko instruktorea da.

Edozein emakumerendako

Ikastaroan parte hartzeko interesa dutenek izena eman dezakete dagoeneko. Talde mugatua denez, lehenbailehen izena ematea aholkatzen dute, Zubikoa kiroldegian. Azken eguna hilaren 26a da. Hilero ordaindu beharreko kuota 34 euro izango da.

Karate sailekoek emakume guztiak animatu gura dituzte. "Deialdia irekia da. Edozein emakumerendako. Ez da beharrezkoa arte martzialetan edo bestelako kiroleetan ezagutzarik izatea. Hutsetik hasi gura duten emakumeak ere behar ditugu", esan digu Karate saileko presidente Ricardo Arrizabalagak.

Eguzki plakak eskatzeko epea hilaren 30ean bukatuko da

M.B. | OÑATI

Udalak merkatu plazaren eta Zubikoa kiroldegian teilatuetan dauden eguzki plaken salmentarako deialdia egin zuen uztailen. Interesatuak hilaren 30era arteko epea dute euren eskaera egiteko. Horretarako edo informazioa eskatzeko udal bulegoetara joan daiteke edo www.oinati.net atarian begiratu. Guztira, 207 plaka daude bi toki horietan, eta bakoitza 800 eurotan salduko dute.

Gehienez zortzi plaka

Eguzki plaka horietako bat edo gehiago -gehienez zortzi- kontzesioan hartzeko aukera dute

herritarrek 25 urterako, eta han produzitzen den energiaren salmentatik etekina aterako dute.

Aldundiak webgune bat du informazioa zabaltzeko: www.gipuzkoafv.net. Eguzki plakak erosteko interesa dutenek simulazio bat egiteko aukera dute: erosi gura duten plakak zehaztu, norberak duen nomina ipini, eta orriak zuzenean kalkulatu du zenbateko etekina aterako dion eguzki plakari.

Gutxienezko inbertsioa 800 euro da, eta gehienezkoa 6.000 euro. Errentagarritasuna %8 ingurukoa izatea aurreikusten dute.

Pake Lekuko izenematea bukatzeaz

M.B. | OÑATI

Pake Leku elkartearen egingo dituzten ikastaroetan izena emateko epea gaur bertan bukatzen da. Interesatuak erretiratuen elkartetik pasa daitezke izena emateko edo informazioa eskatzeko.

Iazko ikastaroek izandako arrakasta ikusita, errepikatzea erabaki dute Pake Lekun. Egingo dituzten ikastaroak dira: dantzak, euskal dantzak, bitxigintza, orratz eta puntu lanak, euskara, solfeoa, senda-belarrak, heziketa pertsonala, informatika 0 eta 1 mailak, eta marraketa, akuarela eta pastel teknikak.

OHARRAK

ERAKUSKETA

Nabarralderen biltzarraren baitan Nafarroaren konkistaren gaineko erakusketa dago ikusgai kultura etxean hilaren 23ra arte, 18:00etatik 20:00etara arte.

ZINEMA

Resacon 2. Ahora en Tailandia pelikula ikusteko azken aukera dago, gaur, astelehena, 19:30ean.

HERRI EGUNA

Herri Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude Izarraitz, Arrano, Antton, Umeze eta Olakua tabernatan. 19 euroren truke eros daitezke. Zubikoa kiroldegiko kantxan egingo duten bazkariko menua izango da: patatak errioxar erara, arkumea txilindron erara, hostopil tarta piñarekin, kafea eta kopa.

HITZALDIA

Eguaztenean, hilaren 21ean, *Reinsercion social. Tarea de toda la comunidad* delako hitzaldia egingo du Jose Luis Gorrotategik kultura etxean, 18:30ean.

PLASTIKO BILKETA

Baserrietako plastikoak batu dituzte hilaren 27an. Plastiko zuria eta beltza batu dituzte, besteak beste. Oñatin lau lekutan utzi daitezke: Murgian Asentzio ermitaren ondoan, Zañartun Zuazolan, Olabarrietako autobus geltokian, eta ETEO atzealdean.

ZENBAKI SARITUAK

San Lorentzoko jaietako zenbaki sarituko dira: lehen saria 2.495 (ordezkoa 2.419), eta bigarren saria 2.111 (ordezkoa 1.044). Bihartik aurrera ordeko zenbakiak balioko dute. Bestalde, Urrexolako jaietako zenbakiak dira: lehena 2.973, bigarrena 1.378, hirugarrena 2.282 eta laugarrena 2.428.

ARETXABALETA

Martin zinegotziak hartuko ditu oraingo herritarrak

Maidar Azkorberen liberazioarekin arazoak egon dira, eta Ana Bolinagaren ordezkapenak airean dihardu

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Aretxabaleako Jose Luis Martin zinegotzia heren batean liberatzea erabaki zuen udalbatzak, eguen arratsaldean egindako osoko bilkuran. EAJ taldeko zinegotziak izan ezik, gainerako beste guztien babesa izan zuen Martin liberatzeko proposamenak. Ana Bolinaga alkateak nabarmendu zuen behin behineko erabakia dela, eta etzi, hilak 21, hasiko dela Martin herritarrak hartzen.

Jakina denez, irailaren 1etik alkatea ez dago ohiko ordutegian udaletxean. Irakasle oposaketak atera ditu, eta hortaz, praktikak egin dabil martxoaren 1era arte. Uztailetik dabilta egoera horri irtenbidea topatu nahian, eta egueneko osoko bilkuran proposamen zehatza erroteko asmoa zuen Udal Gobernuak: hain justu ere, Bolinagaren liberazioa indarrak gabe uztea eta haren orde, Maidar Azkorbe eta Jose Luis Martin zinegotziak liberatzea; lehena, %100ean eta bigarrena, heren batean. Bada, eguen goizean,



Eguenean egindako osoko bilkura. | MIRIAN BITERI

Azkorberi jakinarazi zioten "arazoak" tarteko liberatutzeko baimena ez ziotela ematen lanean.

Ahalik eta azkarren

Egoera horren aurrean, Martin liberatzea onartu zuten. Horren harira, honakoa esan zuen Bolinagak: "Nire ordezkapena aztertzen jarraitu behar dugu. Asmoa zen gai hori behin betiko lotzea,

herritarren beharrei ahalik eta era funtzionalean erantzuteko. Oraingo horrela moldatuko gara, baina ahalik eta azkarren konponduko dugu".

Bestalde, Ingurumen batzordearen ardura Lore Axperen eskuetan, eta Garapen Ekonomikoarena alkateak berak hartzea ere onartu zen eguenean, aho batez.

Gazteen proiektuak laguntzeko eskaerak egin daitezke azarora arte

M.B. | ARETXABALETA

Herriko gazteen proiektuak aurrera erroteko diru-laguntzen oinarriak onartu eta iragarri ditu Aretxabaleako Gazteria Zerbitzuak. Eskaerak azaroren 28 baino lehen aurkeztu behar dira Gazteria Zerbitzuan bertan. Aretxabaleako Udalak 600 euro bideratuko ditu deialdi horretara, eta bi diru laguntza emango dituela iragarri du, bakoitza 300 eurokoa.

Sormena

Deialdi horren helburua da gazteek zaletasun, sormen ekintza edo izaera horretako egitasmoak egin ahal izatea, dirua oztupo

izan barik. Horretarako, hainbat baldintza bete behar dituzte: 16 urtetik gora eta 20 urtetik behe-rakoa izatea, Aretxabalean errolatuta egotea eta bertan bizi izatea gutxienez azken bi urteotan; kirolaria den kasuan, kirol talde federatu bateko kide izatea; arte sormenarekin lotuta dagoen arloren bat jorratu nahi izanez gero, gaiarekin lotura duen gutxieneko titulazioa aurkeztea; eta kooperantea izanez gero, esku artean kanpora joateko egitasmoaren bat izatea. Abuztuaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dator deialdi horren gaineko informazio gehiago.

Ate irekiak egingo dituzte asteen ludotekan

M.B. | ARETXABALETA

Algara ludotekak ate irekiak egingo ditu eguaztenetik irailaren 30era bitartean. Twister jolas erraldoiarekin hasiko dira ekimenak, esan bezala, etzi, Iralabarri plazan, 17:00etatik 18:30ean.

Eguenean, osterara, mugikortasun zirkuitua egongo da kurtzebarri eskolako kantan, ordu berean. 3 eta 5 urte bitartean umeak motor eta patinetearekin ibiliko dira; Lehen Hezkuntzako neska-mutikoak bitartean, skate eta patinekin ibiliko dira jolasean.

ESKORIATZA

Antzerki tailerra eskainiko da urritik otsailera, hilero birritan

M.B. | ESKORIATZA

Antzezteak gustuko duten emakumeek Eskoriatzako Amuska emakumeen elkarteak antolatutako antzerki tailerrean eman dezakete izena. Hileko lehen eta azken zapatuetan izango dira eskolak, goizez; 11:00etatik 13:00etara. Urritik otsailera arte iraungo du tailerrak.

Amuskatik jakinarazi dute bi bide daudela horretan izena emateko. Alde batetik, eguaztenean eta eguenean, hilak 21 eta 22, herriko kultura etxera joanda, 18:30etik 19:30era bitartean. Bestetik, irailaren 22a baino lehen emakumeen elkarteak Euskadiko Kutxan duen kontu korrantean matrikula kopurua ordainduta. Azken horren harira, gogorarazi dute ordainagirian interesatuaren izena agertu beharko dela.

Bazkideek 30 euro

Prezioari dagokionez, Amuskatik azaldu dute elkarteak bazkideak direnek 30 euro ordain-

du beharko dituztela, eta gainerakoek, osterara, 45 euro. Horrekin batera, ohartarazi dute taldea osatzen ez bada, tailerra ez dela antolatuko.

Lau ikastaro

Bestalde, urteroko ohiko ikastaroak ere gertatu dituzte. Ehoziri-lanak eta bainikako eskolak astelehenean, 20:30etik 22:30era izango direla aipatu dute; olio-pintura, martitzenetan, 10:00etatik 12:00etara; patchwork, martitzenetan, 15:30etik 17:30era eta 18:00etatik 20:00etara; eta eskulanak, eguaztenean, 18:00etatik 20:00etara.

Ikastaro horiek ere urritik otsailera luzatuko dira, eta prezioa 35 eurokoa izango da bazkideendako, eta 50 eurokoa besteendako. Kasu honetan ere eguaztenean eta eguenean eman ahalgo da izena kultura etxean, 18:30etik 19:30era. Azkenik, Amuskatik ohartarazi nahi izan dute ez dela izena hartuko dirurik gabe.



MIRIAN BITERI

Skate taula konpontzen dabilta

Eskoriatzako tren geltoki zaharrean dagoen skate parkean mantenu lanak egiten dabilta. Aurten, U delakoa egoera txarrean zegoela-eta, Piorrails enpresari konpontzeko eskatu dio Udalak, eta horretan dabilta. Horretarako aurrentua 2.400 euro ingurukoa da. Ahalik eta azkarren gertu izatea espero dute Udalean, martxan jarri zenetik oso harrera ona izan duelako.

OHARRAK

ARETXABALETA

KIROL EN GAINEN BERBALDIA
Xabier Susperregi adituak *Ongizaterako ariketak* izeneko berbaldia eskainiko die erretiratuei bihar, hilak 20, Basotxon (17:30).

IKUS-ENTZUNEZKOA

Plastikoaren gehiegizko erabilerearen gaineko hausnarketa sustatu gura duen ikus-entzunezkoa eskainiko dute eguenean, hilaren

22an, Arkupe kultura etxean. 19:00etan hasiko da emanaldia.

MAKROKARTZELEN GAINEN BERBALDIA

Espetxe Pastoraltzak antolatuta makrokartzelen gainean jardutera etorriko da Mikel Goenaga, azken 20 urteotan Martuteneko espetxean boluntario lanetan dabilena. Eguenean izango da hori, hilak 22, parrokiako lokalatan (18:30).

ERRETIRATUEI OMENALDIA EGINGO DIETE HILAREN 23AN

Urtero legez, Udalak omenalditxo eskaini gura die erretiratuei egu-bakoitzean, hilak 23, eta merienda eta dantzaldia izango dituzte Basotxon (18:00). Eguraldi ona eginez gero kanpoan egin dute, eta mokadutxoak jan ostean, dantzaren egiteko aukera izango dute. Erretiratu guztiek dute bertaratzeko gonbidapena eta udal ordezkariak ere hurreratuko dira.

ESKORIATZA

ANTENA KOLEKTIBOAREN TASA ORDAINTZEA

Teleskoren 2011rako tasaren errolda jendaurrean egongo da Udaleko idazkaritzan gaurtik hasita, interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten hilabeteko epean. Aldi berean, Urriaren 13ra arte ordaindu ahal izango dira antena kolektiboaren tasak.



Hirusta
Jateetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



Bidaian joan diren 1950ean jaiotako aramaioarrak, Kroazian ateratako argazki batean. | BITTOR KORTABARRIA

ARAMAIO

Jaiotza urte bera aitzaki eta munduko txoko ezberdinak ezagutzea helburu

1950ean jaiotako aramaioar talde bat Kroazian izan da irail hasieran; hurrengo bidaia pentsatzen dabilta. Adin bereko besteei ere egingo diete gonbita

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

"Benetan merezi duela halako herriak bisitatzea, gu ederto ibili gara. Kroaziarrak oso zabalak eta atseginak dira eta oso gustura egon gara eurekin, eta baita eurak gurekin ere", dio Bittor Kortabarría aramaioarrak, 1950ean jaiotakoen azken bidaia antolatzen aritu denak. Abuztuaren 29an irten ziren Aramaiotik eta irailaren 5era arte, gurera bueltatu diren arte, Kroaziako hamaika txoko ezagutu dituzte. Besteak beste, Dubrovnik, Elaphiti uharteak, Montenegro eta Dalmacia.

15 lagunez osatutako taldea joan da Balkanetara, guztiak urte berean jaiotakoak, eta dagoeneko hasi dira pentsatzen hurrengo bidaia. Kortabarriaren arabera, gainera, adin bereko gainerako herritarrengana ere heldu gura

dute: "Beste behin zabalduko dugu deia adin bereko herritarren artean, batez ere kintoen bazkarrira urtero etortzen direnak".

Dubrovniken hasita

Kortabarriak kontatu digunez, lehen hiru egunetan Dubrovnik ezagutu zuten: "Leku zoragarria da, entzunda geneukan polita zela, baina han egon ostean are politagoa iruditu zaigu". Bertan ezagutu zituzten Elaphiti uharteak.

Dubrovnik utzi ostean Montenegro edo Mostarrera joateko aukera izan zuten eta beraz, taldea banandu egin zen. Mostar aukeratu zuen Kortabarriak eta honakoa azaldu digu: "Gerra amaitu zela urte batzuk pasa diren arren han zer gertatu zen erakusten duten adibideak badaude oraindik. Deigarria da ikustea

lehen lorategiak zirenak orain hilerriak direla". Dalmaciako kostaldea ere ezagutu zuten eta baita Split eta Trogir moduko herri txikiak ere. Bidaiarekin amaitzeko Plitvice-ko lakuak ezagutu zituzten —"zoragarria naturak egindako lan ederra"— eta azken bi gauak Rijeka hirian pasa zituzten. Pulan hartu zuten bueltarako hegazkina.

Urriaren 22an, bazkaria

Hilero diru kopuru bat jarriz ordaindu dute bidaia eta dagoeneko pentsatzen dabilta nora joan: "Seguruenik Europa aldera, baina ez dago ezer erabakita", dio Kortabarriak.

Urriaren 22an egingo dute hurrengo kinto bazkaria, Gantzagako elkartearen, eta bertaratu-takoei gonbita egingo diete hurrengo bidaira joateko.

ELGETA

Ingeleseko eskoletan izena emateko epea luzatu egin dute

Helduendako gaztelera eskolek, berriz, jarraipena izango dute taldea osatu da-eta

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Maala guraso elkarteak umeendako antolatzen dituen eskolaz kanpoko jardueren artean aurkitzen dira ingeleseko eskolak. Hasiera batean izenemateak aurreko ikasturtea amaitu aurretik egin behar baziren ere, azkenean epe hori irailaren 21era arte — bihar — luzatzea adostu dute. Epez kanpo bada ere, ikasturte hasiera honetan bost umeren gurasoek agertu dute umeak eskola horietan apuntatzeko interesa. Honek eragozpenak sortzen ditu eskolak antolatzeko orduan, baina epea luzatzea onartu du gurasoen elkartearen zuzendaritza batzordeak. Epe berria, hori bai, ez da gehiago luzatuko.

Gaztelera eskolak

Epe txikia eman dute aurten Helduen Heziketa Iraunkorreko — HHI-EPA-ko — ardura-dunek taldea osatzeko, baina gutxieneko kopurua bete da eta helduendako gaztelera eskolek jarraipena izango dute Elgetan. Aurreko ikasturteetan etorkinek agertu dute saio horietan parte hartzeko interes handiena.

Azken orduko aldaketarik ematen ez bada eskolak martitzenetan eta eguenetan emango dituzte, iaz moduan arratsalde eta kultura etxean. Bihar, martitzena, egingo dute lehenengo saioa. Interesatu gehiago balego udaletxeko gizarte laguntzaileak, Naiara Unamunok, kudeatzen du programa.



Eskola-umeak Herri eskola atarian. | LZ

LEINTZ GATZAGA

Mendiko orientazioaren gainerako saioak asteburuan

Gurel guraso elkarteak antolatu ditu, eta teoria eta praktika landuko dituzte adituen eskutik

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteak ikastaro batekin hasiko du ikasturtea: mendien gainerako orientazioa. Gaztetxoendako antolatu dute, 12 eta 14 urte arteko neska-mutikoendako, eta uda partean Pirinioetan lan egiten duten adituak etorriko dira erakustera. Aste bukaeran izango dira saioak, zapatu eta domeka, Garro jauregian, eta teoria eta praktika bateratuko dituzte. Hala, mendi ibilaldia egiteko asmoa dute iparrorratza eta GPSa erabiltza mendian zelan orientatu ikasteko.

Gehienez 10 lagun hartuko dituzte saio horietan, baina antolatzaileek ez dakite gaztetxo horiek joaterik izango duten ikastarora, izan ere, aste bukaeran futbol partiduak izango dituzte. Hortaz, lekua egonez

gero adin horretatik aurrerakoak ere onartuko dituztela jakinarazi dute.

Ludoteka urrian zabalik

Bestalde, Garro jauregian dauden ludoteka eta liburutegia urrian zabalduko ditu Gurelek. Aurreko ikasturtean legez bi orduz egongo da zabalik aste egunetan (17:00-19:00), eta 3 eta 10 urte arteko neska-mutikoek izango dute lekua bertan. "6 eta 7 urtekoak dira gehien datozenak, nagusiagoek nahiago dutelako kanpoan jolas egin, baina guztiendako dago zabalik", diote Gureleko kideek.

Begirale lanetan Garazi Orobengoak jarraituko du, herriko umeak ondo baino hobeto ezagutzen dituen, eta lan handia duela ikusiz gero beste lagun bat hartzeko gertu daude.

ANTZUOLA

Hastapeneko doako Pilates ikastaroak eskainiko ditu udal gimnasioak gaur hasi eta lau egunetan

Lau egunetan egongo dira doako saioak, astelehen eta eguaztenetan

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Pilates ezagutu nahi duten herritarrendako doako hastapen ikastaroak eskainiko ditu udal gimnasioak gaur hasita: irailaren 19an, 21ean, 26an eta 28an izango dira saioak. Guztiak 18:30ean hasiko dira.

Pilateseko oinarriko printzipioak eta ariketak erakutsiko dira. Ikasturte honetan, gainera,

Pilatesen berrikuntzak izango dira eta gimnasia abdominal hipopresiboak sartuko dira, eskaintza aberastu eta osatzeko.

Ez dago saioetarako aurrez izena eman beharrik, baina plaza ziurtatuta izan nahiez gero, ekintzan izena emateko orria egongo da gimnasioan bertan. Informazio gehiago duzue gim-

nasioan edo antzuelakogimnasioa@gmail.com helbidean.

Eskulan ikastaroa

Egun aldaketa egon da eskulan ikastaroan. Eguaztenetan eta eguenetan beharrean, astelehenan 18:00etatik 20:00etara eta eguenean 14:30etik 16:30era izango da ikastaroa. Udaletxean eman behar da izena.

DEBAGOIENA EZAGUTZEN



Bergarako San Martin Agirre plazaren argazki hau herriko idazle eta politikari ezagun baten omenez aurten inauguratutako plazatik aterata dago. Zein da plaza horren izena?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkoberebar

JAKION

www.jakion.es

Jakionek emandako
Produktu sorta*

* 50 eurotan baloratutako sorta.

PARTE HARTZEKO

Telefonoz: 943 25 05 05

e-postaz: kluba@goiena.com

SMS bidez. Bidali KLUBA ERANTZUNA


[bazkidearen zenbakia] 215800 zkra

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Oparitu Goiena Klubeko txartela.



Urtean 48 euro ordainduta askotariko abantailak izango dituzu

2011n atera etekina txartelari

LILURA
EDERTZE INSTITUTUA



LILURA EDERTZE INSTITUTUA

Bergara, 943 76 31 71

- -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

Bazkidearentzat eta lagunarentzat

ETA HAUETAN ERE BAI



goienakluba 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com
Urteko kuota: 48 €.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



KIROLA

AUTOMOBILISMOA

Angela Viñariñok irabazi zuen Aramaion egin zuen debutean

- ▶ Duela bi urte Angelak anaiarendako kopilotu lanak egin zituen Aramaion, Subaruaz orduan ere
- ▶ Tramu berriak pozik utzi zituen zaleak, pilotuak eta baita antolatzaile eta federazioko ordezkariak ere

XABIER URTZELAI | ARAMAIO

"Momentu batean airean geundela igarri dugu". Lasterketa amaitutakoan pilotu gehienek azpimarratu zuten tramu berrian zegoen sestra aldaketa (rasante aldaketa) ikusgarria, baita lehenengo txandan salto horretan larri ibili zen Angela Vilariño irabazleak ere: "Apu bat gurutzatu egin zait autoa eta kontuz ibiltzeko lekua zen, saltoa ez zelako garbia, errepeidea okertu egiten zen, eta alboetako batean harriak zeuden. Lehenengo txandan ezustean harrapatu nau saltoak, baina hurrengoetan ez arriskatzea erabaki dugu".

Vilariñok argitu moduan, lehenengo txandan salto egin zuenak bazuen zertaz damutu, gal-

tzeko asko eta irabazteko gutxi zegoelako han. Hori bai, saltoaren ostean zegoen zuzengunean jarritako ikusleak ez ziren kasualitatez hor jarri, ikusmina zegoen eta pilotuek tramo horri zelan egingo zioten aurre ikusteko.

DATUA

80

KILOMETRO ORDUKO

Tramu berriko saltoan Vilariñok onartu zuen gutxi-gorabehera 80 km ordura pasako zela. Auto txikiendako, ezinezkoa.

Debutean irabazle

Joan den urtean zaleek ezin izan zuten Angelak gidatutako Subaru WRCaz gozatu, salgai zutelako. Zapatuan, berriz, Aramaion korritutako estraineko lasterketan Vilariñok irabazi zuen. Beteranotasun handiko beste pilotu batzuen aurretik Angela zen faborito, eta turboak kale egin bazion ere, denboraldian garaipen gehien eskuratu dituen pilotuak aurreikuspenak bete zituen. Hori bai, txandaren batean gertu izan zuen Joxe Labaka (Mitsubishi EVO V), beste maila bateko autoaz noraino estutzeko gauza den erakutsita. Hirugarren txandan, berriz, Iker Gayoso (EVO IX) izan zen onena; ordurako erabat bustita zegoen errepeidea, baina hura ez



Angela Vilariño Subaru Impreza WRC autoaz, lasterketako bigarren txandan, Arexolako auzoan.

zen kikildu; Vilariñok, berriz, sailkapenean zuen abantaila ikusita hanka altza zuen.

Tramu berria, ederra

Tramu berriarekin asko irabazi du Aramaioko rallysprintak. Tarte azkarrak daude, baita kurba itxiak ere. Lehen Arriola auzoko baserriarrek etxeko leihotik jarrai zezaketen proba, eta orain baita Arexolakoek ere. Antolatzaileek adierazi ziguten bizilagunek ez dutela inongo arazorik jarri autoek baserrien hormatetik metro gutxira pasatzeko, eta lasterketak erakutsi zuen ez dagoela zertaz kezkatu, ondo babestuta zegoen dena. Aramaioko probak behar zuen berritasun bat, eta bete-betean asmatu dute.

SAILKAPENA

1. Angela Vilariño	15:59,3
2. Joxe Labaka	16:10,6
3. Iker Gayoso	16:12,9
4. Rafa Ateka	16:19,0
5. Roland Holke	16:20,0
6. Txus Jaio	16:26,2
7. Gorka Antxustegi	16:29,5
8. Xabart Arrate	17:11,9
9. Andoni Blas	17:19,1
10. Ruben Lapuente	17:22,5



AITOR ARNAIZ ETA JOANES URIA
PILOTU ETA KOPILOTUA (OÑATI)

Aitor Arnaizendako Aramaion korritzen zuen bigarren aldia zen, baina iaz bigarren txandan bertan behera utzi behar izan zuen proba: "Kopilotu lanetan hasi berria da Joanes, eta oraindik elkar ezagutzen gabiltza. Jendeak dirutza xahutzen du, baina gure aurrekontuaz proba amaitzea da helburua".



GORKA IDIGORAS ETA JOSEBA FRUTOS
PILOTUA ETA KOPILOTUA (ESKORIATZA)

Igoeratan pilotu lanetan ibiltzen dira biak, baina rallysprintetan Frutos kopiloto moduan dabil: "Oso gustura geratu gara. Saltoa ikusgarria izan da, hegan geundela igarri dugu une batean, eta ondoren sekulako txapa hotsa entzun dugu (barre). Tramu berria, oso ona".



INHAR AMENABAR ETA AGURTZANE ZUBIETA
PILOTUA ETA KOPILOTUA (ARAMAIO)

Zapore gaziaz amaitu zuten etxeko proba, motorra hautsi zutelako: "Kulata-juntura hautsi dugu. Pena ematen digu motorra konpondu berria geneukalako, eta honek esan nahi duelako denbora batez geldu egon beharko dugula. 30 lasterketatik gora egin dugu auto honekin, ezin gara kexatu".

FUTBOLA | Banako berdinketa denboraldiko lehen derbian | 24



uzoko baserri artean. | XABIER URTZELAI



Aitor Arnaiz eta Joanes Uria R5GT Turboaz. | X.U.



Inhar eta Agurtzane R5GT Turbo autoaz. | ARGAZKILARIAXXX



Angela Vilariño eta Alazne Apalantza podiamean. | X.U.



Eñaut Iturriaga, Arexolan. | X.U.



Orbegozoren M3a Arexolako eta Arriolako bidegurutzean. | X.U.



Xabat Arrateren Opel Corsa GSI autoa, tramu berriko saltoan. | XABIER URTZELAI

ANGELA VILARIÑO | IRABAZLEA

"Tramu berriak tarte oso azkarrak eta motelak tartekatzen ditu; ederra da"

Angela Vilariño da aurtengo ralliesprint probatan lasterketa gehien irabazi duen pilotua, baina zigor bat tarteko ez dago txapelketan lider. Eibarko lasterketa falta da denboraldia amaitzeko, eta Aramaion batutako puntuak bikain etorriko zaizkio.


Lasterketan debuta egin, eta irabazi, zorionak.

Eskerrik asko. Gustura geratu gara egindako probarekin, nahiz eta arazo mekaniko batzuk izan ditugun. Duela

bi urte anaiarekin etorri nintzen, orduan kopilotu lanak egitera. Ondo gogoan dut egun hura, Aramaion egin nuela, eta urduritasunez betetako eguna izan zen. Gaur lehenengoz korritu dut Aramaion.

Zelan bizi izan duzu lasterketa?

Ez da lasterketa erraza izan, arratsaldeko lehenengo orduan zorua lehor zegoelako, baina zona batzuk bustita zuedelako. Eta, ondoren euria hasi



Angela Vilariño. | X.U.

delako. Turboarekin arazoak genituela ikusita kentzea erabaki dugu, eta pena eman dit, turboak indar handia ematen digulako. Azken txandarako, berriz, errepidea oso zikin zegoen.

Zer moduzkoa iruditu zaizu tramu berria?

Oso polita. Egia da saltoa arriskutsu samarra dela. Lehenengo txandan komeni baino azkarrago pasa naiz hortik (barre) eta arazo batzuk izan ditut. Eta, egia da ondoren ere ez diodala tarte horri trukua hartu. Zati berri horrekin oso ondo geratu da lasterketa, tramu oso azkarrak geldoekin tartekatzen dituelako. Eta jaitsiera ere oso polita da.

Zelan doa denboraldia?

Oso ondo. Hondarribiko ralliesprinta irabazi genuen, baita San Migelekoa eta Fiteroako ere. Eta, orain Aramaion nagusitu gara. Txapelketako sailkapen orokorrean borroka estua dugu Labakarekin. Proba batean erretiratu egin ginen, eta beste batean pneumatikoen arazo batengatik probatik kanpo utzi

gintuzten. Kanporaketa horrengatik apelatu egin dugu, eta ikusteko dago zertan amaituko den kontua. Hala, oraindik txapelketa irabazteko aukeraren bat edo beste dugu, baina lortzen ez badugu ere gustura geratuko gara, proba gehien irabazi dugunak garela-ko.

"Txapelketa irabazteko borroka oso estua dugu Labakarekin"

laz izena eman zenu-ten proban, baina jendea Subaru ikus-teko gogoz zegoen.

laz irabazteko zegoen eman zuten lasterketan, baina autoa saltzeko asmotan

genbiltzan, eta horrengatik ez ginen etorri. Erosteke interesa erakutsi zuten batek, hiru lasterketeta egin zituen autoa alokatuta baina azkenean atzera egin zuen. Eta, guk Aramaiora etortzeko aukera galdu genuen.

OHOREZKO ERREGIONALA

Bergarak gehiegizko saria eraman zuen azken minutuan berdinduta

Aretxabaleta izan zen nagusi eta Iñigo Machoren gola 90. minutuan iritsi zen

EMAITZA

ARETXABALETA

1-1

BERGARA

FITXA TEKNIKOA

Aretxabaleta: Iker, Gorosabel, Igor, Julen, Kerman (Jonan, 84. min.), Mikel, Iker Sanchez (Aitor, 78. m.), Haritz, Oxel (Jokin, 72. m.), Guillen (Piru, 58. m.) eta Aitor (Ibai, 67. m.).

Bergara: Lopez, Arruti, Urrutia, Retes (Aboubi, 58 m.), Arakonaga, Ugarte (Perez, 88 m.), Eloy (Plazaola, 79 m.), Oregi, Macho, Fernandez eta Cabanillas (Ugalde, 70 m.).

Beste: Ohiko ikusleak Ibarren. Giro ona. Josu Cambeses epaile oñatiarrak txartel horia ateratzen zuten Gorosabeli, Juleni, Kermani, Cabanillasi eta Machori.

EDU MENDIBIL | ARETXABALETA

Bana amaitu zen atzoko derbia Ibarren. Garaipena eskuratzeko meritu handiagoak egin zituen etxeko taldeak eta ia-ia garaipena eskuan zutenean, 90. minutuan, Bergarak banakoa egin zuen



Hainbat zalek etxeko bigarren gola eskatu zuten jokaldi honetan. | JOSETXO ARANTZABAL

Machoren bidez. Gehiegizko saria Neka Galanen taldearendako, bergarrek apenas sortu zutelako arriskua partidu osoan zehar. Berdinketaren aurretik izan zuten beste gol aukera bakarra: Igorrek gol marran bertan urrundu zuen Ugarteren burukada.

Aurretik, UDA izan zen nagusi. Oxelek egin zuen etxeko gola, 49. minutuan, Lopezi baloia ondo gurutzatuta. Ibaik izan zuen

2-0koa egiteko aukerarik onena: atezainaren aurrean bakarrik gelditu, baina Lopezek aurrelariaren ezkerkada urruntzea lortu. Piruk ere izan zuen beste aukera on bat eta jokaldi eztabaidagarri bat ere izan zen, Eloyk bere atera urrundu eta atezainak marran bertan geratu zuenean. Ez zirudien gola. Berdinketarekin UDAkoak etsita eta Bergarakoak, pozik etxera.



UDAko Iker Sanchez Fernandez bergararra atzean utzi nahian. | JA



OHOREZKO ERREGIONALA

Lehen puntua Mondrarendako

Lehenbiziko partiduan Beran 1-0 galdu ondoren, Mondrak ligako lehen puntua lortu zuen zapatuan, Mojategin Trintxerperen aurka husna berdinduta. Jende dezente batu zen, zale gaztetxo ugari tartean. Hala ere, berdinketarekin konformatu behar izan ziren etxekoak. Golik egin gabe jarraitzen du Igor Rodriguezen taldeak. Hondarribiari bisita egingo diote zapatuan.

OHOREZKO ERREGIONALA

Ondarroako Aurrerak merezita eraman zituen hiru puntuak Azkoagainetik

0-3 aurreratu ziren bizkaitarrak eta Asier Ugartek egin zuen Aloñaren gola

E.M. | ARRASATE

Ondarroako Aurrerak partidu ona egin zuen atzo Azkoagainen eta merezita eskuratu zuen garaipena. Etxeko taldeak ezer gutxi egin ahal izan zuen bigarren zatian bizkaitarren erasoko jokaldien aurrean. Jaun eta jabe izan ziren Ondarroakoak atsedendariaren ondoren. 0-1ekoa 48. minutuan iritsi zen eta kontraerasoan beste bi gol egin zituzten. Partiduaren azken minutuetan etorri zen Aloñakoen gol bakarra: Asier Ugarte izan zen golegilea.

Liderrari bisita

Oraindik goiz izan arren, Andoni Azkargortaren taldeak orain arte jokatuak bi partiduetan galdu ditu. Bisita zaila izango dute asteburuan, Pasaia liderraren etxean jokatu baitute oñatiarrek.



Roberto Idigoras etxeko erasoko jokaldi baten, atzo. | JA

BORROKA LIBREA

Maidar Unda: "Espero ez baduzu ere, gerta daiteke lehenengoan kalean geratzea"

Lehenengo borrokaldian esan zion oletarrak agur Istanbulko Munduko Borroka Libreko Txapelketari

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Maidar Unda Munduko Borroka Libreko Txapelketatik kanpo geratu zen egubakoitz eguerdian jokatu zuen lehen kanporaketan, modalitate greko-erromatarrean. Aramaiokoak 72 kilo azpikoen kategorian hartu zuen esku, eta

epaileen partetik "erabaki eztabaidagarritz" osatutako saioan Cyntia Vescan frantziarrak lehiatik kanpo utzi zuen.

Norgehiagokaren ostean, pena handiz azaldu zen Unda: "Espero ez baduzu ere, gerta daiteke eta zoritxarrez, oraingoan niri toka-

tu zait, urtebetez lanean gogor ibili ostean. Epaileari astindu ederra emateko gogoia izan dut, baina hori ezin da egin".

Gogoratu beharra dago oletarrak lesio larria izan zuela urtarrilaren 7an entrenatzen ari zela: barruko lotailua, gurutzatua eta meniskoa hautsi zituen orduan, hain justu, *triada* deituriko lesioa. Otsailaren 10ean egin zioten ebakuntza eta normalean 7 hilabetez luzatzen den osaketa asko aurreratu du, Istanbulko hitzorduan izateko asmotan.

Olinpiar Jokoak buruan

Txapelketan kanporatua izan bada ere, Undaren helburua ez da aldatu: 2012an Londresen egingo dituzten Olinpiar Jokoetan egon nahi du, eta hara sailkatze-ko lehen aukera galtuta, datorren urtean egingo dituzten Europako sailkapen txapelketan postu bat lortzea da hurrengo erronka.



Lagun Aroko Andy Panko, partidu batean. | ORANGE.ES

Lagun Aro GBC eta Valladolid taldeek lagunartekoa, Eskoriatzan

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatza Kirol Elkarteak antolatuta, luxuzko lagunarteko norgehiagoka jokatu da etzi, eguaztena, Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian. Hain justu ere, Lagun Aro Gipuzkoa Basket eta Blancos de Rueda Valladolid taldeak lehiatuko dira, 19:30ean.

Kirol elkarteko bazkideak direnek debalde ikusi ahal izan-

go dute partidua; bazkide ez direnen artean, osterara, prezio bi jarri dituzte: 16 urtetik gorakoendako sarrerak 5 euro balio-ko du, eta 10 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoek 2 euro ordaindu beharko dituzte.

Eskoriatza kirol elkartetik jakinarazi dutenez, egun berean, 17:00etatik 19:30era bitartean, umeendako puzgarriak izango dira kiroldegi aurrean.

ATLETISMOA

Korrika egiten ikasteko eskolak egongo dira astero birritan, 10 urtetik gorakoendako

Arrasate Atletismo Taldekoek eskaintzen dute, Eskola Kirolaren harira

M.B. | ARRASATE

Eskola Kirolaren barruan, 10 urtetik gorako neska-mutikoendako atletismo eskolak eskainiko ditu Arrasate Atletismo Taldeak. Hango ordezkari Fernando Zufriak azaldu digu eguaztenetan eta eguaztenetan izango direla eskolak, 18:00etatik 19:00etara.

Horrekin batera, adierazi du nahi duten ikasle guztiek har dezaketeela parte Mojategiko pistetan, eta eskola horietan interesa dutenek Eskola Kirolean eman behar dutela izena. Gaineratu du mugimenduak koordinatzen korrika egiten ikasiko dutela saio horietan.



Gaztetxoek korrika egiten ikasiko dute. | GOIENA

PILOTA

Jaka-Rezusta eta Andreu-Jauregi, Bergara Hiria txapelketako errebantxan garaile

Juanenea-Murgiondo eta Mugurutza-Iruretaren kontra jokatu zuten

M.B. | BERGARA

Bergara Hiria pilota txapelketako errebantxak irabazle berriak ditu. Egubakoitz ilunkeran, Udal Pilotalekuan jokatu zuten lehenengo partiduan Jaka-Rezusta eta Juanenea-Murgiondo lehiatu ziren. Lehenengoek oso ondo jokatu zuten; atzean izandako alde handiak apurtu zuen bereziki partidua. Bestalde, Andreu-Jauregi eta Mugurutza-Irureta bikoteen arteko bigarren norgehiagoka eskasagoa izan zen. Irureta ez zen oso fin ibili.

Hasiara batean, Murgiondoen ordez Lasak jokatu behar zuten lehenengoan, eta Larrañaga Andreu-gatik; bada, eskuak minduta zituzten biek, eta horrek aipatutako aldaketak eragin zituen.



Beñat Rezusta oso ondo ibili zen atzean. | JOSETXO ARANTZABAL

ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA

Oñatiko artzain txakur txapelketan izango da Jesus Mari Plazaola arrasatearra, 'Gure' txakurrarekin

Jesus Mari Plazaola arrasatearra atzo, domeka, Axpen izandako Euskal Herriko artzain txakurren txapelketan parte hartu zuen *Gure* txakurrarekin, eta Oñatiko Artzain-txakurren Nazioarteko lehiaketarako sailkatzea lortu zuen, sailkapen orokorrean bosgarren geratu bazen ere.

Legazpin jokatu zuten Gipuzkoako txapelketan bigarren izan zen, eta atzo txapeldun-orden artean lehenengo geratu zenez Oñatirako txartela lortu zuen.

PARAPENTE AKROBATIKOA

Bertan behera geratu da Euskadiko txapelketa

Lau saiakera egin zituzten Kurtzebarrira igota; baina eguraldiak ez du tregoarik eman

M.B. | ARETXABALETA

Eguraldiak ez du lagundu eta hortaz, bertan behera utzi behar izan dute asteburuan Urkulun egitekoa zen Euskadiko parapente akrobatiko txapelketa. Zapatuan hiru bider igo ziren parte-hartzaileak Kurtzebarraino, handik aireratzeko asmoz. Bada, euripean eta laino artean zegoen aireratze zonaldea, eta ezin izan ziren aireratu.

Domeka goizean ere Urkulun izan ziren, baina alferrikakoa izan zen, eta eguerdian txapelketa bertan behera uztea erabaki zuten. Dena dela, ateri geratu zen tartetxo batean azkenengo saiakera egin zuten lauz-

pabost parte-hartzailek. Goian haizeak gogor jotzen zuen, 45 kilometro orduko abiadurarekin, eta hortaz, aireratzeko asmoari uko egin zioten osterara ere.

Udaberri aldean

Behean, penatuta topatu genuen txapelketako antolatzaile Oscar Fernandez. Honakoa esan zigun: "Kataluniatik etorritako jendea dago, eta baita El Hierroko beste bat ere. Saiakera batean parte hartzaileek ikusi dute parapente akrobatikoa egiteko toki aproposa dela Urkulu, baina zorte txarra izan dugu. Datorren urtean udaberri aldean egiteko asmoa agertu dute".

ESKUBALOIA

Ford Mugarrik eraman zuen Pitxi Herreroren oroimenezko trofeoa, El Pilarri irabazita

Hurrengo asteburuan denboraldia hasiko du Ane Herreroren taldeak, Hondarribiaren aurka

EDU MENDIBIL | ARRASATE

Liga hasiera atarian, Ford Mugarrik, etxeko taldeak, eraman zuen atzo Pitxi Herrero zenaren oroimenezko trofeoa. Nahi baino gehiago sufritu zuen Ane Herrorek zuzendutako taldeak garai-pena eskuratzeko. Lehen zatian bost goleko abantaila izatera iritsi zen Ford Mugarri, baina azken minutuetan larri ibili ziren arrastearrak. Gol bakar bategatik nagusitu ziren azkenean, 29-28. Ane Herrero pozik azaldu zen partidu amaieran: "Bai, uste baino gehiago sufritu dugu. Azken zatian ez gara oso fin ibili eta gainera, jokalarik bi gutxiagorekin nahikoa lan izan dugu abantailari eusten. Baina sentsazioak onak izan dira zapatuan eta domekan eta taldea gertu dago ligari

ekiteko". Izan ere, hurrengo asteburuan hasiko du liga Ford Mugarrik. Hondarribia izango da lehen bisitaria, Iturripen.

Finalerdiak zapatuan

Domekako finalean, Asier Ruiz de Luzuriaga gasteiztarra izan genuen golegile nagusia. 14 gol egin zituen Ruiz de Luzuriagak. Amesgaiztoa bilakatu zen etxeko defentsarentzat. Etxeko partetik, Nestor Callejak bost gol egin zituen eta launa gol egin zituzten Andoni Bernalek, Xabi Altzelaik, Asier Larrañagak, Kepa Isasmendik eta Mikel Larrañagak. Larrañaga anaiak etorri berriak dira Arrasateko taldera eta maila bikaina erakutsi dute biek hasieratik. Beste nobedadeetako bat Aitor Txabarri atezain arra-



Gasteiztarrek erasoan, lehen zatiko irudi batean. 17-13 aurreratu ziren etxekoak atsedenen aurretik. | E.M.

satearra da. Azken zatian jardun zuen atzo, taldeak gehien sufritu zuenean hain justu. Bestalde, finalaren aurretik Mariano Arrieta klubeko presidentea omendu zuten. Ines Azpiazuk hartuko dio lekukoa aurrerantzean.

Finalera iristeko, erraz irabazi zion Ford Mugarrik Trapagarani, bezperan. 35-13 izan zen emaitza, eta Bernal izan zen golegile nagusia (7 gol). Beste finalerdian El Pilarrek 28-27 irabazi zion Tolosari. Domekan, Tolosak 31-24 hartu zuen Trapagaran mendean, 3. postua lortuz.



Ines Azpiazu Herreroren alargunak eman zion trofeoa Nestor Callejari. | E.M.

TXIRRINDULARITZA



Irabazleak eta Bidelan Kirolgiko txirrindulariak atzo, Bergaran. | J. ARANTZABAL

Grijalba garaile Oñatin eta Garcia Bergaran

Lehendakari Txapelketako sailkapen orokorrean Domalgaski izan da onena

E.M. | ARRASATE

Lehendakari txapelketako azken bi probak jokatu dira asteburuan: zapatuan, Oñatin, Naturgas taldeko Fernando Grijalba izan zen irabazlea eta atzo, Bergaran, Caja Rural taldeko Francisco Garciak eskuratu zuen garaipena. Garciak 9 segundo atera zizkion helmugan Debarrena taldeko Sergio Ruzi eta 15 segundo Bidelan Kirol-

giko Julen Mitxelenari. Taldeko sailkapena Jon Odriozolak zuzendutako Bidelan Kirolgik lortu zuen eta mendiko saria Francisco Garcia probako irabazleak. Bergarako onena Jon Rivero (Debarrena) izan zen; irabazlearengandik bost minutura iritsi zen Rivero, 42. postuan. 79 txirrindulari atera ziren eta 57 izan ziren proba amaitu zutenak.

Domalgaskirentzat garaipena Otsailean hasitako Lehendakari Txapelketako azken proba izan zen Bergarako. Sailkapen nagusian Caja Rural taldeko Karol Domalgaski izan da onena eta bestalde, lehen urteko txirrindularien artean, 19 urtekoen artean Carlos Jimenez (Caja Rural) nagusitu da. Txapelkun maila jantzi zuten biek atzo.

SASKIBALOIA



Saskibaloia harrobi emankorra dago Bergaran

Bergara KEko saskibaloia sailak aurtengo denboraldiko taldeen aurkezpena egin zuen zapatuan, San Martin plazan. 150 gaztetxo inguruk jardungo dute saskibaloian Bergaran, senior, junior, kadete eta infantil mailan. Guztira 10 talde osatu dituzte, horietatik lau neskenak: kadete mailakoa, bi infantil mailan eta alebin mailakoa.

ARRAUNA

Amaia Doyague | Arraunlaria

"Aldapan egoten den ilusioa, emozioa... ezin da adierazi, bizi egin behar da Kontxako bandera"

- Tolosa-Getaria arraun taldeak bigarren egin du aurtengo Kontxako Banderan
- Euskotren liga eta Gipuzkoako liga irabazi ditu aurten Tolosa-Getaria taldeak

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Amaia Doyague 27 urteko arraunlari arrasatearra da. Esan digu denek galdetzen diotela zela dabilen arraunean barrualdeko neska bat. Sei urte dela hasi zen arraunean, eta orain arrauna ezin utzita dabil.

Nola baloratzen duzue Kontxako banderan egindako lana?

Alde batetik formatua baloratu gura dut. Aurten sailkapen estropadaz gain bi igandetan jokatu da bandera, mutilak bezala, eta alde horretatik oso pozik gaude. Sailkapen proban oso lan ona egin genuen, eta oso gustura geratu ginen egindakoarekin.

Lehenengo jardunaldian jokatutako estropadan zeuden baldintzak kontuan hartuta oso pozik geratu ginen estropadarekin, eta bandera salbatzea lortu genuen. Joan zen domekan dena eman genuen; ez genuen lortu bandera eskuratzea baina egindako lanarekin oso pozik geratu ginen.

Sailkapen orokorrean bigarren geratu zineten.

Bagenekien han egongo ziren ontziak lehiakorrak izango zirela, hala ere gu irabaztera irten ginen bi jardunaldietan. Gure prestaketa bai fisiko eta baita mentala ere oso ona izan zen baina badaude faktore mordoa ezin direnak kontrolatu; kalea, adibidez. Pozik gaude egin genuen lanarekin.

Galiziarrek laugarren bandera irabazi dute. Indartsuenak dira Kontxan?

Dena dauka Galiziako ontziak. Neska finak dira, kirolari finak eta profesionalak. Horren aurrean ezin dugu ezer egin; gu baino hobeak dira eta hala erakutsi dute bandera etxera eramanez.



Amaia Doyague Tolosa-Getaria taldeko jantziekin Orion. | IRATI AGIRREAZALDEGI

Galiziakoa selekzioa da, eta zuek elkarteak zarete. Aldea dago?

Bai, alde handia dago. Azken finean gu bi elkarte txiki gara (Getaria eta Tolosa). Arraun munduan dauden elkarte handien aldean oso txikiak gara. Aurten goa hirugarren urtea da elkarrekin lehiatzen duguna eta egia esan igarri da hiru urte hauetako lanak emaitza oso onak eman dituela. Hala ere, oso talde ona izan arren selekzio baten aurka egitea zaila da.

Arraunlari batek fitxarik ez zuelako kexak egon dira gainerako elkarrekin aldetik.

Ez dakit oso garbi zein den kontua. Gu uretara irteten gara gure lana egitera eta bulegotako lana beste batzuen esku geratzen da. Guk ez dugu muturra sartzen hor.

Kontxarekin denboraldia amaitutzat eman duzue. Nolako urtea izan da?

Ontzi txikiak nahiko deskuidatuta izan ditugu; izan ere, negu partetik traineruei begira egon gara, baina behin ontzi txikien txapelketa pasa ondoren traineruen txapelketa zoragarria izan da. Bi ligak irabazi ditugu (Euskotren eta Gipuzkoako liga),

txapelketak ere bai... lan oso ona egin dugu. Aipatuko nuke, adibidez, Zarauzko bandera, Euskotren liga eman ziguna.

Hedabide askotan esan dute aurtengo nesken estropadak ikusgarriak izan direla.

Bai, aurten harrিতa geratu gara prentsak egin dugun harrera guztiagatik. Komunikabide guztietan agertu gara, eta igarri da herriko jendeak guztia eman duela. Horretaz gain, uste dut demostratu dugula demostratu behar zen lekuan, uretan.

Neskak Kontxa jokatzen hasi zintenean ahots kritikoez esaten zuten etxea teilatutik egiten hastea zela hori. Baina, denborak bakoitza bere lekua jarri du.

Bai, duda barik. Batez ere Gipuzkoako mailan esfortzu handia egiten

ari dira elkarrekin hau aurrera eramateko (bost ontzi daude), eta hori ikusten da: jendeak erantzuten du eta komunikabideak ere gainean daude. Eta, uretan gure maila ematen dugu eta ikusizun polita ematen dugu.

Zela bizi duzue Kontxako estropada barrutik?

Egia esan oso momentu hunkigarria da. Aurten, gainera, zaleek dena eman dute. Esan behar da sailkapen estropadan neskak bakarrik egon ginela, eta jende asko joan zela estropada ikustera. Horrek esan gura du babes guztia guretzako zela, ez gizonetako. Alde horretatik oso polita izan zen. Bestalde, Kontxako unea bizi egin behar da. Aldapan egoten den emozioa, ilusioa... bizi egin behar da. Jendea gainera etortzen da trainerua eramateko. Atletismoko estadio handi baten sartzea bezalako izango da, adibidez.

Zer dauka arraunak?

Ikustea helburu pertsonalak jartzen dituzula eta poliki-poliki betetzen dituzula; horrek poztasun handia ematen du. Bestalde, esango nuke taldean dugun giroa oso garrantzitsua dela. Nesken artean oso harreman ona dauka eta hori da gakoa.

Noiz arte jarraituko duzu?

Iaz esan nuen azkena izango zela eta jarraitu egin nuen; orain ere, uzteko asmoa daukat, baina nork daki.



Tolosa-Getariako taldea, Zarauzko ikurrina irabazi ondoren. | AMAIA DOYAGUE

KULTURA



Errege Seminarioko aparkalekuan jarritako karpan egin zen pastorala. | JOSETXO ARANTZABAL



Larraineko herritar asko pasa ziren agertokitik. | JOSETXO ARANTZABAL



Publikoak ere abestu zituen pastoraleko kantak. | JOSETXO ARANTZABAL

'Monzon', Hegoalderako bidaia arrakastatsua pastolarak

- ▶ 2.000 ikusle inguru batu zituen pastoralak
- ▶ Larraineko herriaren ikuskizunak une gogoangarri asko utzi zituen

TXOMIN MADINA | BERGARA

Joan bedi aurretik artikulua hau sinatzen duenak ez zeukala inoiz pastoral bat ikusita, eta aurreiritziak ez zirela oso aldekoak: lau orduko ikuskizuna; euskara izan arren, ulertzeko erraza ez den euskalkia; aurrez ere ezaguna zen argumentua... Larraineko herriak zapatuan Bergaran aur-

keztu zuen *Monzon* pastoralak baina, banan-banan bota zituen aurreiritziok, euskal kulturaren tradizioan hain aparteko den ikuskizun paregabea eskainiz.

2.000 pertsona inguru elkartu ziren pastorala jarraitzeko, eta Larrainekoek egindako esfortzuari primerako erantzuna eman zioten Bergaran batu zirenek.

Une hunkigarriak eta komikoak Johane Bordaxarrek idatzita Telesforo Monzonen bizitzako pasarte garrantzitsuenak jaso zituen pastoralak; antzerkia, kantua eta dantzak, denak uztartuz.

24 jekaldi edo ataletan banatuta, pastoralak maisutasunez lotzen ditu Bergarakoaren bizitzako joan etorriak. Askok izan

ziren pastoralak eskainitako une gogoangarriak. Batzuk zinez hunkigarriak, bereziki Monzon nagusiaren papera egiten duen Dominique Urruty aktoreak bergararren hil aurreko azken otoi-tza abestu zueneko. Urrutyri Monzonena berarena izan zen makila eman zioten, eta begiak bustita abestu zuen. Beste une batzuetan

ukitu komikoa zen nagusi, eta hor sartzen dira turkoek (gaiztoek; besteak beste Francok) protagonizatutakoak. Eta une berezien artean aipa daiteke artalde bat taula gainera igo zuteneko. Ikusleak bete bete sartu ziren jokoan, pertsonaia batzuei txalo eta besteei txistu eginaz.

Pastoralak bazuen aldeko faktore bat publikoa bereganatzeko: Monzonek idatzitako abesti ezagunak (*Itziarren semea*, *Txikia*, *Lepoan hartu...*) abestu zituzten antzezleek, eta askotan ikusleak izan zituzten lagun. Larraine eta Bergarako herrien arteko opari truke eta anaitasun hitzekin amaitu zen denbora luzez oroitu den eguna.

Ez da ohikoa hegoaldean pastoral bat ikustea eta zapatuan, aurpegi ezagun ugari bildu ziren Bergaran. Han ikusi ahal izan ziren, besteak beste, Martin Garitano aldu nagusia, Tasio Erkizia, Niko Etxart eta Andoni Aizpuru.



AITOR BELATEGI
BERGARA

"Ikusgarria izan da, sekulako aukera da hara joan barik, pastorala herrian bertan izatea. Abesten entzutegatik bakarrik, merezi du; ez dadila galdu".



BIXENTE URRUTIA
OÑATI

"Aspalditik neukan ikusteko gogoia, eta oso gustura egon naiz. Hizkuntzarekin ez dut arazorik izan, liburuxkarekin ondo jarraitu dut".



JON IRIARTE
DONIBANE-LOHITZUNE

"Larrainen ikusia genuen, baina hemen berezia izan da. Bergaran egin zaion harrera oso ona izan da, publikoa oso ondo egon da eta mezu ugari transmititu dira".



JON MONTALBAN
BARAKALDO

"Lagun batzuk egon ziren Iparraldean ikusten, eta etortzeko gomendatu ziguten. Lau ordu luze egin arren, erritmo aldaketei esker gustura egon gara".



ROSA MARI PAGALDAI
BERGARA

"Oso polita izan da; dantzak, abestiak... dena gustatu zait. Zoragarria izan da Larraine moduko herri txiki batek egin duen esfortzua".

Aita eta alaba, kaosaren eta bizitzaren aurrean

Venezuelako Teatro Altosf taldeak gogoeta potoloz betetako lana ekarri zuen Antzuolara

TXOMIN MADINA | ANTZUOLA

Ikuskizun bat agertokira eroateko orduan, aukerak asko dira. Zapatuan Bergaran egin zen pastoralaren kasuan bezala, ikusgarritasunaren alde egin daiteke. Baina beste aukera bat da guztiz kontrakoak, esan beharrekoak askotan dirudiena baino gogorragoa den sinpletasunetik esatea. Egubakoitzean Antzuolan *Caos y otras esperanzas* antzezlan eskaini zuen Venezuelako Teatro Altosf taldearen hautua, bigarren bide horretatik doa eta 60 pertsona inguru bildu ziren Torresoroan emaitza ikusteko.

Aita-alabak agertokian

Bi banku eta maleta bat. Horixe da antzezlanak duen eszenografia guztia. Aktore taldeari dago-kionean ere, sinpletasuna nagusi:

si: bi pertsonaia, aita bat eta bere alaba, bizitza errealean ere halaxe diren Juan Carlos de Petre eta Luz de Petre.

Inprobisazioa izan barik, aktoreari gidoia moldatzen uzten dion metodologia berezia jarraituz, gai potoloak planteatzen ditu antzezlanak. Hala, presaren, beti erlojuaren kontra aritzea da jorratzen dena; uneoro asti barik dabilen alaba eta gauzak patxadaz hartzeko, gauza bakoitzari bere denbora eskaintzeko aholkatzen dion aita kontrajartzen dira kasu honetan. Ikasteari buruz ere mintzo da lana: ikastea ez omen da unibertsitatera joatea bakarrik, bizitza bera bizitzea ikasteko beste modu bat ei da.

Antzezlaneko aita beste mezu bat ere utzi zuen: bizitza bera da kaosa, eta egunero ordenatu behar da.



Antzezlaneko bi aktoreak, egubakoitzeko saioan. | JONE LARRAÑAGA

Arrasateko gaztetxea lepo bete zen adierazpen askatasunaren alde

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Realaren partidu baten presoen aldeko maindirea ateratzeagatik 4.000 euroko isuna jaso zuten bi gazte arrasatearrei laguntzeko antolatutako jaialdiak sekulako arrakasta lortu zuen.

Zapatu gauean zen hitzordua, eta gaztetxea txiki geratu: sarre-ra guztiak saldu ziren

Familia giroan

Herriko bost talde igo ziren agertokira, eta batez ere Never Surrender eta Arkada Socialek girotu zuten gaua.

Familia giroan burutu zen jaialdia, eta antolatzailerek esker onak eman gura izan dizkiete bai ikusleei eta baita laguntzen aritu diren guztiei ere.



The Kate's Maniacs taldeak ere jo zuen zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL



Asier Altuna, zapatuan egin zen *Bertsolari* dokumentalaren estreinaldian. | HARITZ DENDATEGI

Asier Altuna | 'Bertsolari' dokumentalaren zuzendaria

"Edozeinek ulertzeko modukoa egin nahi izan dugu 'Bertsolari'"

- Bergararrak egin duen dokumentala zapatuan estreinatu zuten Donostian
- Txalo zaparrada batekin amaitu zen lehenengo proiektzioa

TXOMIN MADINA | BERGARA

Bi urte eta erdiko lanaren ostean, zapatuan estreinatu zen Donostia-ko Zinemaldian *Bertsolari*, Asier Altunaren azkena. Pozik dago bergararra izandako harrerarekin.

Nola bizi izan zenuen zapatuko estreinaldia?

Egun polita izan zen, pelikula erakusteko gogotsu nengoen. Horrelako egunak bereziak dira, ezkontza baten antzerakoak; ekitaldia pasatzeko gogoia ere baneukan. Goitik ez duzu neurtzen ze harrera duen, baina gero bai, jendeak komentatu zidan pelikula gustura hartu zuela, publikoaren berotasuna sumatu nuen. Eta antzerakoa ari zait gertatzen hedabideetan esan direnak ikustean.

Espero zenuen publikoak eta kritikak egindako harrera beroa? Nola hartu duzu?

Pelikularengan konfiantza handia neukan: banekien ikusteko erreza izango zela, pelikulak berak eraman egiten zaituela eta gustagarria izan daitekeela. Pozik nago baieztatu egin delako hori.

Ikusteko erreza bai, baina egiteko ere hala izan al da?

Bi urte eta erdi denbora luzea dela ematen duen arren, dokumental bat egiteko ez da hainbeste. Nire sentazioa da pausoak nahiko azkar eta bide onetik eman ditudala, batez ere azken urtean: martxoan oraindik grabatzen nengoen, maiatzean muntatzen, eta zapatuan estreinatzen. Nekezena finantziarioa lortzea eta hasierako pausuak ematea izan da.

Zergatik bertsolaritzari buruzko proiektu hau?

Gaia interesgarria izan zitekeela iruditzen zitzaidan bertsolaritza jendearengana iristen delako, barrenak mugitzen dituelako. Zentzu horretan antzekotasun handia dauka zinemarekin eta pentsatzen nuen bertso-saio baten gertatzen diren emozioak pantailan ere gerta zitezkeela.

Planteamendua izan da hasieratik bukaeraraino bertsolaritza kanpotik ezagutzen joatea; ezagutu heinean, pelikula osatzen joan da. Esan daiteke pelikularengandik elkarriketatuta ditudan bertsolari eta aditu guztiak egin dutela, baita lantaldeak ere. Ederrena izan da pelikula bukaerara arte bizirik egon dela, azken plano muntatu arte.

Eta estetiki zein izan da planteamendua?

Argazki kamera bat erabili dut grabatzeko, eta txundituta nago pantailan ematen duen itxurarekin. Asmoa izan da kamera etxean eduki eta asko mugitzea, bertso-saio bat zegoela jakin eta hara joatea. Kamerak oso irudi zinematografikoa ematen du eta soinuarekin isiltasunarekin ere asko jokatu dut.

Kritikaren baten irakurri dugu 'Bertsolari'-k ez duela dokumental asko duten ukitu didaktikoa. Erabaki kontzientea izan da?

Nire pelikula egitera joan naiz, eta hori argi izan dut hasieratik: bertsolaritza neure egin behar nuela, neure begietatik adierazi. Erreportajea izan beharrean sentazioak sortzen ditu eta interesgarriagoa iruditzen zait.

Bertsolariek, nola erantzun zioten parte-hartzeko proposamenari?

"Ederrena izan da bukaerara arte pelikula bizirik egon dela"

"Filma borobiltzeko modu bakarra, jendea pelikula ikustera joatea da"

Hasierako jarrera oso positiboa izan zen; hasi Maialen Lujanbio-ekin eta Unai Iturriagarekin hasi nintzen harremanetan eta oso ondo hartu ninduten. Andoni Egañaren jarrera eta dispozizioa ere sekulakoa izan da. Denak ere gogotsu sartu dira pelikulan. Bertsozale Elkarteak ere hasieratik jarri du konfiantza gudan, eta asko lagundu digu bai dokumentazioarekin eta baita finantziarioa bilatzen ere.

Harrera izugarria egin diote bai Elkarteak eta baita bertsolariek ere: gustura geratu dira eta esan didate eurentzat oso garrantzitsua dela pelikula hau.

Nori zuzenduta dago 'Bertsolari'?

Nik uste dut denendako dela pelikula egokia. Beti izan dugu oso argi kanpora zuzenduko gurela, edozeinek ulertzeko moduan egin gura gurelako. Hemengo bertsozaleak uste dut gustura irtengo direla pelikulatik, azken batean bertsolaritza beste ikuspuntu batetik aztertzen delako. Baina kanpoko begirada izan du beti: beti imajinatzen dut zer esango ukeen japoniar batek pelikula hau ikustean. Nik uste dut harritu egingo litzatekeela, eta hori bilatu nahi izan dugu.

Zapatuan ekin zion bidaiari 'Bertsolari'-k. Zein izango da aurrerantzean egingo duen bidea?

Urriaren 14an zinema areto komertzialetan egongo da, baita Madril eta Bartzelonan ere. Asmoa da egun horretan Jon Sarasua eta biok Arrasaten egotea, eta emandien ostean solasaldi bat egitea. Pelikula borobiltzeko modu bakarra jendea ikustera joatea da. Horrek bultzada eman eta dirua berreskuratzeko aukera ematen du, baita beste proiektu batzuetan sartzeko indarra ere. Zinemaldian bertan beste jaialdi batzuetara joateko bideak zabaltea ere gustatuko litzaziguke; nik uste mugituko dela.

GURE MUSIKA TALDEAK

BITZ



Oñatiko gaztetxean zaleen aurrean aurkeztu zuen diskoa Bitz laukoteak irail hasieran. | MAIDER ARREGI

"Taldearen historia eta eboluzioa jasotzen duen lana egin nahi izan dugu"

- ▶ Punketik abiatuta, rock, funk eta stoner ukituko abestiak dituzte
- ▶ Diskoa ohiko tabernetan eta euren zuzenekoetan erosi ahalko da

MAIDER ARREGI | BITZ

Denbora luzea pasatu da 2003an jaietako oholtza gainera igo zenetik Bitz laukotea. Taldeak grabatutako maketa baten ostean etorri da kantuen bilduma hau. Dena denen artean egin dutela kontaktu digute, ilusioz.

Diskoa, kostata, baina kalean da. Aspaldiko abestiak guztiz bukatu ditugu eta soinu aldetik oso gustura geratu gara. Ez da disko soila, azken 7-8 urteotan denon artean egin ditugun kantuen bilduma da. Batzuk maketako abestiak dira eta *Oñati Bizirik*-en

jasotakoak; besteak, berriak. Lokalean eta gaztetxean geuk egindako grabazioak geneuzkan; oraingoan, ordea, estudio batean grabatutako diskoa nahi genuen, adituak direnekin egindakoa.

Bitz-en historia da diskoa.

Askotariko estiloak batzen dituen lana da. Gure hasierako kantuek punkagoak dira, ezberdinagoak. Diskoan oso ondo islatzen da gure kantuen eboluzioa. Eginda geneukan guztia batu dugu.

Aeroson estudioan grabatua.

Egun gutxitan, baina oso intentsua izan zen. Emaizta freskoa eta

espontaneo nahi genuen. Grabatzea joan aurretik lokalean prestatu genuen.

Teknika ona duzue; lekurik bai inprobisaziorako?

Gure ustez, teknikoak baino gehiago, espontaneoagoak gara; lan egiteko era ere hori da. Denbora batez gelditu egoten gara, baina gero, elkartzean, bat-batean martxan jartzen gara. Ez gara entseatzeko garaian profesionalak.

Nola hartu dute diskoa zaleek?

Desberdinak gara eta esaten digute, eta ikusteko dibertigarriak.

Oso zuzeneko bereziak dira. Denok 15 urterekin berdina entzuten genuen; orain, bakoitzak joera propioa dauka. Gure musikan igarri da zabaldu egin gara. Baina denok batzen gaituen influentzia punk-rocka da. Egia da kantuek egiteko orduan ez diogula begiratzen ze estilo den. Gustatzen bazaigu, aurrera!

Musika freskoa, alai... erraz entzuten direnak.

Abesti batzuk lehenengoan sartzeko modukoak dira, baina badaude arraragoak eta ondo entzun beharreko abestiak, ez direnak hain errazak.

Bezero bila abestian stoner ukitua ere baduzue!

Erritmo aldaketak daude, beti berdina egitea ez zaigu gustatzen. Abesti desberdina da; *Odola* abestia oso funka dela esan ziguten estudioan... ez diogu garrantzirik ematen estilo bati. Barrutik irten dena egitea gustatzen zaigu.

Taldekide batzuk MC5en bertsioak egitera ausartu zarete.

Jaietako bertsioen egunerako antolatu genuen. Lau bat kantu egin genituen, baina Show Businesskoekin batu eta MC5 taldeari omenaldia egin genion.

Arima bako zombi asko dago?

Guk gura baino gehiago. [Barre] Inguruan baino gehiago, bakoitzak barruan ere badarama zombia. Letrak irekiak dira eta ez dute zentzu bakararra. Nahi duenak egin dezala bere interpretazioa! Letra fantasiosoa dira, *pelikulo* samarrak, formatu hori dute. Errealitatea eta fikzioa batuta.

ZERTZELADA



BITZ

Estiloa: Punk-rock, power-pop...

Egilea: Bitz.

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 35,5 minutu.

Melodia borobilak eta irudimen askea

Bitz taldekoren lehen diskoak emaitza txukuna du.

Punk-rockaren inguruan jiran daude diskoak kantu gehientsuenak, baina egia da badituela beste fiabardurak. Horretan zeresana izango du abeslariaren ukitu bereizgarriak eta baita taldekideak irekiak izateak. Esatea topikoa badirudi ere, ez da hain ohikoa gaur egungo taldeek Ramonesen ispiritua ondo bereganatzea eta hauek lortu dute: melodia borobilak lortu dituzte. Punk-rock melodikoa eta power-popa dira nagusi. Horrez gain, 'Odola' kantuek koordinada oso desberdinak ditu, baina oso emaitza ona du, eta 'Ez da berandu' piezak ere erritmo tribalak eta funkya ditu bere baitan. Bide berriak aztertzen...

IKER BARANDIARAN



UDAKO ARGAZKIEN VII. GOIENA LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: goiena.net/blogak/argazkiak



ARROZ SOROAK LANDATZEN. Thailandian gizon bat arroz soroak landatzen. /Argazkia: Christian Arriagada /Arrasate



ONDARROAKOHONDARTZA. Aurtengo uztailean Ondarroako hondartzan ateratako argazkia. Uda oso eguzkitsua izan ez den arren, izan ditugu halako egun goxoak ere. Uxue Odirozola Madinabettia /Oñati



GUARDIAKO ATEA. Guardian (Arabako Errioxa) 2011ko udan ateratako argazkia. /Argazkia: Jose Fernando Castillo



LASAITASUNA ARNASTEN! 2011ko abuztuan Astungo aintziran, atsedean hartzen. /Argazkia: Oinatz Agirre /Aramaio



BEISBOLA. New Yorken, beisbol partidu baten, gure inguruan zegoen haurra ere jolasteko irrikan zegoen! /Argazkia: Lide Osinaga /Oñati



ATSEDEEN HARTZEN. Argazkia 2010eko abuztuan ateratakoa da Jakako Rapitaneko harresian. Bertan, semea azaltzen da, abenturaren ondoren deskantsatzen. /Argazkia: Aitor Larrañaga Zabaleta



ILUNABARREAN SALTO. Argazkia 2011ko abuztuan ateratakoa da, Pirinioetan. Malen eta Maika salto egiten ari dira, ilunabarrean. /Argazkia: Maika Gallastegi



GOAZEN. Greziako irletan 2011n ateratako argazkia. Sumendi itzaliaren ura bero dago, eta gizakiak berorantz egiten du beti. /Argazkia: Juanma Aguirreureta Elsegui /Aretxabaleta

Oinarriak:

- Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta nongoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: irailaren 16a.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).

- Bidali argazkiak eta alpatutako datu GUZTIAK argazkiak@goiena.com helbidera, edo Golegara ekarri: ARRASATE: Otolara Lizentziaduna 31. BERGARA: Ibarra kalea 6 ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua, edo Basabe poligonoa E-0-5.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.

Sariak:

- 1. saria:** Panasonic LUMIX DMC G10 argazki kamera digitala eta KB Photoestudiok eskaintzen dituen ikastaroetako batean, %50eko deskontu bonoa Bergarako KB Photoestudio argazki dendararen eskutik.
- 2. saria:** Cantabriari bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaia- en eskutik.
- 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



ANTOLATZAILEA: **goiena**

BABESLEA:



Laguntzaileak:





UDA KO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan:



TXIKORIA-BELARRARI PUTZ EGITEN. Gorlan etaratako argazki bat da arratsalde aldera. /Argazkia: Jone Albeniz /Bergara



TXAKURRA HONDARTZAN. Bero izugarria pasatu genuen Grezian abuztuan. Horregatik, onena hondartzara joan eta gerizpean jartzea. Antza denez, txakurrak ere berdin pentsatu zuen.. /Argazkia: Naroa Odriozola Casado /Bergara



NEGUKO HAIZE HOTZA BERE AURPEGIAN. El Chalten (Calafate, Argentina), 2011ko uztailean ateratako argazkia. Idoia, Zaragozako lagun bat kotxeko lehiotik burua aterata duela bertako neguko haize hotza bere aurpegian sentitze duelarik.. /Argazkia: Jaione Gantxegi /Bergara



HERRIKO PIRATATXOAK. Morro Jable hondartza, Fuerteventura. Hemen ditugu herriko piratatxoak. /Argazkia: Xabier Errasti Alzelai /Bergara



ROSASEKO HONDARTZAN ILUNABARRAR. 2011ko udan ateratako argazkia. Rosaseko hondartzan ilunabarrarekin batera pertsona bakoitza bere erara erlaxatzen. /Argazkia: Olatz Urrutia /Bergara



MUSKERLEPAURDINA. Tenerifeko Teide sumendiaren parke naturalean bizi den musker lepaurdina. Aurtengo abuztuan ateratako argazkia. /Argazkia: Ainhoa Elizaran Isisismendi /Arrasate



EGUZKITIK BABESTEN. Argazkian Emakume bat eguzkiaren beroa-gatik babesten. Potosin (Bolivia) 2011ko ekainean ateratako argazkia. /Argazkia: Amaia Bolinana /Bergara



HONDARTZAN. argazkia aurtengo udan atera dut kantabriako langre hondartzan. Bertan udara bera ikusten da: itsasoaren askatasun eta indarra, eguzkia eta kolore biziak!. /Argazkia: Markel Eguren Babiano /Bergara



IGOTZ EGUNSENTIAN. Almerian, San Jose herrian. Igotz agertzen da eta Genoveses hondartzako egunsentia da. /Argazkia: Iratxe Hernandez Aquizu



KAIOAK EGAN. Argazkia udako ilunkara polit batean atera zuen Donostiako Pasealeku Berritik. Kaiok ere ederto aprobetxatzen dituzte eguneko azken eguzki izpiak.. /Argazkia: Uxue Odriozola Madinabeitia /Oñati



ÑUAK MASAI MARAN. Kenian aurtengo abuztuan ateratako argazkian. Ñu-ak Masai Marako akazia baten azpian. /Argazkia: Gorka Ortiz de Mendibil /Arrasate



ATSEDEN HARTZEN. Vietnam egindako argazkia. Sapako herrixka baten, neska atsedean hartzen. /Argazkia: Nagore Talledo Baena /Ezkeriatza

VII. GOIENA LEHIAKETA



goiena.net/blogak/argazkiak



ESEKITOKI PUBLIKOA. Argazkian Zürich-eko plaza bat azaltzen da, bertan esekitoki publiko bat izango balitz moduan, plaza guztia mota guztietako arropaz esekita aurkitzen da. /Argazkia: Eneritz Madariaga Eguren



PORTUKO ITSASONTZIA. Uzlailaren 30ean Castro Urdialesen (Cantabria) ateratako argazkia. . Portuko itsasontzia. /Argazkia: Dani Marquez/ Arrasate



PATXADAZ. Pareko mendietan ibilaldi paregabea eginda, patxadaz (Gosau, Austria, 2011ko uda). /Argazkia: Enrike Gorrotategi/Elgeta



GAUERDI EGUZKITSUA NORUEGAN. Noruegan aterata dago, 2011ko uztailean Cabo Norte-rako bidean, gauerdian. /Argazkia: Jasone Zabala/Bertara



ZARAUTZEKO HONDARTZA. 2011ko irailean Zarautzeko hondartzan ateratako argazkia. /Argazkia: Joana Mancisidor Akizu/Arrasate



TXAKURRA ERREKAN. Txakurra Urbiako errekan. 2011ko abuztuan Urbian ateratako argazkia. Txakurra errekan. /Argazkia: Esther Elorza Beltia, Oñati



UMEA HONDARTZAN. Almeriako "Los Genoveses-eko" hondartzan ume bat itsasoari begira. /Argazkia: Mario Romero/Aretxabaleta



VIETNAMGOPAISAIA. Argazkiea Vietnamiparraldeko paisaia agertzen da. /Argazkia: Maider Vitoria/Arrasate



LEKEITIOKO ANTZAR EGUNA. 2011ko udan aterata Lekeition (Bizkaia) Antzar Egunean. Parte-hartzaile bat bere zazpigarren jasoaldia jasaten, hurrengoan askatu zen! /Argazkia: Jorge Murgiondo Gallastegi



BEHIEKIN PASIATZEN. Emakume bolibiar bat (Cholita bat), bere behiak lakuaren ertzean pasiatzen. 2011ko ekainean ateratako argazkia. /Argazkia: Ainhoa Bolinaga/Bergara



TXIMISTA DONOSTIAN. Aurtengo abuztuak 21eko gauean. Donostiako Igeldo, Santa Klara isla, eta Miramar jauregia ekaitz artean.. /Argazkia: Iban Zubizarreta Etxabe/Arrasate

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Muntzaratz auzoan. 3 logela handi, 2 komun, sukaldia, egongela handia jangelarekin eta balkoi handi bat dauka. Etxea ganbarearekin saltzen da. Berriztuta dago, kalefazioa du. Pisua bizitzera sartzeko moduan dago, egoera onean. Prezioa negoziagarria da. Tel.: 678-83 60 50.

Antzuola. 120 metro koadroko duplexa salgai. Egongela, sukaldia, hirulogela, bikomun, balkoia eta trastelekuak. Aukera ona. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626 53 14 49

Azkoitia. Etxebizitza salgai 91 m². 4. solairua. 96.000 euro. Dena berrizteko. Aizkibel 6-4. 91m². Tlf.: 648-64 01 01.

Bergara. 72 m²ko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela eta komun bat. Berokuntza, gasarekin. Telefonoak: 606-65 58 08 / 660-04 25 25.

Berriz. Aukera oso ona. Baserri polit bat salgai berriren, Durangotik justu 6 minutura. 300 m² ditu etxeak eta 17.000 m²ko terrenoa, arrain errekatxo bat ere badu. Urezko errota dauka martzan. Txakolina, kiwiak, intxaurrak, gaztainak, fruta arbolak, ortu ederra, landak eta jardinak ditu. Anbotora bistak. Dena harrizkoa. Garajea du kotxe batentzat eta parkina beste 4 kotxerentzat. Leku baketsua eta pozik bizitzeko modukoa. Familia bat edo bi bizitzeko aproposa, bi ezkaratz ditu, 3 komun, lau gela eta egongela bat, eta lekua gela gehiago eraikitzeko. Etorri ikustera. 510.000 euro. Aukera oso ona. Deitu telefono hauetara: 669-45 46 18; 94-603 32 18; 94-620 18 59.

Durango. Pisua salgai Murueta-torren. 90 m². Sukaldia eskegitokiarekin, egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun (bat logela baruan). Guztiz berriztua (ateak, leihoak, horma-armairuak...) eta jantzia, eguzkitsua, bista eta kokapen ederra. Ganbara eta garajea. Telefonoak: 686-13 89 09.

Elorrio. 65 m²ko etxebizitza salgai. Prezio oso interesgarria. Igogailua jartzeko asmoarekin. Telefonoa: 615-73 27 27.

Elorrio. Elorrioko erdialdean kokatua dagoen etxebizitza salgai. 2 logela eta 2 bainugela. 634-45 72 01.

Etxarri-Aranatz. 84 metro, 3 logela, egongela, sukaldia eta komun. Eguzkitsua, bista ederak eta berogailua, berriztua, igogailurik gabekoa. Prezioa 105.000 euro. Telefonoa: 654-23 41 02.

Etxarri-aranatz. Etxe bat saltzen da Etxarri Aranatz. Aralarra eta Beriainera bista ederrak. 686-75 07 00.

Etxarri-aranatz. Duplex bat salgai. 120 m² inguru, guztiz berritua eta jantzia. Bista paregabeak. 26-11 78 94.

Lakuntza. 85m², 20 metroko bajera, dena kanpora begira, ia guztiz jantzia. Bizitzera sartzeko prest. Oso prezio ona. Nahi duenaren beste bajera ere salgai. Erreformatua. Aluminiozko leihoak. Balkoia itxia du. 650-84 56 89.

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorentzon. Lau logela, bainuge-

la bat eta komun txiki bat, jangela-egongela eta sukaldia. Garaje itxia. Ganbara. Balkoia eta terraza. Prezio negoziagarria. 634-43 78 19.

Oñati. 70 m²ko etxebizitza salgai Kurtzede kalean. Hiru logela, sukaldia, egongela eta bainugela. Igogailuarekin. Dena kanpoaldara begira. Ganbara ere badauka. 615-71 79 23 / 649-11 83 43.

Oñati. Etxea salgai Kurtze bide kalean. Hiru logela, sukaldia, bainugela, egongela eta ganbara. Laugarren solairua. Oso eguzkitsua. Igogailu eta berokuntzarekin. 666-44 23 98.

Ondarroa. Etxebizitza salgai Ondarroan. Berriztua eta eguzkitsua. Bi logela, eta logela/egongela bat, komun eta sukaldia balkoi estaliarekin. Interesatuok deitu 626-00 09 74 edo 686-41 86 14 telefono zenbakietara.

Otxandio. Apartamentu jantzia salgai. Garaje eta trastelekuarekin. 675-71 72 83.

Zumarraga. Etxebizitza eguzkitsua salgai. Bi logela, egongela, komun eta sukaldia. 156.300 euro. Telefonoa: 638-33 03 01.

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. Hirulogela. Jantzia. 649-55 48 10.

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. Ia berria. Hiru logela eta bi komun. Informazioa gehiago fotocasa.es/alquiler/aretxabaleta helbidean edo telefono zenbaki honetan: 630 60 47 75

Arrasate. 120 m²ko etxebizitza. Garbiketa gela, sukaldia, komun txikia, bainugela, egongela-egongela eta lau logela. Erdigunean. Unibertsitatetik bost minutura. Telefonoa: 609-03 85 20.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Erguinen, unibertsitatetik gertu. Hiru logela eta egongela. Igogailuarekin. Berokuntzarekin. Hilean 600 euro. Telefonoa: 636-60 79 60 / 943-79 83 48.

Arrasate. Ikasleentzat edo bikote batentzat egokia. Hiru logela. Unibertsitatetik gertu. 645-76 17 88.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela eta bi komun. Igogailuarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 675 71 50 36

Durango. Durangon pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldia eta 2 komun. Irailatik aurrera. 750 euro.

Elorrio. Elorrio pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldia eta komun. Tel.: 94-658 20 18.

Elorrio. Etxea errentan ematen da. Harremanetan jartzeko deitu ondorengo telefono zenbakira: 695-782 786.

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komun. Guztiz jantzia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 657 13 33 44

Torre vieja (Alacant). Torre viejan bungalow alokatzen da. Urbanizazio pribatuan, gune berdeak eta igerilekuak. 3 logela, egongela, sukaldia eta solariua. Telefonoa: 615-77 96 22 (Itsaso).

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiago argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdtu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

Debagoienetik kanpo iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com



Deba Garaia Inmobiliaria

Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Sanantonabat, 75 m², oso ondo, eguzkitsua, lorategia.
- Aranerrek, 80 m², oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Burdiñate, 104 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m², oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m².
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- Ibargarai, 80 m², oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m², oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m², berritua, oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- San Lorenzo. Prezio ona. Berria.
- Urteaga. Berrizteko. Prezio ona.
- Urarte (Lorentxoko), 140 m². Berria
- Bidekurutzeta. 78 m². Berritua.
- Juan XXIII enparantza. 87 m². Ondo.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, artokan, San Lorentzon eta Lorentxokan.
- Lorentxokan aukera ona.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 m². Berria. Garajearekin.
- Fraizkozuri, 75 m², eguzkitsua, oso ondo.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokrosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Martoko. 70 m². Igogailuarekin. 192.233 €.
- Basarte. 68 m². Terrenoarekin.
- Artekale 40 m². Berritua.
- Koldo Eleizalde. 74 m². Eguzkitsua. Prezio ona.
- Ozaeta. 96 m². Eraikuntza berria.
- Osintxu. 84 m². Igogailuarekin. 153.258 €.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin.
- Burdiñate 53 m². 162.273 €.
- Matxiategi 65 m². Igogailuarekin. 190.000 €.
- Mizpildi. 70 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 70 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m². 154.761 €.
- Aranerrek 80 m². 189.319 €.
- San Lorenzo 68 m². Berritua.
- Herri Lagunak 52 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 51 m². Terrazarekin. 102.000 €.
- Zubiaurre 81 m². Igogailuarekin. 183.909 €.
- Zubieta 55 m². Berritua. 150.000 €.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.
- Artzamendi. 75 m². Prezio ona.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan, San Lorentzon eta Ibargarain. Aukera ona.

Antzuola:

- Ondarren garajea salgai. 36 m².
- Buzintzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m². Oso etxe ona.

Elgeta:

- AUKERA. Etxebizitza adosatutako salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.
- PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita.
- Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.

Soraluze:

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Langile pisu edo etxean logela bila nabilirailaren bukaeran bizitzera sartzeko. Oñati edo Arrasaten logela, eroso eta ekonomikoaren bila dabilen 27 urteko mutil langile eta garbia. Epostaz kontaktatu mesedez, orain atzerrian naiz eta aritxu_5@hotmail.com.

Aretxabaleta. Bikote arduratsua gara eta Aretxabaletan denboraldi luzez errentan hartzeko pisu bila gabilta. Interesatuok deitu: 669-83 35 61.

Arrasate. Bikote arduratsua gara, lanean diharduguna. Etxebizitza behar dugu errentan, epe luzerako. Bilogelakoa gutxienez. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662-66 34 20.

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa. 626-12 55 60 / 662-26 71 41.

Bergara. Etxebizitza hartu nahiko nuke errentan. 2 edo 3 logelakoa eta kontratuarekin. Presazkoa. 697-62 59 57.

Debagoiena. Familia batek 3 logelako etxebizitza hartuko luke errentan. 698-33 62 98 / 632-31 87 56.

Debagoiena. Hiru pertsonetako etxea hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono honetara. Javed. Telefonoa: 617-98 78 67.

Durango. Bikote arduratsua alokairuko pisu baten bila durango edo inguruetan. Telefonoa: 617-86 00 55

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu alokagai Arrasaten. 630 71 35 83

Arrasate. Etxebizitza osatzeko bi pertsona behar dira. Langileak bizi dira bertan. Hilean 190 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 11 45 14

Arrasate. Etxebizitza osatzeko jende bila gabilta. Hiru logela, sukalde hornitua, egongela handia, komun, balkoia, igogailua eta berokuntza zentrala. 260 euro hilean, gastuak barne. Unibertsitate ondoan. Telefonoa: 620 52 94 98

Arrasate. Hiru pertsona behar dira pisua osatzeko. Lau logela, komun eta sukalde-egongela. Herriko plazan bertan eta merkea. 17:30etatik aurrera deitu. 658 74 48 24

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrentzat. 657 55 81 15 edo 648 86 05 49

Bergara. Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 240 euro gastuak barne. 670 85 86 68

Logela bila Oñati-Arrasaten. Langile etxebizitza edo etxean logela bila nabilirailaren bukaeran bizitzera sartzeko. Oñati edo Arrasaten logela, eroso eta ekonomikoaren bila dabilen 27 urteko mutil langile eta garbia. Epostaz kontaktatu mesedez, orain atzerrian naiz eta (arixu_5@hotmail.com). Eskerrik asko.

Oñati. Etxebizitza konpartitzeko pertsona bila nabil, erdigunean (Kale Barrizan). 225 eruro gehi gastuak (argia eta ura). Etxea guztiz jantzia eta hornitua. 652 71 52 50

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaje itxia salgai Santakruz 25-27an. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 46 36 71

Berriz. 42 m²ko garaje itxia salgai. Ate automatikoa. Ur eta argi instalazioak iaz eginda. Komun eta bodega txiki bat. Txoko txikia sukaldagaz. 2 edo 3 kotxe. Tel.: 615-75 21 36.

Elorrio. Kotxea gordetzeko garaje bila zabilta? Berrio-otxo kalean baduzu horretarako aukera! Garaje itxia salgai. Tel.: 658-75 92 64.

Otxandio. Garaje itxia salgai Otxandion. 675-71 72 83.

203. ERRENTAN EMAN

Oñati. San Lorenzo 10An, garaje itxia ematen da errentan. Deitu 686 76 01 87 edo 943 78 13 57 zenbakietara.

Durango. Montebideon (Ertzaintza alboan) 26 m²ko garaje itxia errentan ematen da. 656-76 76 06.

Durango. Durangoko Antso Estegiz kalean garajea alokagai. Tel.: 690-18 91 68

3. LOKALAK

301. SALDU

Elorrio. 360 m²ko pabilioia salgai Elorrioko industrialdean. 634-45 72 01.

Elorrio. 950 m²ko pabilioia salgai Elorrioko industrialdean. 634-45 72 01.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Umea zaintzeko emakume bat behar da 7 urte neska bat zaintzeko, goizean eta arratsaldean. Deitu: 633 33 64 13

402. ESKAERAK

Abadiño. Etxeko lanak egiteko zein nagusiak zaintzeko andrea. Esperientzia handia, informea eska diezadazakezu noiznahi. 59 urte ditut eta orduka zein lanaldi erdian lan egiteko prest nago. Irailetik hasita. 655-71 72 63.

Aretxabaleta. Haur hezkuntza ikasi duen neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Orduetegi malgua. Patricia. Telefonoa: 636-50 83 46.

Arrasate. Hemengo emakume arduraduna edozein lanerako prest. 615-75 41 44.

Arrasate. Neska errumaniarra, arduratsua eta eskarmetuduna, orduka etxe zein atariak garbitzeko edo plantxa egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634-80 49 91.

Arrasate. Hemengo neska umeak zaintzeko, etxeko lanak edo edozein lanerako prest. Orduka ere bai. 659-55 27 16.

Arrasate. Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Eskarmetuduna. Orduetegi malgua. 618-00 08 28 / 943-79 82 43.

Arrasate. Arrasateko neska euskalduna ikastolan hezitzaile lanetan aritzen dena, irailetik aurrera arratsaldean umeak eta nagusiak zaintzeko prest. Agur. 646-12 31 59.

Antzuola. Neska euskalduna eta irakaslea, goizetan umeak eskolarako prestatu eta eskolarako eramateko prest. Telefonoa: 677-60 85 96.

Beasain. Jornada osoz edo orduka lan egingo nuke: umeak zaintzen, adineko pertsonak zaintzen, gabitzen... Erreferentzia onak daukat. Deitu: 606-72 28 76 edo 636-41 98 14.

Bergara. Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. 665-75 41 32.

Debagoiena. Orduka edo asteburuetan lan egingo nuke, garbiketan edo sukaldelaguntzailer. 659-90 85 13.

Debagoiena. Sukaldari eskarmentuduna gertu arratsalde eta asteburuetan lan egiteko. Urte askoan sukaldetan lan egindakoa. 666-83 21 95.

Debagoiena. Emakume gaztea garbitasun lan egiteko edo tabernan lan egiteko gertu. Telefonoa: 648-46 90 51.

Debagoiena. Neska gertu sukaldetan lan egiteko. Elikagaiak manipulatzeko titulua daukat. Orduka nagusi edo umeak ere zainduko nituzke. Telefonoa: 619-92 40 86.

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zaindu edo etxeak garbitzen. Telefonoa: 699-09 46 26.

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Orduka zein etxean bizitzen. 666-69 26 07.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizitzatzen ere bai. 659-77 96 22 / 943-76 48 80.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu umeak zaindu, nagusiak lagundu edo orduka garbiketara lan egiteko. 943-71 53 74 / 695-73 87 95.

Debagoiena. Neska euskalduna garbiketara lan egiteko. Eskarmentuduna eta informeekin. 671-35 22 60.

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaindu eta garbiketara egiteko. Orduka, egunez, gauetan edo etxean bertan bizitzatzen ere bai. Erreferentzia onak daukat eta lanean berehalasik nintzateke. 638 -93 11 48 / 943-25 01 11.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizitzatzen, edo bestela. 636-78 34 90.

Debagoiena. Neska gaztea eta euskalduna naiz eta aste barruan arratsalde umeak zaintzeko prest nago. Haur hezkuntza ikasi dut. Umeekin esperientzia badaukat, eta autoa ere bai. Lanerako prest nago. Telefonoa: 626-19 68 85.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu edo atari eta abarrak garbitzeko. Orduka. Legezko paperekin. 671-18 50 83 / 943-10 96 89.

Debagoiena. Mutila lanerako gertu nagusiak zaintzen edo garbiketaindustrialak egiten. Orduka, etxean bertan bizitzatzen edo bestela. 608-84 61 21.

Debagoiena. Neska euskalduna, eskarmentu eta erreferentzia onekin, gertu ume edo nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko. 671-35 22 60.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu edo ume zaindu

nagusiak zaintzeko, orduka. Baita zerbitzari ere. Eskarmentuduna. 674-59 85 01.

Debagoiena. Senar-emazteak prest baserri batean lan egiteko, pertsona nagusiak zaintzeko eta ospitalean ngusiak gauetzaintzeko. roeanami@hotmail.es. Telefonoa: 664-63 54 55 / 943-79 04 69.

Debagoiena. 08:00etatik 13:00etara garbiketara lanak egingo nituzke. Baita masaje edo manikura lanak ere, etxetz-etxe. 697-66 89 20.

Debagoiena. Emakume euskalduna garbiketara lanerako edo tabernan sukaldetan laguntzeko prest 616-68 02 18.

Debagoiena. Emakumea gertu edozein motakoanetan jarduteko. 610-99 70 46.

Debagoiena. Neska gertu sukaldelaguntzailer, garbiketara eta abarretarako. Etxean bizitzatzen edo orduka. Telefonoa: 662-26 71 41.

Debagoiena. VHS-tik CDra pasatzen ditut irudiak. Telefonoa: 679-74 00 61.

Debagoiena. 20:00etatik aurrera lan egingo nuke. Baita domeka eta jaiegunetan ere. 677 -12 75 44.

Debagoiena. Mutila gertu lanerako. 680-95 65 57.

Debagoiena. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Baita etxeak garbitzeko ere. 638-59 04 71.

Durungaldea. Mutil euskalduna eta lorezaintzan ikasketak dituen edozein lanerako prest: lorezaintzan, tabernari moduan, garbiketara... Telefonoa: 617-29 74 53.

Durungaldea. Neska euskalduna, fisioterapien diplomaduna. Durungaldean etxetz etxetz errehabilitazio (fisioterapia) traumatologikoa, neurologikoa, drenaje linfatikoa, masaiak, etab. Egiten ditut, pertsona bakoitzaren beharretara egokituta. Orduetegi malgua, goizez zein arratsalde. Interesatuak 635 -74 15 15ra.

Durango. Ume edonagusien zainketarako edota garbiketarako lan bila nabil. Arratsaldetan, gauetan zein asteburuetan. Esperientzia daukat. Erreferentziak. Tel.: 650-17 24 33.

Durango. Zaintzailer euskalduna uztailean 13:00etatik aurrera eta abuztuaren goizez eta arratsalde umeak zaintzeko prest. Berriena edo Durango. Telefonoa: 673-68 97 69.

Durango. Umeen edonagusien zainketarako edota garbiketarako lan bila nabil. Arratsaldetan, gauetan zein asteburuetan. Esperientzia daukat. Erreferentziak. Tel.: 650-17 24 33.

Durango. Zaintzailer euskalduna uztailean 13:00etatik aurrera eta abuztuaren goizez eta arratsalde umeak zaintzeko prest. Berriena edo Durango. Telefonoa: 673-68 97 69.

Durango. Gauetz edota asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia handia nagusien zainketan. Tel.: 660-14 12 92.

Durango. Andre euskalduna (51 urte), haurrak zaintzeko prest. Esperientzia luzea arlo horretan. Euskaraz zein erdaraz hitz egin dezaket. Zuen haurrak errespetuz, zintotasunez, begirunez eta konfiantza osoz zainduko ditut. Orduetegi: arratsalde, 16:30etatik aurrera eta goizez, 9:30ak arte. Tel.: 663 -32 84 25.

Durango. Andre euskalduna naiz eta pertsona nagusiak, gaixoak, ezinduek... zaintzeko prest nago. Urte askoko esperientzia daukat, eta lehenbait lehen hasteko prest nago. Interesatuak deitu 699-74 57 23 telefono zenbakira. (Ines)

Durango. Neska gaztea, etxeko lanak egiteko, umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Venezuelako neska bat naiz baina euskal herrian guztiz integratua. Esperientzia handia dut umeekin eta pertsona nagusiekin. 667-07 45 34.

Durango. Emakume arduratsua pertsona nagusien edo umeen zainketarako eta garbiketarako lan bila. Esperientziarekin. 697 -12 64 38.

Durango. Emakume arduratsua, esperientzia eta erreferentzia onekin pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketara lanerako prest. Interna edo externa modura. Orduka, jardunaldi erdi edo osoan, asteburuetan edo gauetz. Paperekin. 628-00 22 17.

Durango. Umeen edo pertsona nagusien zainketarako zein garbiketara lanerako lan bila. Jardunaldi osoan, erdian edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 638-43 79 01.

Durango. Altxarien muntaiari, igeltzerotzaren zein elektrizitate lanetan jarduteko prest. Esperientzia hiru esparruetan. 620 -02 97 00.

Durango. Pertsona euskalduna behar da datorren ikasturtean ume bi orduka zaintzeko. 649 -56 34 92.

Durango. Pertsona euskalduna behar da ume bi zaindu, ikastolara eramane eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 651-70 96 76.

Durango. Lan bila nabil etxeak garbitzeko edo umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. 696-75 35 30.

Durango. Psikologian lizentziatua. Durangoko neska euskalduna naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak orduka zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan. 646-53 83 90.

Durango. Psikologian lizentziatua. Durangoko neska euskalduna naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak orduka zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan. 646-53 83 90.

Durango. Emakume arduratsua bere burua eskaintzen du orduka eta externa bezala lan egiteko: umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak, tabernak garbitzeko eta antzekoetarako. Telefonoa: 670-67 46 41 (Juana).

Durango. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila, interna edo externa modura, orduka zein gauetz. Esperientzia askorekin eta erreferentziekin. Telefonoa: 603-95 41 94.

Durango. Neska euskalduna umeak zaintzeko, etxea garbitzeko zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Kotxearekin. Tel.: 664-14 69 04.

Durango. Neska euskalduna umeak zaintzeko, etxea garbitzeko zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Kotxearekin. Tel.: 664-14 69 04.

Sakana. Emakumea Etxarrin edo Sakanako herriren batean lan egiteko prest dago. Telefonoa: 679-86 84 13.

Umeak zaintzeko prest. Neska gaztea euskalduna naiz, umeak zaintzeko prest dagoena

2011-2012ko ikasturtean. Durungaldeko edozein herritan, goizez zein arratsalde, ez dago arazorik. Goi mailako haur hezkuntzako titulua. Edozein galdera egiteko: 615-00 59 64

Zumaia. Astelehenetik ostiralera arratsalde haurrak zein helduak zaintzeko prest dagoen 18 urtedun neska euskalduna naiz. Gidabaimena eta autoarekin. Nirekin harremanetan jarduteko deitu 943-53 52 47 telefonora. Ainhoa.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Marrazketa tekniko eskola partikularrik emango dizkidan norbait behar dut, batxilergo 1, 2 eta selektibitate mailetarako. Arrasaten. Telefonoa: 653-72 23 42.

Bergara. DBHo 2. mailako eskola partikularrik emateko pertsona bat behar da. Ikaslearen etxean izango litzake, bolu auzoan, gutxienez astean hiru bider. Egutero ordu eta erdi. 678-61 50 45.

Debagoiena. Gantxilloa egiten erakusteko edo laguntzeko pertsona baten bila nabil. 637 -52 89 83.

Durungaldea. Batxilergoko marrazketa tekniko klaseak emateko durungaldeko pertsona bat behar da. Ingenieritzako edota arkitekaturako ikaslea edo lizentziatua. 655-71 75 27.

502. EMAN

Arrasate. Eskola partikularrik ematen dira arrasaten. Goimailako ingeniari industrialak. Matematika, fisika, kimika, teknologia, marrazketa, ... Maila guztiak unibertsitate barne. Telefonoa: 630-71 35 83.

Arrasate. Banakako zein taldekako klaseak. Orduetegi malgua. Udazkenean hasteko. Esperientzia handiko profesionala. Arrasate eta inguruak. Deitu konpromezurik gabe. Beti da garai aproposa hizkuntza berri bat ikasteko. Euskara eta gaztelaniako klaseak ere ematen dira atzerriarrentzat. Itzulpen eta interpretaritzaz zerbitzua ere zure eskura. 943-25 05 79 / 635-12 87 82.

Arrasate. Arrasaten ingeles eskolak ematen ditut, DBH 1etik beharera maila guztietan. 688 -63 80 50 / 943-79 55 98.

Arrasate. Ingelesko eskolak ematen dira. Maila guztiak. 688 -64 12 56.

Bergara. Irakaslea naiz eta eskola partikularrik emateko gertu nago lehen hezkuntzako umei. Baita hizkuntzak irakasteko ere. 635-20 56 31.

Bergara. Ingelesko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Cambridge edo HEO azterketak prestatzeko. «bussines» eta bakarkako eskolak ere bai. 618 -91 32 89.

Debagoiena. Informatika eskolak ematen dira. Oinarriko maila. Programazioa. Oposizioak prestatzeko. 679-74 00 61.

Debagoiena. Frantseseko eskolak ematen dira. Telefonoa: 679-74 00 61.

Durango. Durangoko neska euskalduna uda osoan zehar

haurrak zaindu zein klase partikularrik emateko prest. Esperientziaduna. 665-71 56 08 alainegarmendia@hotmail.com.

Durango. Enpresa ikasketetako ikaslea lehen eta bigarren hezkuntzako klase partikularrik emateko prest. Telefonoa: 645 -73 11 93.

Durungaldea. Alemaniarazko klaseak ematen dira haur, gazte eta helduentzat. Telefonoa: 670 -79 33 12.

Gitarra eskola partikularrik Durangon. Elektrikoa, akustikoa, rocka, bluesa, jazz, funka eta abar. Eskalak, akordeak, eritimoa, teknikak, inprobisazioa, irakurketa... 650-17 22 85.

Ingelesa edo alemana. Banakako zein taldekako klaseak. Orduetegi malgua. Udazkenean hasteko. Esperientzia handiko profesionala. Arrasate eta inguruak. Deitu konpromezurik gabe. Beti da garai aproposa hizkuntza berri bat ikasteko. Euskara eta gaztelaniako klaseak ere ematen dira atzerriarrentzat. Itzulpen eta interpretaritzaz zerbitzua ere zure eskura. 943 25 05 79 edo 635 12 87 82

6. MOTORRA

601. SALDU

Citroen Saxo VTS 100zp salgai. Tlf: 615-74 63 02 edo ekaizmitx@hotmail.com.

Mitsubishi Pajero Liberty 3.2cc 170zp salgai. Extra askorekin (GPS, control cruise, klima, CD, aurreko kubieta, disko eta pastilla berrieekin). Iker652-73 82 74.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Astoa salgai. Urte biko asto arra, etxean jaito eta hazitakoa. Txipa jarrita. Telefonoa: 650-17 22 85.

Euskal artzain txakurkumeak salgai. Oso politik. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 24 76 33

Oilasko lumagorriak salgai. Tel.: 94-681 90 85 (20:00etatik 21:00etara)

Perikitoak salgai. Perikitoak salgai, merke, 12 eurotan. 634 -47 51 79.

Setter Irlandesak. Setter Irlandes arrazako txakurkumeak salgai. Ekainaren 23an jaitoak.

Txertatuta. 80 euro. Deitu 667 94 52 12 telefono zenbakira.

Setter Leveling txakurkumeak. Zortzi, oso politik, pedigreearekin. Ezin ditut mantendu eta azkar kendu nahi ditut. 30 euroan bakoitza. Deitu zenbaki honetara: 678 72 75 72

704. BESTELAKOAK

Asto bat hartzeko prest nago. Arra edo emea, kumea edo nagusia, edozein motatako astoa hartzeko prest nago. Oso ondo zaindua egongo da, zelai eder batean. Informazio gehiagorako bidali mezua bat astoa@hotmail.es-era.

Cocker ingelesa ematen da opari. Sei urtekoa. Emea. Beltza. Txertoak jarrita dauka. Telefonoa: 618-00 08 28 / 943-79 82 43.

Kakatu. galdu da Oñatiko San Lorenzo auzoan. Horia da eta jendearekin egoten ohituta dago. Abuztuaren 25ean galdu zen. Ikusi edo etxean jaso baduzu, deitu mesedez. Deitu 666 41 90 52 telefono zenbakira.

8. DENETARIK

801. SALDU

Arkoia. Arkoizokailua saltzen da. Neurriak: 1400 zabalera, 60 sakonera eta 80 altuera. Deitu 607937315 edo 607 93 73 15 telefono zenbakietara.

Autorako mp3 irratia salgai. Autoarentzako CD/MP3/WMA Pioneer DEH4700MPB irratiasalgai. Erabili gabea. Deitu: 636-27 15 08.

Bajua salgai. Amplifikagailu, kasko eta euskarriarekin. Academy etxekoa. Berri eta egoera onean dago. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 62 61 78

Baxua salgai. Baxu bat, ia berria, funda, kablea eta amplifikadorea (20watio). Prezioa: 200 euro. Bidali mezua: jbpetgarjo@hotmail.com

Bizikleta. Neskatilendako bizikleta salgai. Ia berri dago. 20" neurrikoa. 60 euro. Debagoienean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 675 70 67 39

Bizikleta elitpiko berri berria salgai. Berri berria, gutxi erabilia dagoen bizikleta eliptikoa salgai. Modeloa: Domyos VE 680 (Decathlon). 250 eurotan saltzen dugu. 686-89 77 32.

Egurra salgai. Zuzeneko salmenta. Moztuta. Arabako Her-

muan. Deitu 680 47 47 33 edo 618 40 19 35 zenbakietara.

Gurpilak. 2011ko Renault Clio baten gurpil bi salgai. Llantak txapazkoak dira eta estreinatu barik daude. Neguko gurpilentzako aldaketa edukitzea aproposak. 90 euro. Tel.: 667 -93 93 70.

Iurreta. Iturgintzako plegadora saltzen da, 2 metrotakoa. Bake-toirako osagarriak kobre, zink eta abarrentzako. Neurri ezberdinetako arrabolak jeitsierak, pesabreak etab. Egiteko. Telefonoa: 94-682 45 90.

Iurreta. Agria markakogasilezko motokultorea eta agria 3000 motoaitzura salgai. Tel.: 94-682 45 90.

Jané Slalom Pro aukitxoa. Aulkia, matrixa eta kapazoa salgai, egoera onean, gris eta berde kolorekoak. Prezio ezinhobe, estra askorekin. 615 72 55 15

Kanpadenda salgai. Kanpadendia berria saltzen da. Baten bakarrik erabilia. 4 pertsonarentzat. Marechal britania markakoa. Tel.: 615-00 72 16.

Mobilhomea. salgai Iratxeko kanpinean, Nafarroan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686 77 04 97

Soinua salgai. 7 urte dituen estrella markako soina saltzen dut. Prezio negoziagarria. Telefonoa: 627-11 91 56.

Sofa. 2 metroko luzera duen bi plazako sofa salgai. Ia berria eta egoera oso onean. 300 euro. Telefonoa: 629-94 22 77 / 620 -14 26 69.

Trabesiako eskiak. Taulak 1,40 neurrikoak. Fischer x-trem kotak 111-72-98 R12. Fijazioa silvretta pure carbontube. Hertzak eta fokak (piska bat kaineatuta) 200 eurogatik. Deitu 690 15 95 06 telefonora.

Trabesiako eskiak. Trabesiako eskiak salgai, taulak fischer x-trem 1,40 luzeria kotak 111-72 -98 fijazioa Silvretta pure carbontube 150 eurotan. 690-15 95 06.

802. EROSI

Babycooka. Beaba markako babycook a erosiko nuke. 645 00 98 09

Bizikleta erosiko nuke, 80. hamarkadakoa, "motoreta" estilokoa. Berdin da zein egoeratan dagoen. Inaki. Deitu 699 06 23 95 telefonora.

804. HARTU

Bidali zure ordenagailua Boliviara. Hondatuta, zaharra edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta Kainaberaren (ONG-GKE) bitartez bialduko dugu Boliviako 2. mailako eskoletara. Telefonoa: 655 71 76 66

Doaneko informatika laguntza eskeintzen dut. Edozein arazo, kezka, aholku behar baldin baduzu, bidalidazu e-mail bat languntzen@gmail.com helbide elektronikora.

Logelako altzariak hartu. Logelako altzariak aldatu behar baldin badituzu, ez itzazu zaborretara bota. Deitu eta ni joango naiz bila. Telefonoa: 697-62 59 57 661-92 63 09.

806. GALDU

Motxila galdu dut. Joan den abuztuaren 20an, 14:00ak aldera, nire motxila ahaztuta utzi nuen Arrasaten. Arbolapetan, zehatzago esanda. Ordu batzuk beranduago bueltatu nintzeneko ez zegoen bertan. Koloreei dagokienez, beltza eta gorria da. Giltza batzuk nituen barruan eta horiek errekuperatu gura ditut bereziki. 666 39 41 73

Txankletak galdu ditut. North Face etxekoak, marroiak, utzi nituen ahaztuta joan den egubakoitzean, hilak 9, Kulturarte atzeko eserleketan. Inork hartu baditu, mesedez, jarri nirekin kontaktuan. Deitu 630 65 30 57 telefono zenbakira.

Umearen belarritakoa. galdu genuen irail hasieran, Arrasateko erdigunean. Urdina eta borobila da. Aurkitu baduzu, deitu mesedez 662 66 34 20 telefonora.

808. BESTELAKOAK

Doaneko informatika laguntza eskeintzen dut. Edozein arazo, kezka, aholku behar baldin baduzu, bidalidazu e-mail bat languntzen@gmail.com helbide elektronikora.

www.inmosalbide.com

SALBIDE
Higiezin zerbitzuak

Aia. Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m²ko terraza. 46.588.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.

Iraeta. Etxabe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunit

Arina eta itxuran originala izango da Windows berria, tabletetarako prest

2012 urte amaieran egongo da sistema operatzaile berria merkatuan. Diseinua da deigarriena baina erabilpenean ekarriko ditu aldaketarik sakonenak

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Windows 95 historikoa abiatu zutenetik sistema eragilerik iraultzaileena izango omen da Windows 8a. Aurreko astean egin zuten *Windows Build* delako aurkezpe-

na eta arduradunek agindu zuten aldatu egingo dela erabiltzaileak ordenagailuarekin ibiltzeko modua. Izan ere, Windows 8 pantaila ukigarriekin jarduteko bereziki diseinatu dute. Hasierako

pantailatik bertatik izango da ezberdina Windows berria eta paneletan banatuko dira erabiltzaileak gehien erabiltzen dituen guztiak eta aplikazioak eta pertsonalizatzeko aukera asko emango

ditu. *Metro* dauka izena interfa-ze berriak eta hatzamarrekin erabiltzeko dago pentsatua, diseinu arin eta orijinalarekin, aurkezpenean bertan izandako adituek komentatu dutenaren arabera eta Windows Phonean erabiltzen den horren egokitzapena da *Metro*.

Bizitza "hodeian"

Ezin bestela eta Windows 8ak urrutiko biltegitza garrantzia emango dio, bai fitxategiak hodeian gordetzeko eta baita ere gailu ezberdinak sinkronizatzeko moduetan. *SkyDrive* delako aplikazioarekin, adibidez, edozein fitxategi igo zein jeitsi ahalko da gailuetara. PC eta tableten arteko muga ezabatzea da helburua, joera nagusia da-eta hori.

Internet Explorer berria

Hamargarren bertsioa izango du web nabigatzaileak eta nobedade moduan, zuzenean exekutatu ahalko ditu HTML5ean edo CSS3an diseinatutako aplikazioak. Errendimenduan hobekuntzak ekarriko ditu nagusiko nabigatzailearen bertsio berriak.

Iritzi ona aurkezpenean

Aurkezpena jaso duten aditu eta kazetariak itxura ona hartu diote Windowsen apustu berriari. Berebiziko garrantzia du honek "post-PC" garaira begira egin duten apustu garrantzitsuena da-eta, erabakigarria, Windows Vistaren hutsegitea eta gero.



Windows 8aren hasiera pantaila. | BLOGGING WINDOWS

Amazon.es abiatu dute baina zerbitzu eta aukera asko ez daude eskuragarri Estatuan

Deskarga digitalik ez dute eskainiko eta prezio politika ez da nazioartean besteko lehiakorra

J.B. | ARRASATE

Joan den egunerako iragarri zuten irekiera baina eguaztene-rako, dagoeneko, bazebilen Amazon.es, on-line salmenten handiki amerikarraren espainiar besoa. Besamotza, gainera, hein handi batean, prezioak ez baitira nazioarteko gainontzekoetan adinako lehiakorrak eta material digitalik ez daukate salgai, momentuz.

Madriren aurkezpena Greg Greeleyk egin zuen, Europarako presidenteordeak, eta agertu zuen herrialde bakoitzean lekuko erregelamendu eta arauetara egokitu beharra izaten dutela. Momentuz 18.000 titulu daukate Estatukoak eta 2,5 milioi titulu guztira. Aurkezpenean, harrigarria bada ere, ez zuen argitu deskarga digita-

lekin ze asmo duten, ezta egongo direnik ere. Are harritzekoagoa da hori, Kindle irakurgailua baita Amazonen gailu izarra eta halakorik erosteko aukerarik ere ez dauka Amazon.es-ek. Merkataritza elektronikoa goitik behera aldatu zuen konpainiak beraz ez

dauka asmo handirik Espainiako Estatuan nahiz eta lehen hila-betean garraio gastuak doakoak izango diren. Prezioak ere gainontzeko komertzio digitaletakoen nahiko antzerakoak dira eta gauza bitxia da ze Amazon ezaguna bada, da prezio-politika benetan lehiakorra izan duelako beti. Prezioen borrokan baina, dende bakarrak ez, argitaletxeek, hitzarmen ezberdinek eta kontrol politikoek zeresana eta pisua daukate.

Sortu zenetik 16 urtera ireki dute denda espainiar domeinurekin baina badirudi erdizka sartuko direla. Kindle irakurgailua, gainera, etxearen ikurretako bat, ez daukate salgai Espainiako dendan.

Euskarazkoak baita ere

Euskarazko liburuentzako atala ere badauka Amazon.es guneak *Ongi etorri Euskal Liburu dendara* goiburuararekin eta guzti. Katalanezko galizierazko liburuak ere badauzkate.

Doako wi-fi publikoa eskaini ahalko dute Udalek baina muga zehatzekin

Auzolagun taldeei ere baimena eman diete baina operadoreen oniritzia beharko dute

J.B. | ARRASATE

Malagako Udalako 300.000 euroko isuna ordaindu beharko du dagokion erakunde erregulatzaileari hiriko alde zaharreen wi-fi publiko eta doakoa eskainiko zutela ez abisatzeagatik. Audentzia Nazionalak eman zuen eguaztenean epaia jakitera operadore pribatuen salaketa jaso eta gero. Erabakiaren arabera, erakunde publikoak wi-fi zerbitzua eskaintzekotan, operadore pribatuen baldintza beretan egin beharko dute, Telekomunikazioen Lege Nagusiak ezarritakoak, alegia. Epaia gainera zehazten du erakunde publikoek wi-fi eskaini ahalko dutela, bai, baina betiere sare horretatik alor publikoko webgune ala zerbitzuetara sartzeko - errolda agiria eskatu ala ordainketa bat egiteko, esate baterako - eta ez edozein webgunetara sartzeko. Honi 2010ean onartutako beste neurri bat gehitu behar zaio, hain zuzen, segunduko 256 kilobyteko abia-

dura ez gainditzea; konexio mota geldoa, inondik inora, gaur egungo beharretarako.


Komunitateetan baimena

Etxebizitza eraikineten wi-fi partekatzeak aukerari ere argi berdea eman diote epaileek, autoprestazioa dela garbi utzita, operadoreari jakinaraziz eta irabazi asmorik egiten bada. Jaengo komunitate batek izandako auzia argitu eta gero eman da jakitera baimena. Gakoa hemen operadoreen baimenean dago, ezinbestekoa baita legala izan dadin eta operadoreetako asko ez dira prest egoten zerbitzu hori ematera. Zenbait kasutan, espresuki debekatu egiten da ADSL zerbitzua partekatzea.

Wi-fi publikoa kafetegi, hotel, autobus ala kioskoetan ere eskaintzen da gaur egun. Legearen arabera baimena erabatekoa da beti ere irismena establezimendura bakarrik mugatzen baldin bada.

Hegaldien bilaketa izango da Googlen hurrengo urratsa

Maiatzetik dago bilaketa zerbitzua martxan baina orain orri berezia ipini dute hegaldietarako, momentuz, Estatu Batuetako zenbait hiritarako soilik baina aurki hedatzeko asmoarekin. Google Flights-ek eguneka, orduka eta prezioaren arabera egiten du bilaketa eta denbora epe baten aurki daitezkeen hegaldirik merkeenak erakusten ditu, baita. Diseinuari dagokionez, Googlen itxura klasikoak du emaitzak baina zerbitzua garatzen dabilatzela diote. ITA Software, horretara dedikatzen zen enpresa erosita abiatu du Googlen zerbitzu berria, Maps teknologiarekin.



Google Flights. | GOOGLE

Delicious berpiztuko dute Youtuberen sortzaileak

Youtuberekin iraultza ekarri zutenek, Steve Chen eta Chad Hurleyk, Delicious hartu eta orri markatzaile zerbitzu eza-gun baina ahaztua berpiztu gura dute. Deliciouseri ukitu sozialagoa emango diotela diote eta erabiltzaileari lagundu egunero blog, orri edo asare sozialetatik datorkion uholdearekin. Yahooerekin egin dute hitzarmena baina akordioaren xehetasunik ez da jakin. Aurreratu dutenez, itxuraz nahiko anitzterakoa izango da. halere.

Aurkezpenak.net abiatu dute, Slideshare gunearen antzekoa

Power Point, Open Office Presentation, PDFz edo antzeko programatan egindako aurkezpenak konpartitzeko webgunea abiatu dute Mikoleta Elkarte eta Bitarlan Informatika entitateak. Erabiltzaileak bere orrian gorde, partekatu eta erakutsi ahal izango ditu egindako aurkezpenak. Webgune honetara igotako aurkezpen guztiak, aldi berean, Slideshare zerbitzu ezagunarekin ere bilteguratu eta erakusten da, zabalkundea are handiagoa delarik, eta bi guneetatik egongo da eskuragarri aurkezpen bera.

TELE-BEGI

AINHOA VITORIA



Biluzik audientzia bila

Audientzia munduak ikaratu egiten nau; gerra batean bihurtu da. Jendea edozer gauza egiteko gai da promozionatzeko. Askotan ikusi izan ditugu famatuak aldizkarietako portadan, oso sentsual; baina, Ashton Kutcher aktorea haratago joan da; telebistan zuzenean biluztu da.

Dos hombres y medio tele-saileko protagonista berria da Kutcher. Charlie Sheen aktore polemikoak telesaila utzi zuen eta zerbait erakaragarria egitea beharrezkoa zen audientzia mantentzeko. Hori-ke okurritu zitzaion Demi Mooreen mutil lagunari: Ellen Degeneresen tv showan biluztea. Estatu Batuetako audientziak hankaz gora jarri eta mundu mailan *rending topic* bihurtu zen Twitteren.

Ez da biluztu den ospetsu bakarra izan. Heidi Klum modeloa ere biluztu zen. Biek lortu dute beraien helburua, beraz, ez gaitezen harritu datozen urtetan telebistako jendea edozein momentutan, biluzik ikusten baditugu. Hala ere, ez dakit promozionatzeko modu honekin ospetsuen xarma hori ez ote den galduko; edo erakargarriagoa izango dira, batek daki. Beste ezer arrarorik egiten ez duten bitartean, gu pozik.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 19



San Martin jaiak ikusgai

19:45

San Martin jaiak asteburuan eman dutena jasotzen ibili gara egunotan Bergaran. Bada, gaur eskainiko dizuegu telebistan.

12:25 Magazinea
13:25 Marrazki bizidunak
13:45 Jaiak: Gernikako jaiak
14:45 Berriak
15:15 Gipuzkoa kultura
15:45 Jaiak: Ordiziako euskal jaiak
16:43 Berriak
17:13 Leku txiki bat
17:23 Baratzeko loreak
17:50 Onein
18:14 Iruñeko hotsak
18:42 Berriak
19:12 Marrazki bizidunak
19:42 Magazinea
20:42 Harmailatik
21:27 Magazinea
22:27 Harmailatik
23:12 Gipuzkoa kultura
00:13 Jaiak: Gernikako jaiak

MARTITZENA, 20



'Baratzeko loreak' saioa

17:21

Xaloe telebistako ekoiztutako *Baratzeko loreak* saioa eskainiko dugu. Oraingoan, Felix del Moralek bere ortua aurkeztuko digu.

12:30 Magazinea
13:30 Marrazki bizidunak
14:00 Onein
14:20 Iruñeko hotsak
14:48 Berriak
15:18 Harmailatik
15:58 Jaiak: Ordiziako euskal jaiak
16:51 Berriak
17:21 Baratzeko loreak
17:48 Bizitegia
18:18 Gipuzkoa kultura
18:48 Berriak
19:18 Marrazki bizidunak
19:46 Magazinea
20:46 Baratzeko loreak
21:13 Magazinea
22:13 Berbaz
23:13 Magazinea

EGUAZTENA, 21



Mekolaldeko araztegiak

19:45

Mekolaldeko araztegi-egietara egingo dugu bisita: bertako instalakuntzak ikusi eta barruan zein lan egiten den ezagutuko dugu.

12:30 Magazinea
13:30 Marrazki bizidunak
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Jaiak: Gernikako jaiak
15:42 Baratzeko loreak
16:10 Iruñeko hotsak
16:38 Leku txiki bat
16:58 Berriak
17:29 Bizitegia
17:56 Baratzeko loreak
18:26 Gipuzkoa kultura
18:56 Berriak
19:10 Marrazki bizidunak
19:46 Magazinea
20:46 Harmailatik
21:31 Magazinea
22:31 Jaiak: Lekeitioko jaiak
23:31 Bitartean

EGUENA, 22



Monzonen pastoralari

22:15

Bergaran egindako Telesforo Monzonen gaineko pastoralari buruz jardungo gara *Gipuzkoa kultura* saioan.

12:30 Magazinea
13:30 Marrazki bizidunak
13:55 Jaiak: Ordiziako euskal jaiak
14:48 Berriak
15:18 Onein
15:46 Iruñeko hotsak
16:14 Bizitegia
16:39 28. Klip
17:09 Berriak
17:39 Berbaz
18:39 Berriak
19:09 Marrazki bizidunak
19:44 Magazinea
20:44 Baratzeko loreak
21:11 Magazinea
22:11 Gipuzkoa kultura
22:41 Magazinea

EGUBAKOITZA, 23



'Magazinea'-ren errepikapena

12:30

Gogoratu aurreko eguneko *Magazinea* saioaren errepikapena ematen dugula, egunero 12:30ean. Gaur, eguneneko dugu.

12:30 Magazinea
13:30 Marrazki bizidunak
13:50 Onein
14:18 Iruñeko hotsak
14:46 Berriak
15:13 Baratzeko loreak
15:43 Marrazki bizidunak
16:28 Leku txiki bat
16:43 Berriak
17:16 Marrazki bizidunak
17:46 Ipupomamua
18:16 Leku txiki bat
18:26 Berriak
19:01 Marrazki bizidunak
19:46 Magazinea
20:46 Gipuzkoa kultura
21:16 Magazinea
22:16 Jaiak: Gernikako jaiak
23:16 Magazinea

ARRASATE IRRATIA

Ain_1 taldearen 'Muxika kaxa' diskoa zozketatuko dugu

Ain_1 taldearen azken diskoa Arrasate Irratiko zozketaren sakuan daukagu. *Musika kaxa* kaleratu berri dute Ain_1 taldeko neskek eta hori muxu truk eskuratzeko aukera izango duzue zozketan parten hartzen duzuenok. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com*-era.

EAEko Andaluziar etxeen topaketari buruz, 107.7an

Euskal Autonomia Erkidego-ko Andaluziar etxeen topaketak Arrastean egingo dituzte asteburuan. Horren gaineko xehetasun guzti-guztiak Arrasate Irratian emango ditugu aste honetan, 107.7an. Hori guztia eta gehiago, *Uda giroan* irratiaioan izango da goizeko

Kirol emaitzen errepasoa jasoko dugu gaurko saioan

Asteburuak eman dituen kirol emaitzak errepasatuko ditugu astelehenero bezala, gaurko saioan. Tartean *Pitxi Romero* eskubaloitza torneoak emandakoak zeintzuk diren jakingo dugu eta Ane Herrerok gidatzen duen taldearen asmoak denboraldi berrirako zeintzuk diren ere jasoko ditugu.

TELE-ALBISTEAK

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa eskainiko dugu Goiena telebistan

Toki telebistek elkarlanean egindako lanaren ondorioz eskainiko ditugu bertsolaritza saioak

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Maiatzean lehen fasea jokatu ostean, asteburuan berrekin zuen GPuntuak; 2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak. Txapelketa hamabost geltoki ezberdinetan pausatuz iritsiko da abenduaren 18an Donostiako Iluben jokatu den finalera. Guztira, hamasei saio jokatu dira, beraz. Bidai horren bidez, Gipuzkoako bertso sarea ehunduko dute.

Final zortzirenek Andoainen izan zuten hasiera eta ondorengoak Azkoitian, Eibarren, Lazkaon, Elgoibarren, Lasarte-Orian

eta Irunen jokatu dira. Hori-tan sailkatzen direnek final laurdenak jokatu dituzte Oñatin, Billabonan, Ondarribian, Idiazabal eta Azpeitian. Final aurrekoak, berriz, Arrasate, Tolosa eta Hernanin izango dira. Hala, azken geltokira iritsiko dira Ilubera, abenduaren 18an.

Saio horien zuzendari eta aurkezle lanetan Iñaki Apalategi dabil.

Aurten gainera, antolatzaileek esan dute ikusita azken urteetako jendearen asistentzia handia izan dela, aurtengo saioak areto



2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako aurkezpena. | BIZKAIE.BIZ

Iñaki Apalategik zuzendu eta aurkeztuko ditu bertsolaritza saioak

handietan egiten saiatu direla, besteak beste.

Elkarlanean egindako saioak Bertsolaritza saio horiek guztiekin telebista bitartez gozatzeko aukera izango duzue gainera.

Izan ere, Goiena telebistak tokia egingo dio 2011ko Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketari.

Toki telebistek elkarlanean ekoiztuko dituzte saioak eta ondoren guztiak telebistan eskainiko ditugu.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Haizea Arregi Markuleta
Abuztuaren 14an, 4 urte. Gure etxeko printzesak 4 urte haundi bete zituen. Segi beti bezain alai. Etxeko danon partetik, pa!




ARRASATE
Ibai Rodriguez Baena
Abuztuaren 12an, 2 urte. Zorionak, prexioso! Oso ondo pasatu zure urtebetzeko egunean. Muxi pila familiakoan partetik!



ARETXABALETA
Naiara Ignacio Ortiz
Irailaren 25ean, 4 urte. Zorionak, Naiara, zure familia eta lagunen partetik. Ondo pasatu zure egunean. Muxu handi ba.



BERGARA
Saioa Leturia Gabilondo
Irailaren 24an, 7 urte beteko ditu. Zorionak, mendizale! Ondo-ondo pasatu zure egunean eta muxuak familia guztixaren partetik.



OÑATI
Maialen Maiztegi Lete
Irailaren 23an, 4 urte. Zorionak, printzesa. Ondo pasatu zeure eguna eta patxo handi bat Oñatiko eta Antzuolako familia eta lagun partetik.



ARRASATE
Unax Urtubi
Irailaren 23an, urtebetetzea. Zorionak eta patxo handia aitona, amona eta etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Elene Ormaetxea Artola
Irailaren 22an, 3 urte. Gure sorgintxuak hiru urte! Zelako haundixa eitten zabitzen, Elene! Zorionak eta patata tortilazko patxoak Lukenen partetik.




DEBAGOIENA
Aner De la Torre Urzelai
Irailaren 22an, 6 urte. Zorionak, majeton, Aramaioko lagun partetik.



ARRASATE
Maddi Etxagibel Ruidiaz
Irailaren 22an, 5 urte. Dagoeneko esku bat beteta! Zorionak eta muxu handi bat etxeko partetik.



BERGARA
Elene Taboada Muruamendiaraz
Irailaren 22an, 3 urte. Zorionak, printzesa. Muxu bat familiaren partetik.



OÑATI
Maiu Etxeberria Benito
Irailaren 21ean, 5 urte. Zorionak, Maiu! Jada bost urte? Zu bai zu mutiko handixa! Merendolan ospatuko! Patxo handi bat danon partetik! Pa!



OÑATI
Beñat eta Maialen Guridi
Irailaren 20an, 10 urte. Zorionak, bikote! Etxeko guztien partetik zorionak eta muxu handi bana bioi zuen 10 eta 7. urtebetetzean. Ah, eta gertatu merendola on bat... gustora joango gara-ta.



ARRASATE
Ane Fernandez Alonso
Irailaren 20an, 3 urte. Zorionak, poxpolin. Gure rubixak hiru urtetxo! Familixakuen eta bereziki lehengusu Beñat eta lehengusina Marenen partetik, ederto pasatu eta marrubizko hiru kilo patxo handi-handi!




ARETXABALETA
Jon Larrañaga Ormaetxea
Irailaren 19an, 5 urte. Zorionak, pirata. Ondo pasatu zure urtebetetzea Benidormen. Muxu handi-handi bat etxeko guztien eta bereziki Iraideren partetik.



ARRASATE
Danel Castillo Romero
Irailaren 19an, urtebete. Zorionak, potxolo! Ze azkar pasatu dan urtia. Ondo pasatu eguna! Patxo potolo pila aitatxo, amatxo eta etxeko guztien partetik.




OÑATI
Ines del Amo
Irailaren 19an, 29 urte. Zorionak, amatxo! Muxu handia etxeko danon, eta bereziki, aitatxo eta Marinaren partetik.



ARRASATE
Jone Canales Diez
Irailaren 18an, 3 urte. Zorionek, Kukete, Alazne eta Aitorren partetik! Eta domekan ondo pasatuko dugu merendolan... ah, ekarri txutxeak!




ARRASATE
Unax Aranzabal Vitoria
Irailaren 18an, 7 urte. Zorionak, mutikote. Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunean. Txokolatzeko mila muxutxo aitatxo, amatxo eta bereziki Aneren partetik.




ARRASATE
Oihan Arriaran Zubillaga
Irailaren 18an, 3 urte. Zorionak, pirata! Oso ondo pasatu zure hirugarren urtebetetze egunean. Patxo handi bat danon partetik.



ANTZUOLA
Saioa Zabalo Lazkano
Irailaren 18an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako etxeko guztien partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



ARRASATE
Irati Rodriguez Sanzberro
Irailaren 17an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo pasatu zure egunean eta txoko-marrubizko muxu goxo-goxoak zuretzako familia guztiaren partetik!



ARETXABALETA
Kaiet Altarriba Nelson
Irailaren 17an, urtebete. Zorionak, Kaiet! Ondo-ondo pasatu zure eguna urtetxo bat behin bakarrik ospatzen baita! Zure amama, grandad eta tiaren partetik muxu handi bat.



BERGARA
Unai Agirrebeña Altuna
Irailaren 16an, 3 urte. Zorionak, potolontzio! Handitzen doia gure txikixa. Pinata prestatu behar dou, eh! Muxu potolo bat guztien, eta bereziki, Noraren partetik.




ARRASATE
Garazi Nieto Gorosabel
Irailaren 16an, 4 urte. Zorionak, potxola! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu pila familiakoan partetik!



ARRASATE
Maite Iturraran
Irailaren 16an, 27 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta hobeto ospatu! Muxu handi-handi bat!



ARETXABALETA
Joxe Miel Uribarren
Irailaren 16an, 59 urte. Zorionak, aittona! Ondo-ondo pasatu zure egune. Patxo handi bat danon partetik. Aupa UDA!



ARRASATE
Janett
Irailaren 15ean, 26 urte. Zorionak, xiki! Egun ona pasatu eta aber zenbat sorpresa ematen dizkizuten. Muxu.



ARRASATE
Urtzi Urizar
Irailaren 15ean, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Familia eta kuadrilaren partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu GOIENArekin bidez zoriontzeko:

Internet
Sar zaitez goiena.net atarian eta Zorion agurra bidali botoia sakatu.
Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.
Posta elektronikoa
Mezu bat bidali zorionagurruk@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitez GOIENAKo ordezkarietara.

JAIOTAKOAK



Uxue Aranburu Moreno

Oñati 3,300Kilo. Abuztuaren 31. Gurasoak: Ane eta Gaizka. Argazkian, Uxue ahizpa Haizearekin.



Enar Kortabarria Ibabe

Elorrio 3,600Kilo. Irailaren 9a. Gurasoak: Itziar eta Gorka. Argazkian, umea gurasoekin.



Kate Moral Kieran

Arrasate 3,180Kilo. Irailaren 10a. Gurasoak: Emma eta Asier. Argazkian, umea gurasoekin.



June Nafarrate Belloso

Aramaio 3,420Kilo. Irailaren 11. Gurasoak: Amaia eta Ramon. Argazkian, umea gurasoekin.



Danel Zubia Carrasco

Arrasate 4,200Kilo. Irailaren 8a. Gurasoak: Susana eta Iker. Argazkian, umea gurasoekin.



Kepa Cuesta Billar

Oñati 3,590Kilo. Irailaren 12a. Gurasoak: Amaia eta David. Argazkian, umea gurasoekin.



Unax Martin Aranburu

Oñati 4,420Kilo. Irailaren 12a. Gurasoak: Nerea eta Asier. Argazkian, umea aitarekin.



Beñat Larrañaga Liberal

Bergara 3,100Kilo. Irailaren 15a. Gurasoak: Mirian eta Joseba. Argazkian, umea aitarekin.



Haizea Iturrospe Arrondo

Bergara 2,900Kilo. Irailaren 14a. Gurasoak: Maitane eta Eneko. Argazkian, umea amarekin.



Maddi Etxabe Zamalloa

Mendiola 2,500Kilo. Irailaren 13a. Gurasoak: Maider eta Igor. Argazkian, Maddi lotan.

BABESLEA



**IKUSI
MAKUSI**
Umeen paradisia



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Nikaraguako hiriburua	Orrazteko era	Igeltseroen lanabesa
	* Espainiako hiriburua	Lore mota	Sendo
	Gurdi mota, lera		
Bizkaiko ibaia	Landare mota		
Soldaduar	Fruitu mota		
Ezin aipatuzkoak			Potasioa
Artea			Ez du entzuten
		Nafarroako ibaia	
		... egjin, goitik ari	
Zangoaren atal		Gogora	
Zilarraren antzekoa		Röntgen	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	R	A	K	R	A	L	I	Z
I	O	R	O	N	I	O		
A	G	E	A	I	A	R	E	
K		K	A	U	B	A	T	
N	O	Z	I	G	A	D	A	G
U	M	A	V	A	K	A	B	
A		R	V	N				
L		R	I	D	A	M		
P		O		M				

BILA-BILA 7



Gozo eta haragizaleendako

Dagoeneko ohituta gaude babarrun edo dilista zaporeko izozkietara. zergatik ez orduan, hirugihar zaporeko gozokiak?
www.nopuedocreer.com



"Nire aitonatxo Franco pertsona handia zen, pertsona zoragarria".

JAIME MARTINEZ-BORDIU | RANCOREN ILOBA

Zaila egiten da Franco diktadorea aitonatxo baten moduan imajinatzea... Dena den, halako adierazpenak ez dira arraroak. Nork ez du entzun telebistan emakume bat esaten atxilotu berri duten bizilagun hiltzailea pertsona ona zela, beti agurtzen zuelako?
www.publico.es



Max. 20°

Min. 12°

Astlehenean giroa egonkortuz joango da eta tenperaturak koska bat gora egingo du.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2011-09-19

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Kirmen Uribe Gutxi dira, ondarrutar honek bezala, euskaraz idatzita mundu guztian zehar aparteko harrera izan dutenak. Azken adibidea? Bilbao-New York-Bilbao japonierara itzuliko dutela | TXOMIN MADINA

"Ez dago norbere burua errepikatzea baino gauza okerragorik"

1. Nahikoa atsedean hartu duzu pregoilari lanak amaitu zenituenetik?
Hartu dut atsedean eta hasi naiz lanean. Baina poza ez zait kendu, nire bizitzako aste politenetakoa izan da. Neure burua aurkitu dut berriz; lehengo Kirmen.

2. Zerk ilusio gehiago: pregoilari izateko deitu izanak ala Literaturako Sari Nazionalak?
Amari, etxekoei, pregoilari izateak! Niri biek; sari ezberdinak dira: bata literatur lanari egindako aitortza da; bestea, nire ustez politagoa, Bilboko hiriak egindako aitortza.

3. Eta zer suposatu zuen zuretzat Literaturako Sari nazionalak?
Gazi-gozoa izan zen: atek zabaldu dizkit, baina baita kezka eman ere. Ez dut nahi beste sari batzuen gainetik egotea; adibidez, Estatu Batuetan olerki liburua argitaratzea, garrantzitsuagoa izan da.

4. Zein puntura arte sentitzen zara euskal letren enbaxadore?
Hori gauza handia esatea da! Nahiko nuke kanpoan dabiltzan euskal idazleak bat edo bi beharrez, talde bat izatea. Loraldi bat bizi dugu eta gustatuko litzaidake bat baino gehiago ateratzea atzerrira.

5. Euskarazko letrek, ematen al dute bankuarenak ordaintzeko?
Ematen dute; aberats izateko ez, baina bai zoriontsu izateko. Ikasi behar dugu diru apur batekin pozik bizitzen; XXI. mendeak hori ekarriko du.



JON POZO

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Euskal errepublikaren aldarria"

"Euskal errepublikaren aldeko aldarria egingo nuke; gero ikusiko genuke zer gertatzen den! Behintzat alderdi guztiak bilduko nituzke, ea akordio batera heltzen garen. Indar handia jarriko nuke babes sozialean. Euskararen alde ere egingo nuke. Eta erreko lehendakaria izaten saiatuko nintzateke, garrantzitsua da hori".

6. Literatura hainbat formatutan landu duzu. Beti dago berritzaile izaterik?
Ez dago norbere burua errepikatzea baino gauza okerragorik. Irakurlearekiko errespetuagatik liburu bakoitzean gauza berriak kontatu eta egiten saiatzen naiz, nahiz eta nire estilo hori izan.

7. Eta nolako da zure hitzak kamiseta baten irakurtzea?
Ederra! Kukuxumusuko Mikel Urmenetarekin egindako proiektua izan zen. Gainera kamisetan barrutik dator olerkia: kendu egin behar da irakurtzeko, horrek esan nahi duen guztiarekin.

8. Zer geratzen da musika taldeentzat letrak idazten hasi zen Kirmen hartaz?
Geratzen da zerbait! Hasteko, rock alternatiboarekiko zaletasuna; oporretan ume txikiarekin Lou Reed ikustera joan ginen! Nerabe puntu hori ere geratzen da, puntu inozo hori, puntu idealista.

9. Pasa zitzaizun burutik aita bezala arrantzale izatea?
Bai, baina aitak ez zuen nahi. Arrantzale izaera baina, erabatekoa dut: abenturazalea izan eta egunean bizitzea, ekaitzei aurre egitea... Baita bizizalea izatea ere!

10. Bilbotik New Yorkera eraman gintuzun. Beste bidaia bat proposatzekotan...
Euskal Herrian barna.: Nafarroa, Iparraldea, Lea-Artibai... Oinez egiteko bidaia, edo bizikletan.

BIHARAMUNA

MARIA AGIRRE



Nire lagunarekin hizketan

Tamalez, lan barik geratu den gero eta jende gehiago dut inguruan. Hogeitaka urte lantoki berean lanean ibili ondoren, agur, bukatu da, esan berri diote ezagun bati. Oporretatik bueltan lanera joan, eta *oporak* luzeagoak izango direla jakinarazi diote. Ondorengo zeregina Lanbide, Inem edo dena delakora joatea. Han entzundakoak ez du laguna asebeta. Noraeza areagotu zaio bulegotik irtendakoan. Bat etorri ginen, nire kasuan ere Lanbiderekin izandako harremana ez baitzen emankorra izan. Ikastaroen zerrenda nahiko fiktizioa da. Gezur txiki asko dago Lanbideri buruz prentsan ageri diren kopuruetan.

Lagunarekin nuen hizketaldia, baina, mikatuz joan zen. "Itxaroten nengoen bitartean, albo batean bi ijito nituen, eta bestean hiru sudaka, lanik ez, soilik dirulaguntza jaso nahi zutenak". "Geldi hi!", esan nion, "ez jarraitu bide horretatik, ezkertiar, eta aurrerakoitz zintudan, eta iritzi aldatzen hasi naiz". Pentsatzen jarrita, isilean, baina, zenbat jende ote dago Gema Zabalek hartu duen erabakia-rekin bat. Tamalez, uste baino gehiago

R.P.S. Nº 149/10 U.L.G.

2 konbinatu m6

2 betaurreko partekatzeko

97€ kristalak barne

Eskaintza hau baliagarria izango da 2011/11/30ra arte. Konsulta itzazu optikan, kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da pilatu beste promozio batzuekin.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan